

Euskaltzainak Bilduma

Argitaratuak:

1. *Gratien Adema*. Zaldubi Saindu batzuen biziaz. 2007
2. *Pierre Charritton*. Pierre Broussain. 2007
3. *Pierre Lbande*. Yolanda eta beste euskarazko idazlanak. 2007
4. *Gratien Adema*. Zaldubi Artzain beltzaren neurtitzak. 2008
5. *Antonio Arrue*. Idaztiak & Hitzaldiak. 2008
6. *Domingo Agirre*. Gutun bilduma. 2008
7. *Txomin Peillen Karrikaburu*. Biziazen Hiztegia. 2009
8. *Gorka Aulestia*. Estigmatizados por la guerra. 2009
9. *Jean-Louis Davant*. Zuberoako literaturaz. 2009
10. *Gratien Adema*. Zaldubi Kantikak. 2009
11. *Santiago Ezkerra Beltza*. Lizarrusti Bizitza eta lanak. 2009
12. *Gratien Adema*. Zaldubi Prediku Zenbait. 2009
13. *Martin Maister*. Jesü Kristen imitazioa. 2010
14. *Gorka Aulestia*. Escritores euskéricos contemporáneos. 2011
15. *Gratien Adema*. Zaldubi Alegiak eta bertze neurtitzak. 2011
16. *Gratien Adema*. Zaldubi Bertze prediku batzuk. 2011
17. *Junes Casenave-Harigile*. Xiberoko antzertia edo pastoral. 2011
18. *Txomin Peillen Karrikaburu*. Jon Mirande, olerkaria. 2012
19. *Jean-Louis Davant*. Antoine D'Abbadie, Abbadiaz. 2012
20. *Gratien Adema*. Zaldubi Gaineratekoen bilduma. 2012
21. *Ernest Daudet*. Amodiaren Martirra. 2013
22. *Jean-Baptiste Coyos*. Zuberearazko istorio, alegia eta ipuin irri-egingarri. 2013
23. *Pierre Charritton*. Le fondement moral des droits culturels de l'homme. (kultura eskubideen oinarri etikoak). 2013
24. *Pierre Dourisbourg*. Bahnar deitu salbaiak. 2014
25. *Mongongo Dassanza*. Albaitaritzako idazlanak (1692-1892). 2014
26. *Ignazio Omaetxebarria*. Euskara barrutik. Estudios de lingüística vasca. 2016
27. *Resurreccion Maria Azkue*. Ardi galdua. 2018
28. *Jakes Sarrailet*. Janpierra Lexardoarteren bizitza edo Basabürtiaren trajeria. 2018
29. *José Agerre Santesteban*. Biografía de Arturo Campión. 2019
30. *Adrien Gabiteguy*. Laborantza. Laborantzatik hobeki bizitzeko. 2019
31. *Joakin Berminghamen solasak*. 2020

Euskaltzainak izeneko bilduman euskaltzain izan diren eta direnen obrak eta eurei buruzko azterketak argitaratuko dira, Akademiaren historiako esanguratsu gertatu diren hainbat egileren lanak ere alboratu gabe.



Euskaltzaindia
Real Academia de la Lengua Vasca
Académie de la Langue Basque



JOAKIN BERMINGHAMEN SOLASAK

JOAKIN BERMINGHAMEN SOLASAK:

Herejiak euskaldunen artean Patxikuren eta Mañubelen bigarren berriketa Terexaren sukaldea Bi ganbarak Pello Mariren ganbara

Paratzaileak: **Ana Toledo Lezeta**
Elixabete Perez Gaztelu



EUSKALTZAINAK BILDUMA
EUSKALTZAINDIA



ANA M. TOLEDO LEZETA (Antzuola, 1954). Euskal Filologian doktore, 1993az gero Deustuko Unibertsitateko irakasle titularra da eta 2005az gero euskaltzain oso. Irakaskuntzan nahiz ikerketan Euskal Literatura jorratu du, bereziki kontakizunaren alorra. Bere azterlanen artean *Domingo Agirre: euskal eleberriarren sorrera* (1989) eta *Ardi galduaren* edizioa (2018), Elixabete Perez Gaztelurekin batera, nabarmendu daitezke.



ELIXABETE PEREZ GAZTELU (Errenteria, 1961). Euskal Filologian doktorea eta Deustuko Unibertsitateko irakasle titularra (2002). Euskaltzain urgazlea (2006). Irakaskuntzan eta ikerketan Lexikologia eta hizkuntzen erabilera komunikazioan ditu langai. Bere lanen artean, aipatzekoak dira doktore tesian oinarritutako *Koldo Mitxelena Elissati, egitasmoa eta egitatea* (1995) eta *Hitz elkarketa/2* (2014) Miren Azkaraterekin batera eta *Ardi galduaren* edizioa (2018), Ana Toledorekin batera.



31

JOAKIN BERMINGHAMEN SOLASAK

Herejiak euskaldunen artean
Patxikuren eta Mañubelen bigarren berriketa
Terexaren sukaldea
Bi ganbarak
Pello Mariren ganbara

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

"Aitzinsolasa" eta "Berrargitalpenaren edizio irizpideak" atalen hizkuntza-orrasketa:
Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA).

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoeekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekaniko, fotokimiko, magnetiko, elektrooptiko, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Imprimatzea: Tecnigraf, S.A.L.

ISBN: 978-84-121889-0-5
Lege-gordailua: BI-00851-2020

JOAKIN BERMINGHAMEN SOLASAK

Herejiak euskaldunen artean
Patxikuren eta Mañubelen bigarren berriketa
Terexaren sukaldea
Bi ganbarak
Pello Mariren ganbara

Paratzaileak: Ana M. Toledo Lezeta, Elixabete Perez Gaztelu

EUSKALTZAINDIA

BILBO
2020

AURKIBIDEA

Aitzinsolasa. <i>Ana M. Toledo Lezeta</i>	1
Berrargitalpenaren edizio irizpideak. <i>Elixabete Perez Gaztelu, Ana M. Toledo Lezeta</i>	91
Joakin Berminghamen solasak	97
Herejiak euskaldunen artean	99
Patxikuren eta Mañubelen bigarren berriketa	109
Terexaren sukaldea	129
Bi ganbarak	151
Pello Mariren ganbara	163

Aitzinsolasa

Liburu honetara bildutako bost liburuxkek⁽¹⁾ ez daramate egilearen izenik. Hauek dira: *Herejiak euskaldunen artean. Mañubel eta Patxiku*; *Herejien eta beste gauza batzuben gañean Patxikuren eta Mañubelen bigarren berriketa*; *Terexaren sukaldea*; *Bi ganbarak* eta *Pello Mariren ganbara*.

XIX. mendearen azken herenaren hasieran kaleratu ziren idazkion berrargitalpenari oratzen zaio, ez lekukotasun filologiko baten lorratza jasotzeko, garai historiko jakin batena baino. 1868ko udazkenean Espainian jazo zen gobernu-aldaketa du jatorri lorratzak, hain justu, izkribuok Gipuzkoako euskaldunek agintari horiek indarrean jarritako legeekin bat egin ez zezaten osatu zirelako. Hala izanik, egileak erakarri nahi duen hartzailearen mintzaira-ulermenera hurbiltzeaz gainera, hauen ohiko erabilera ere aintzat hartu behar zuen. Konbentzitzea badu jomuga, sinesgarritasunari eustea nahitaezkoa du, nola esaten duenean, hala esateko moduan. Esandakoan, bolada horretako gertaerak hauta zitzakeen, ez ordea, asmatu. Esateko moduan, eguneroko hizkera eta, sexu edo maila desberdinetako mintzakideen artean baliatzen zuten tratamendua islatzea zuen aproposena. Bost liburuxkok moldatzeko auke-ratutako generoak, elkarrizketak, berbeta saio horien lekuko izan dena-ren moxorroa janzten lagatzen zion paratzaileari, hau da, idazkari-lane-tara mugatu idazlearen erantzukizuna: solaskideen batzar agiriaren eskribaua izan, ez besterik. Hitzunek bat-batean hitz egiten dutenez,

⁽¹⁾ Horrela deitu dira aldizkako argitalpenen parte izan gabe, luzera txikikoak direlako. Hiru liburuxka hamasei orrialdekoak dira eta bi hogeita hamabikoak.

idazkariari dagokiona da entzun duena transkribatzea. Arrazoi horregatik, neurri batean behintzat, idatzi ziren aldiko donostiarren ahozko euskara herrikoiaren aztarna uzten dute berrargitaratzen direnak.

Autuen helburua ez da ondorengoei helaraztea, jendarteratzen diren egunetan gaitzesgarritzat jotzen denari jarkitzea baizik. Ideia batzuen aldeko propaganda zabaltzeko direnez, hartzailea irabaztea da eginkizun nagusia, ez, horratik, baldintzarik erosoenean, boterera iritsi berriei aurre egitera baitatoz, eta zuhurtasunak berak ezkutuan geratzea eska zezakeenez, ontzailearen izena ezabatzen da.

Elkarrizketen lehen berrargitalpen honetan, bibliografoen katalogoek jakinarazitakotik abiatuz, nori egotzi zaion egiletza aurkeztuko da, eta, zein sasoiri ihardesteko egikaritu ziren azaldu ostean, egikaritutakorenen nolakotasuna arakatuko da, sortzailearen auziari heldu ahal izateko. Balio filologiko edo literariorik gabekoak izanik, argia ikusi zutenetik oharkabean igaro dira, baina bestelako seinaleen jabe direlakoan, gordelekutik atera dira, bereziki, bi adierazle erakusteko: garaiko donostiarren ohiko ebakera eta gizonezkoen arteko hitanoaren tratamendua. Biak ere iraganaldiko testuetan ezohikoak izanik, bi urtean zehar banaka gizarteratu ziren autuak batu eta berriro argitaratzen dira seinale horiek agertzeko asmoarekin.

Liburuxkok plazaratu eta laster C. Echegarayk “Bibliografía Euskara. Ensayo de un catálogo de obras bascongadas”-i (1886) oratzen dio eta, izengabekoen artean kokatuz, sei izenburu biltzen ditu, argitalpenurte zehatza bakar bati erantsiz (*Euskal-Erria*, XIV, 529; XV, 19, 20, 53). Hurrenkera alfabetikoa antolaketa-irizpide, bigarrenari, besteak beste, genero desberdinekoa izateagatik, hona ekarri ez den *Erligio eguiazcoaren sinaleaci* (1869) urtea jarri zion eta, hirugarrenari, *Josche Miguelen gambarari* “Forma parte de una colección de folletitos de lectura popular, impresos en Bayona de 1868 a 1870” (*Euskal-Erria*, XV, 19) emendatu ondoren, osterantzekoetan, aipamen horretara igortzen du.

Echegarayk bezala, J. Vinsonek ere izengabekoen artean tokitzen baditu ere, xehetasun gehiago ematen ditu: sei izenburutik zazpira iga-

rotzeaz bestalde, Joakin Bermingham-ekin duten harremana ezartzen du. Erregistro bibliografikoa gisa honetan mamitzen du: *Pachicu eta Mañubel* (Bayonne: Vve. Lamaignère, 1868), *Herejien eta beste gauza batzuben gañean Pachicuren eta Mañubelen bigarren berriqueta* (Bayonne: Vve. Lamaignère, 1869), *Terescharen zualdea* (Bayonne: Vve. Lamaignère, 1869), *Bi ganbarac* (Bayonne: E. Lasserre, 1869), *Josché Miguelen ganbara* (Bayonne: E. Lasserre, 1869), *Pello Mariren ganbara* (Bayonne: E. Lasserre, 1870) eta *Erligio eguiazcoaren siñaleac* (Bayonne: E. Lasserre, 1870). Lantegi hau bukatzean, “Ces sept brochures ont été publiées aux frais et par les soins de M. Bermingham, de S. Sébastien” (1891, 344) ezagutarazten du.

Anonimatuari eutsiz, G. Sorarrainen katalogoa (1891) Vinsonen zazprietatik zortzira doa eta argitalpen-urtearentzat galde-ikurrak baliatzeraz, nahiz eta haren bibliografia eskuan izan duen, “Según M. Vinson, estos escritos anónimos, (...) fueron publicados á expensas y bajo la dirección del señor de Bermingham” (1984, 343), zalantzarik gabe, beste iturriren batetik iritsi zaio itsasten duen erregistro berria: *Herejiac euskaldunen artean* (Lamaignère, 1869?, 16 orrialde).

J. Bilbaoren bibliografia (I, 1970, 566) da anonimatuaria Joakin Berminghamen-engatik (Donostia, 1815-1875) ordezkatzeko duena. Egi-letzapean aurkezteaz gainera, ordu arte ezezaguna zen *Herejiac euskaldunen artean* (Lamaignère, 1868, 14 orrialde) sartzen du eta *Erligio eguiazcoaren siñaleac* liburuxkak izandako bi argitalpenak elkartzen, Donostiakoa (1869) eta Baionakoa (1870)⁽²⁾.

Osoena den Bilbaoren bibliografiak batutako zerrendatik hauek dira gaur eskura daitezkeenak: *Herejiac euskaldunen artean*, *Herejiac euskaldunen artean*, *Herejien eta beste gauza batzuben gañean Pachicuren eta Mañubelen bigarren berriqueta*⁽³⁾, *Terescharen zualdea*, *Bi ganbarac*, *Pello Mariren ganbara* eta *Erligio eguiazcoaren siñaleac*en lehen edizioa, 1869an Donostian egindakoa.

⁽²⁾ Echeagarayk Donostiakoa baino ez zuen aipatu, Sorarrainek eta Vinsonek, berriz, Baionakoa bakarrik.

⁽³⁾ Aurrerantzean, izenburu laburragoarekin izendatuko da: *Patxikuren eta Mañubelen bigarren berriqueta*.

Herejiac eskaldunen artean (1868), *Herejiac escaldunen arteanen* (1868) birmoldaketa da, batetik besterako aldeak zuzenketez haratago doazelako, txertatutako berbaldi-atal bat ere badu eta. Hitz eta zeinu ortografikoen aldaketak bakarrik laburrenaren 13. eta luzeenaren 11. orrialderaino egiten ditu, baina, hor, une batean, motzenarekin eteten du, hizketakideen parte-hartze berriak atxikiz, eta, 14. orrialdean berrartzen duenean, berreginaz jarraitzen du. Biek Mañubel eta Patxikuren arteko elkarrizketa jasotzen dute eta hauek mintzatzen hasi aitzin, letra larriz iragartzen dira hiztunak: “Mañubel eta Pachicu”.

Beraz, Mañubelen eta Patxikuren arteko lehen jardunak gutxienez bi edizio izan zituen eta, ziur aski, baita hirugarren bat ere, bibliografo guztiek *Pachicu eta Mañubel* izenburuarekin erregistratu dutenarena. Echegarayren eta Vinsonen katalogoetan hori baino ez; Sorarrainenak, horri, *Herejiac eskaldunen artean* gehitzen dio, eta Bilbaorenak hirugarren bat, *Herejiac escaldunen artean*. Dena den, hirurak Mañubel eta Patxikuren arteko aurrengo hizketaldiarekin osatzen dira, hauen atzetik datorren *Pachicuren eta Mañubelen bigarren berriquetaren* izenburuak ezagutarazikoagatik⁽⁴⁾. Bigarren berriketa bada, lehenago bat besterik ez dute izan. Horrenbestez, jakin badakigu 1868an *Herejiac escaldunen artean* (eta *Herejiac eskaldunen artean*) jendarteratu zituela, eta, *Pachicu eta Mañubel* izenpean beste bat kaleratu bazuen, solaskide beren arteko berbeta da. Bi hizketakideak izendatzeko ordenak ez du eraginik; izan ere, bigarren berriketaren izenburuko “Pachicuren eta Mañubelen” hurrenkera, testuari ora-

⁽⁴⁾ Bigarren liburuxkan garbi geratzen da Patxiku eta Mañubel bigarrenez ari direla berriketan; izan ere, Patxikuk gogorarazten dio Mañubeli “oraiñ iru illabete uste uben *mormonak* zirala *amonak*” (113). Aurreko elkarrizketan, *Herejiac eskaldunen artean* izenburu zuenean, Mañubelek eskatutako “Nola deitzen dituk herejien larogei erreligiyo oyek?” (100) erantzuten diharduela, Patxikuk zerrenda bukatzen du “*Mormonak*” esanaz eta orduan Mañubelek dio, “Zer esan dek, Patxiku, *Amonak*?” (101). Gauzak horrela, Patxiku eta Mañubelen bigarren berriketa honen aurretik bat baino ez dago, nahiz eta hiru edizio izan zitzakeen. Arestian lehen berriketatik aipatutako hitzak *Herejiac escaldunen artean* zein *Herejiac eskaldunen artean*ek berdin-berdin jasotzen dituzte, eta, bibliografoek erantsitako *Pachicu eta Mañubel* izenburukorik argitaratu baldin bazen, nahitaez izan behar zuen edizio bat gehiago.

tzean, “Mañubelen eta Pachicuren bigarren berriqueta” gatik trukutzen da. Gauzak horrela, asko jota, edizio baten galera gertatu da.

Laburbilduz, Bilbaok katalogatu zuenetik bakar bat galdu da, *Josché Miguelen ganbara*, osterantzekoetan edizioen bat gorde baita, bi, Patxiku eta Mañubelen arteko lehen elkarrizketarenak eta *Erligio eguiazcoaren siñaleaten* lehenbizikoa.

Lau liburutegi dira gordailu nagusiak: Donostiako Udal Liburutegia eta Koldo Mitxelena, Bilboko Azkue Liburutegia eta, Euskal Herritik at, berriz, Pariseko Bibliothèque Nationale de France.

Ez dira iritsi esku beretik liburutegiotara. Frantziako Liburutegi Nazionaleko sei liburuxketako lauk “Collection Antoine d’Abbadie” zigilua daramate. Azkue Liburutegiko erregistro bibliografikoek, *Bi ganbaracena* izan ezik, sei horietako bosten jatorria jakinarazten dute, hiru Lacombe Bibliotekan kokatuz, bat Eusko Legebiltzarrean eta, bosgarrena, “fotokopiatua eta osatugabea” (*Patxikuren eta Mañubelen bigarren berriqueta*). Donostiakoetara beste iturri batetik ailegatu ziren: Tomas Bermingham-en bidez, egungo Koldo Mitxelenako funtsak hark bidalitakoarenak baino zabalagoak badira ere.

Joakin Berminghamek izan zituen bi semeetako batek, berminghamdarren artean azkena⁽⁵⁾ izan zen Tomas Berminghamek (Donostia, 1860-1923), 1901eko abenduko datarekin, orduan Donostiako Udal Liburutegiko zuzendari zen Antonio Arzaki (1855-1904) idatzitako eskutitzari ekiten dio, “Hace ya 32 años —esto ocurría en 1869— mi

⁽⁵⁾ “Murió Don Tomás Bermingham, desapareciendo con él este apellido después de años de permanencia en San Sebastián”. Múgica, S., 2001, “Galería de donostiarras ilustres”, *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, nº 35, 48. Artikulu honek J. I. Tellechea Idigorasek egindako sarrera darama eta bertan honakoa argitzen du: “un nieto de D. Serapio (...) tuvo la amabilidad de regalarme a mí un ejemplar guardado en familia de *Las calles de San Sebastián*, descosido y maltratado por el uso, pero con adiciones manuscritas y correcciones sobre sus páginas y sobre todo con pequeños cuadernillos en que añadía nuevas biografías. (...). Mientras llega la hora de llevar a buen puerto, me ha parecido oportuno transcribir y editar una serie de biografías que por mi cuenta he titulado “Galería de donostiarras ilustres”, 9.

difunto padre (...) escribió cinco folletos en vascuence” esanez, eta aurreraxeago, gutunaren zeregina adieraziz, “tengo el mayor gusto en regalarle un tomito que contiene dichos folletos”⁽⁶⁾. T. Berminghamek bost auturekin osatzean liburukia, bi liburuxka kanpoan uzten ari zen, bat, horien generokoa, *José Miguelen ganbara*, eta bestea, *Erligio eguiazcoaren sinñaleac*. Aitak bost liburuxka mamitu zituela dioenez, iragarritakoa betetzen dihardu, baina, berez, eskura zeuzkanekin moldatzen du liburukia. Batetik, denbora asko zen argia ikusi zutenetik; bestetik, hori geratu zenean bere adina zortzi-hamar urtekoa zen eta, aitzinago ere, ez zuen denbora handirik izan kontu horretaz jarduteko, handik bost urtera aita hil zitzaiolako. Gainera, Arzaki aitortu bezala, ezustean topatu ditu garbiketan zebilela:

Al cabo de tantos años juzgaba yo que sería empresa difícil, por no decir imposible, el hacer la colección de los mismos, pues creía que ya no existiría ninguno a consecuencia de haber salido hasta ahora fallidas cuantas pesquisas había efectuado en aquel sentido, cuando en estos últimos días registrando libros y papeles viejos tuve la suerte de dar con algunos ejemplares.

Horiek dira Donostiako Udal Liburutegiak katalogatuta dauzkanak, bosten argitalpen-urtea 1869an ipintzen du, eta nondik hartu duten zehazten: “Fecha tomada de una carta que acompaña al documento”, T. Berminghamek Arzaki igorritako eskutizetik, alegia. Dokumentu horretan oinarrizteak bi izenburutan nahasketaren bat eragiten du, *Herejiac escaldunen arteanen* eta *Pello Mariren ganbaran*, hain zuzen ere, hots, Vinsonen zein Bilbaoren erregistroen arabera, 1869an plazaratu ez zirenetan. Bilbaok *Herejiac escaldunen arteanen* argitalpen-urtea 1868an jartzen duenez eta bi bibliografia egileek *Pello Mariren ganbararena* 1870ean, solasok 1869an beste edizio bat izan zutela pentsatzeko bidea irekitzen du.

T. Berminghamek egindako beste garbiketa bat dute jatorri Julio Urkixori bidaltzen dizkionak, 1920ko azaroaren 28an datatutako gutunean agertzen duenez:

⁽⁶⁾ Donostiako Udal Liburutegiak gordeta daukan gutunetik egin da aipamena.

En el desván de mi antigua casa (...) encontré hace años una porción de folletos (...). Al hacer el traslado de la casa en el año 1908, traje conmigo todos los folletos⁽⁷⁾.

Hemeretzi urteko tartea duten bi eskutitzotan liburuxken argitalpen-urteari eusten dio, “entonces me permití enviar a usted varios ejemplares de lo que yo poseo en vascuence escrito por mi padre en el invierno de 1869, sentado a una mesa que conservo como un recuerdo”, ez horrela, zenbatekoari, Arzaki gaztigatutako “escribió cinco folletos” hartatik zehaztugabetasunera igarotzen baita. Halabeharrez, noski, harrezkero besterik ere aurkitu baitu:

Eso es todo lo que yo poseo y del folleto titulado *Erligio eguiazcoaren siñaleac* no le envío mas que un ejemplar, porque únicamente me queda otro, como recuerdo de mi padre, el cual no sé si escribió algo más en nuestra euskara lengua, pero el caso es que yo no lo poseo.

Itxura denez, gutxi gorabeherako albisteak baino ez zituen T. Berminghamek. Jakin bazekien hainbat liburuxkaz arduratu zela bere aita, bilatzen saiatu zen, birritan erdietsi arte. Lehenbizikoan, Arzaki oparitutakoak, eta, aurrerago etxez aldatzen denean, beste zenbait ale edireten ditu eta horien artean genero desberdineko bi berri: *Erligio eguiazcoaren siñaleac* eta *Herejiac euskaldunen artean*. Autuari dagokionez, Donostiako Udal Liburutegiko zuzendariari helarazi zion liburukiak jasotzen zuen *Herejiac euskaldunen artean* birmoldaketa da. Aitzinago beretzen dituen bi liburuxka horiek dira gaurko egunera ale ugarienekin eta gutxienekin heldu direnak. T. Berminghamek *Erligio eguiazcoaren siñaleac*en bi ale baizik ez izanagatik, aski da liburutegietako katalogoak begiratzea baiesteko gordetzaille gehien izan dituen dela, eta *Herejiac euskaldunen artean*, aldiz, gutxien, haren (semearen) eta geroago A. Zavalaren bitartez ailegatu bai-

⁽⁷⁾ [Carta] 1920 Noviembre 28, San Sebastián [a] Julio de Urquijo [Manuscrito]. Koldo Mitxelena Liburutegia.

tira egungo Koldo Mitxelenaren funtsera, (osterantzeko liburutegietan lehen edizioa: *Herejiac escaldunen artean*). Aitak eraendu zituen zazpi liburuxka topatzen ditu semeak eta kopuru osoaren zenbatekoa finkatzeko unean atzera egiten du.

Liburu honetara bildutako elkarrizketak dauzkaten lau liburutegiek emaile desberdinak izan arren, —batez ere, Tomas Bermingham, Georges Lacombe (1879-1947), Antoine d’Abbadie (1810-1897)— elkarren osagarri izateko zoria ez dute izan. Ezta beste liburutegi batzuk eskuratu dituztenak ere. Bi generotako liburuxkok, lau liburutegi horietan ez ezik, beste batzuetan ere aurki daitezke, bereziki, *Erligio eguiazoaren siñaleacen*⁽⁸⁾ aleak eta solas bakan batenak⁽⁹⁾. Denek zabalkunde-modu berdina izan zutenez, ondorioztatu behar, zioen bat tarteko, gordetzailen artean *Erligio eguiazoaren siñaleacek* berriketak nabarmen garaitu zituela.

T. Berminghamek Arzaki igorritako eskutitzean “fueron repartidos gratis, por toda la provincia de Guipúzcoa” dio, nahiz eta ez dirudien zehatz-mehatz hala izan zenik, liburuxkon zenbait jabeak eskuz idatzitako oharrei jaramon egiten bazaie behintzat, salmenta-guneak eta inprimatze-kostuak kitatzeko aleak duen salneurria xehatzen dutelako⁽¹⁰⁾.

⁽⁸⁾ *Erligio eguiazoaren siñaleacen* zenbait ale aurki daitezke Loiolako Santutegian, Eusko Legebiltzarrean, Labayru Fundazioan edo Sancho el Sabio Fundazioan.

⁽⁹⁾ Lazkaoko Monasterioan, Oiartzungo Manuel Lekuonan edo Sancho el Sabio Fundazioan, *Pello Mariaren ganbara*; Baionako Bibliothèque-Centre de Documentation du Musée Basquen, *Terescharen zualdea*.

⁽¹⁰⁾ Hona A. Zavalak bildu zituen autuetako baten jabeak, *Herejiac euskaldunen arteanen* atzeko azalaren barne aldean, eskuz idatzi zuena: “Los Sres. Eclesiasticos y demás Catolicos que gusten asociarse á la propaganda gratuita de este cuadernito en sus pueblos, encontraran ejemplares en casa de Dn. Francisco Iturria, en San Sebastian, plaza nueva piso bajo ó entresuelo n° 6.

Se expenden por los gastos de su impresión:

Cada 100 ejemplares por 20 reales

Id. 50 id. por 10 d.

Id. 25 id. por 5 id.”. Zavala, A. (biltzailea), *Zenbait egileen idatzien bilduma. Eskuizkribua*. Koldo Mitxelena Kulturunea. Halaber, Kulturune horrek Julio Urkixo fondoan kokatutako *Erligio eguiazoaren siñaleacen* ale batek ere leku berean jasotzen du jabeak idatzitakoa: “Liburucho au saltzen da bacoitza erreal batean, eta docenaca, 10 errealean: *Donostian*, D. FRANCISCO ITURRIAREN echean, Plaza berrian 6 garren lumeroan; *Tolosan*, D. MIGUEL GURRUCHAGARENEAN, Correo Carrican 24 garren lumeroan; *Villa-realen* D. JOSE LORENZO ANTIA, Vicario jaunarenean”.

Gipuzkoaren mugak ere gainditu zituzten, Lacombe eta d'Abbadieren liburutegietara iritsi izanak agerian uzten duenez.

J. Berminghamek bultzatu zuen lantegiaren aurkezpena amaitzeko, galdu den *Josché Miguelen ganbarak* eragiten duen galdera bat erantsiko da.

1869an argitaratutako lau elkarrizketetako bi, *Bi ganbarac* eta *Josché Miguelen ganbara* dira, urte horretako azkenak izan zirenak. *Bi ganbaracen*, bekoz beko jarritako bi ganbara erakusten ditu, ereduzkoa den “Joxe Iñaxioren ganbara” eta bestelakoa den “Joxe Migelen ganbara”. Bi hizketakideen burubideak ez datoz bat dauden sagardotegian, eta, bakoitzak bereari eutsiz, Joxe Iñaxio etxeratzen da eta letra larriz adierazitako “Joxe Iñaxioren ganbara”-n tokitzen da solasa solaskide berriekin: familiako kideekin. Joxe Migel etxeratzean bide berari oratzen zaio eta, gisa horretan, aurkaratzen dira bi ganbaretako giroak. Hona atentzioa ematen duen puntua. Berbeta honetan izan ezik, gainerakoetan izenburuan edo jardunari ekin baino lehen mintzakideak aipatzen dira (Patxiku, Mañubel, Terexa, Don Pablo, Joxe Domingo, Pello Mari) eta guztiek paratzailearen ikuspuntua babestea dute eginbide. Ikuspuntu honek eta “besteek” ereiten dutena bistaratzea jomuga duen *Bi ganbarac* hainbat nolakotasunek bereizten dute osterantzekoetatik. Horietako bi dira atalakatuta egotea eta berbadunen izenak ez aitzinatzea. Honen aurreko edo ondoko argitalpenaren izenburua *Josché Miguelen ganbara* bada, uste izatekoa da, besteetan erabilitako irizpideari jarraituz, Joxe Migel hori ontzailearen ikuskera baieztatzera datorrela⁽¹¹⁾. Elkarren segidan jendarteratutakoak izanik, zer dela eta aurkako usteak irudikatzen zituzten bi

⁽¹¹⁾ Hala da. Erregistro zehatzik egin gabe, aipatu bibliografoen katalogoak baino lehen Soralucek berri eman zuen eta, esaten duenaren arabera, *Josché Miguelen ganbara* eskuan izan du: “pone en relieve la insigne torpeza y arbitrariedad con que fueron disueltas entonces en España las benéficas conferencias de San Vicente de Paul”. Soraluze y Zubizarreta, 1871, 19. Nabarmentzen duen gaia hori baldin bada, izenburuak ezagutarazten duen izenduna egilearen ikuspuntua babestera dator.

hiztunak berdin izendatu? Zergatik ez aldatu izena⁽¹²⁾, bost autuetan “besteek” irabazi duten bakarrari ematen zaionean hitza, preseski, Joxe Migel izenekoari?

T. Berminghamek Arzaki bidali zion liburukia da hona ekarritakoa, hartako *Herejiac escaldunen artean, Herejiac euskaldunen artean*egatik ordeztuz, aurreko edizioa orrazten eta luzatzen zuelako. Helburua J. Berminghamek gobernatu zituen liburuxkak batzea ez bada ere, aitzinsolas honek ez du alboratuko *Erligio eguiazcoaren siñaleac eta protestanteen liburuac iracortzeco eleizaren debekua, tartean ejemplo batzuequin*. Baditu loturak berriketekin, dela anonimata, dela argitaratzailea, dela testuinguru historiko berari erantzutea edo egiazko erlijio soilik bat dela azaltzea, baina taxuketaz harat doa elkarrizketetatik banantzen duena. Xedeak uztartuagatik, eginkizuna betetzeko erak urruntzen ditu: generoak ez ezik, hizkera-erregistroak, tonuak... eta alde hauek izan zezaketen zerikusirik argitalpen-lekua-ekin: solasak ez bezala, Donostian inprimatu zen.

Hasierara itzuliz, berrargitalpenaren eragilea ez da izan ez balio filologikoa, ez literarioa, iragarri diren seinaleak erakustea baizik. Nahiz eta filologiaren ikuspuntutik *Erligio eguiazcoaren siñaleac* argi eta garbi hemen jasotakoak baino erakargarriagoa izan, justu horregatik, ez da ezaugarri horien jabe, besteak beste, idazkeraren eta ahoskeraren artean zabaltzen duen tartearengatik. Homogeneotasunaren eskakizunak liburutik kanpo utzi badu ere, ez hala hitzaurretik, egiletzaren auzia argitzeko toki egingo zaiolako.

⁽¹²⁾ Egia da solas desberdinetan solaskideen izenak errepikatzen direla. Esaterako, *Terescharen zukaldeko* Terexaren izen bera darama *Bi ganbaraceko* Joxe Iñaxioren alabak, edo Terexaren auzo lagun Joxe Domingo bezala deitzen da *Pello Mariren ganbarako* Pello Mariren semea. Halaber, *Bi ganbaraceko* Joxe Migelen seme Paskualen izen berbera darama Pello Mariren auzo lagun batek eta, bata eta bestea, ikuskerak bereizten ditu.

1. Egilea: lehen hurbilketa

Argitaratzailea nor izan zitekeenaz bestalde, zeukaten jomuga ere agertzen du Vinsonek: “Elles avaient pour but de faire une propagande active contre les principes libéraux et contre la liberté des cultes accordée à la suite de la Révolution du 29 septembre 1868” (344). Boterea dutenen aurka ari dira. Egun haietan makina bat liburuxka gizarteratu ziren anonimatuan: oso ohikoa zen alor polemiko-apologetikora jotzen zutenen artean. Erregimen berriari jarkitzeko mamitutakoak izanik, zuhurtziak berak ere galdatzen zuen norberaren burua ezkutatzea, eta, ez izenik, ezta horien agindupean dagoen lurraldean inprimatzea ere. Dirudienez, beldur gutxiago izan zuen *Erligio eguiatzcoaren sinñaleacekin*, horiek eraentzen zuten lekuan geratu baitzen. Guztiak mezu berbera helarazteko asmoarekin moldatuak izanagatik ere —fede katoliko, apostoliko, erromatarra da egiazko fede bakarra—, idazketaren sasoiko gorabeherak gunek dutenekin Baionara bideratzen da eta doktrinara zedarritzen denarekin ez da etxetik ateratzen.

Aipatu diren T. Berminghamen bi eskutitzek aita izendatzen dute egile, “escribir” hitza bietan erabiliz, argitalpen-urtea bete-betea asmatu ez arren. Edonola ere, T. Berminghamek 1869aren aurretik ikusi behar zuen aita idazten, Bilbaoren katalogoaren arabera, 1868an hiru solas kaleratu zituelako, hirurak Patxiku eta Mañubelen artekoak, eta hurrengoan, 1869an, bost, horietako lau, genero berekoak. Argitalpen-urtearekin egindako oker txikia zuritzea ez da zaila: gertaeren eta hauen datazaren arteko tartea oso luzea da. Horrenbesteko zehaztasuna eskatzen ez zion beste oroitzapena, aita mahai batean eserita idazten, hala izango zen; liburuxka hauetaz arduratu aitzin, adiskide zuen J. B. Dasconaguerrek ondutako *Les échos du Pas de Roland* (1867) gaztelaniaz jarri baitzuen (Vinson, 337), argitalpenari itzultzailearen izenik ipini barik. Frantseseko eta Berminghamen itzulpena urte berean jendarteratu ziren⁽¹³⁾.

⁽¹³⁾ *Ecos del paso de Roldán*. Bayona: Lamoignon, 1867.

Dasconaguerrek *Les échos du Pas de Rolandi* erantsitako hitzaurrean euskaraz sortutako eleberri baten frantsesezko itzulpena zela bazioen ere⁽¹⁴⁾, ustezko jatorrizkoa aurkitu ez zenez, *Atheka-gaitzeko oihartzunak* (1870), saio bat baino gehiagoren ondotik, frantsesetik euskaratutakoa da. Mugaren zirrikitu oro menderatzen zuen Ganix kontrabandista ospetsua du pertsonaia nagusi eta honek burututako zeregin bat du muin kontakizunak: Beirako printzesa mugaz bestaldera pasatzea senarrarekin, karlistek errege gura zuten Don Carlosekin elkar zedin.

Mugaz bestaldeko karlistek txalotu zuten idazlana da. Berminghamen gaztelaniazko itzulpenaz gainera, besterik ere izan zuen, entzute-tsua Vicente Manterolak arteztu zuena. Manterolak (1872) sarrera eta gehigarria baliatu zituen goraiatzeko eta izan zuen arrakasta jakinarazteko⁽¹⁵⁾.

Ondorioz, argi dago garai horretako zein alderdi zuen gogokoen Joakin Berminghamek, baita letren barrutia ez zuela arrotz ere.

Alabaina, liburuxken egilea T. Berminghamek eta Bilbaok izendatu eta geroago, bada besteri esleitu dionik. Lehenik, L. Akesolok:

citaremos una serie de folletos de fondo polémico-apologético: *Pachicu eta Mañubel*, *Pachicu eta Mañubelen bigarren berriquet*a, *Terescharen zualdea*, *Bi ganbarac*, *Joshe Miguelen ganbara*, *Pello Mariren ganbara*, *Erljio egiazcoaren siñaleac* que, aunque impresas en Bayona, son obra de algún guipuzcoano, y por el estilo podrían ser del presbítero Agustín de Jáuregui, autor más tarde de *Albiste on bat urtero berritzen dana* (Akesolo, 1964, 369).

Izengabeko idazkiez ziharduenez, norbaiti egozteko aukera zuen eta estiloaren ikuspuntutik Agustín Jauregiren (Donostia, 1838 – Azpeitia, 1905) autuaren antza atzematen dio. Estiloa eraketaren parekoa baldin bada, bat izan ezik, *Erljio egiazcoaren siñaleac*, denak molde berekoak dira, Jauregirenaren izenburuak berak iragarri bezala: *Albiste on bat urteoro berri-*

⁽¹⁴⁾ Berez, Parisen egin zen lehen argitalpenak “Traduit du basque” eransten zuen.

⁽¹⁵⁾ “Propuso hacer una buena obra, y salió de su pluma un libro admirable. Intentó narrar un episodio histórico, y resultó un envidiable poema” (Manterola, 1872, VI).

tzen dana, edadean eta doctriñan lenagoco demboretaco guizon zar Fernando eta onen antzecoen eta oraingo demboretaco Ernesto eta bere guisacoen arteko Jolas-aldia. Barau Vigilia eta bulda santuaren gañean (1878). Tamainari dagokionez, 31 orrialdekoa, liburu honetara ekarritako bostetako biren neurrikoa da, beste hiruren luzera haienen erdian geratzen baita. Testuinguru desberdinean gauzatu eta plazaratutakoak dira; hemen berrargitaratzen direnak Seiurteko liberala hasi eta hurrengo bi urteetan eginak dira, Jauregirena, berriz, Seiurteko horren ondoren etorritako gerra amaitu eta bi urtera.

Agustin Jauregi Berrezuetaren solasa *Euskal-Erria* aldizkarian (1885) agertu zen bigarrenez, oraingoan izena zuela. Vinsonen katalogoak, zuzen jokatzuz, anonimoen artean kokatzen du, paratzailea ez baitzen ezagutzera eman bigarren ediziora arte, liburuxkatik aldizkako argitalpenera igaro arte. Irizpide berari eusten dio Sorarrainek, ez horratik berri horrekin erregistroa osatu gabe, nahiz eta aldizkariaren izenarekin ez zuen asmatu⁽¹⁶⁾.

Akesoloren usteak izan du oihartzunik. Jose Artechek, kasu, bat egiten du:

No ha escapado a la sagacidad del P. Lino de Aquesolo que el autor de estos siete folletos, admirablemente escritos en castizo vasco, no es sino don Agustín de Jáuregui. El estilo es inequívocamente parecido al de *Albiste on bat*. La obsesión antiliberal del autor añade la certeza a la intuición de Aquesolo. Escasos escritores en euskera son actualmente capaces de un idioma tan vivo y genuinamente popular como el de Jáuregui (Arteche, 1971, 217).

S. Onaindia bestek esandakoa laburbiltzera mugatzen da:

Idazkeratik agiri danez gipuzkoar baterenak ote diran esan da; baita ba litekela Agustin Jauregi'k egiñak izatea ere. Bozas Urrutia'k, ordea, Birmingham jaunarenak dirala diosku, Vinson'ek dionez agertarazi ez-ezik, idatzi ere donostiar orrek egin zizkigula. Egia ote? (Onaindia, 1973, 310).

⁽¹⁶⁾ “Se ha publicado en la ‘Revista Euskara’ con el nombre de Agustín Jauregui, párroco de Azpeitia”, 393, dioenez, Nafarroako Euskal Elkargoaren ekimenez, 1878-1883 tartean argitaratu zen aldizkariaren izena ipintzen du.

Dena den, aurrerago ere, Akesoloren iritziak indarrean jarraitu du⁽¹⁷⁾ eta oraintsu Haranburu Altunak berretsi du:

Jáuregi es el autor de unos opúsculos en forma de diálogo que pretenden entretener y formar en las verdades católicas a sus paisanos. Son siete libros en total que aparecen sin su nombre —ya que había entrado en la clandestinidad— y están editados en Bayona; estos son sus títulos: *Pachicu eta Mañubel; Herejien eta beste gauza batzuben gañean Pachicuren eta Mañubelen bigarren berriqueta; Tere-sharen sucaldea; Joshe Miguelen ganbara; Pello Mariren ganbara y Erligio eguizcoaren seiñaleak* (Haranburu Altuna, 2016, 291).

Zazpi liburuxka egotzi ostean eta seiren izenburuak izendatu baino lehenago, (*Bi ganbarac* da aipatzen ez duena), izena ezkutatzearen zioa klandestinitatean sartuta egoteari atxikitzen dio, baina ez zen hala izan; hain zuzen, 1870eko abuztuaren 29an Jauregi Azpeitian zen, eta, egun horretako matxinadaren eragile nagusitzat jo izanagatik, Gerra-Kontseiluak lau urteko kartzela ezarri zion⁽¹⁸⁾, osorik bete ez bazuen ere: “Jáuregui y sus compañeros fueron indultados. Entre ellos, Jáuregui sobre todo, volvió inmediatamente a conspirar en favor de la causa carlista. El carlismo era para él la vida” (Arteche, 1971, 201).

Jauregi, “amigo íntimo y confidente del canónigo don Vicente Menterola, diputado en las Constituyentes” (Arteche, 1971, 167-168) gizon jantzia omen zen: “tenía entre los suyos prestigio intelectual. La Diputación carlista de la diputación de Guipúzcoa, el 14 de marzo de 1874 nombró una Junta provincial de Instrucción primaria. Jáuregui encabezaba la composición de esa Junta” (Arteche, 1971, 202). Gainera, *Albiste on baten* oinarrituz, euskara menderatzen zuela egiaztatzen du. Donostiar apaiz jantzi karlista profila zuena egokia zen liburuxkon eratzaille izateko.

Auzitan dagoena da ea J. Berminghamek berak egikaritu zituen ala norbaiti enkargatu zizkion. Nola egiletza aitortu ziotenak (semeak eta

⁽¹⁷⁾ “Propagandaren habian”, https://uztarria.eus/azpeitia/liburuak/09bLoiolarik_ez_balitz/14/index_html

⁽¹⁸⁾ Xehetasun gehiagotarako, ik. Rodríguez de Coro, F., 1980, 80-88.

Bilbaok), hala kendu diotenak (Akesolok, Haranburu Altunak) bat datoz bi generoetako liburuxkak idazle bakarrari esleitzean, nahiz eta ez dirudien horrela izan zenik; preseski, liburuxkon irakurketa arinenak erakusten duelako *Erligio eguiazcoaren siñaleac* eta solasen artean hizkuntza-ren erabileran alde nabarmenak daudela, eta desberdintasun oro taxuketak ezin zuri dezakeela. Gai honi heltzeko ezinbesteko denez hemen berrargitaratuak aztertzea, oraingo, idazte-lantegiaren arduradun bezala izendatu dituztenen aurkezpen biografiko sotila egingo da, horietako batek, Jauregik, sorrarazten duen zalantzaren bat edo beste emendatuz.

Elkarrizketak donostiar batek ondu zituela ukaezina da. Halaber, ezbairik gabe, idatziak izan ziren garaiko Donostiako gorabeheraz eguneratuta zegoen batek. Jauregi eta Bermingham donostiarrak dira. Jauregik Aieteko baserri bat du jaioleku; apaiztu eta Hernanin koadjutore izan ostean, 1867ko uztailaz gero, destino berria du: Azpeitiko parrokiako erretoretza. Handik urtebetera, 1868ko iraileko iraultzarekin Seiurteko liberala hastean, Berminghamek, liburuxkon bidez, egoera horri jarkitzea erabaki zuen. Azpeitian bizi zen apaiz bati eskatu ote zion zeregina? Mintzakide guztiak donostiarrak dira eta berbetaren eragile nagusia beren bizitokian ikusten dutena da, banatzen dizkieten liburuxkak, zein kazetariren batzuk zehazten ez den egunkarian agertutakoa, edo Ongintza publikoaren funtzionamendua eta, Azpeitiko bizilagunak hiriburuko kontuak hertsiki jarraitzeko ahalmena ote zuen? Bost autuetan parte hartzen duten hiztunen artean, hiruren ogibidea baino ez da jakinarazten, eta hirurak arrantzaleak dira, bostetan solaskideren batek heretikoek gehien zigortzen dituztenak nekazariak direla baiesten duenean. Nekazariak badira kaltetuenak, baserrian jaiotakoak hiru arrantzaleri eman hitza eta baserritar soil bati ere ez?

Jauregik zenbait urtez Azpeitia laga zuen:

Cercano el final de la guerra, en 1876, (...) Jáuregui desapareció del pueblo. De las notas (...) deduzco que ya venía faltando de la parroquia desde bastante atrás, acaso urgido por compromisos políticos (Arteche, 1971, 205).

Zortzi urtera, 1884an, ostera Azpeitiko parrokian da. Justu “desagerturik” dabilen tarte horretan plazaratzen du *Albiste on bat*, noiz eta, karlistek hurrengo gerra ere galdu dutenean; ordurako, konspiraziolanak ere alferrikakoak zirenean.

Joakin Benantzio Bermingham Etxagueren aurrekariak irlandarrak dira. Aitona, 16 urterekin Irlandatik Donostiara 1752an etorritakoa, Ricardo Bermingham Burke zuen, Attenrik-eko baroiaren anaia. Amona ere, jatorri berberekoa izan arren, jada Donostian 1743an jaiotakoa da: Margarita O’Meagher Egan. Hauen seme Jose Ricardoren seme da Joakin Benantzio Bermingham, eta odoleko zuen iloba Emilia Felicia Brunet Berminghamekin (Donostia, 1840-1904) ezkondu zen. Emakume oso jantzia, Paris eta Londreseko ikastetxeetan hezia, eta, euskalduna ez ezik, beste bost hizkuntza ere ezagutzen zituen (López Alén, 1904, 120-123). Izan zituzten bi semeetarikoa bat, Rafael, dirudienez, txikitan hil zen, eta bigarrena atzerago aipatu den Tomas da, Arzaki eta Urkixori aitaren argitalpenak igorri zizkiona, eta, nahiz eta liburuxka horiek adierazitako ideologikoa ez izan, errepublikanoa baitzen, ideia horien alde jardun zuen: Donostiako alkateordea izan zen (1887-1891; 1898-1899; 1906-1909) eta 1910ean, batu ziren errepublikano-sozialisten zerrendatik, Kortasetan diputatua izateko aukeratua. Baita *La Voz de Guipúzcoa* (1885-1923) egunkariaren sortzaileetarikoa bat ere.

S. Mugicaren esanetan Bermingham eta O’Meagher familiak,

Ambas familias descien den de aquellos fervientes católicos que abandonaron su patria a consecuencia de las persecuciones religiosas que desencadenaron en Irlanda, con motivo de la huída del último Estuardo, Jacobo II, a Paris (Mugica, 2001, 9).

Jada Donostian,

Especialmente los poseedores del apellido Bermingham, que ha sido los que más han arraigado en esta ciudad. Han emparentado durante su permanencia entre nosotros con las familias más encopetadas de San Sebastián, como se ve por los enlaces matrimoniales (Mugica, 2001, 46).

Antzera atzematen ditu C. Apariciok:

Los Bermingham-Mehager se introdujeron rápidamente en el círculo easonense. Los hijos del matrimonio afianzaron esta relación al establecer estrechos lazos de parentesco con algunas de las principales familias donostiarras, y al introducirse en la vida política de la ciudad (Aparicio, 1991, 198).

Joakin Berminghamen iloba eta emazte denaren aitzinekoak ere kanpotarrak ziren, amaren aldekoak Irlandan jaiotakoak, aitarenak, berriz, Katalunian. Apariciok dioenez, Brunet familia ere nabarmendu zen Donostian:

Sin duda, ésta fue una de las familias que más sobresalieron en el San Sebastián de la primera mitad del XIX, tanto por (...), como por el peso que adquirió dentro del mundo de los negocios y de las decisiones políticas donostiarras (Aparicio, 1991, 202).

Ez da bermingham eta brunetarren arteko ezkontza bakarra, Joakinen bi arreba, Manuela eta Maria, familia bereko bi anaiekin ezkondu baitziren, lehena Jose Manuel Brunetekin, bigarrena, Fernando Brunetekin (Mugica, 2001, 45).

Horiek horrela, negozioez arduratu zen Joakin Berminghamek ez zuen bitarteko-gabeziarik⁽¹⁹⁾ bere ideiak zabaltzeari eskaintzeko.

Bego honetan liburuxken ustezko egileen aurkezpena. Agertu legez, solasak aztertu ostean berrartuko da idazlearen gaia.

1. Autuen testuingurua

XX. mendea iritsiaz bat, W. Webster-ek “Qui dit basque, dit catholique” (1901, 26) ondutako esaerak izango zuen zerikusirik XIX. mendean euskalduna eta katolikoa hitz trukagarriak izatearekin (Rubio

⁽¹⁹⁾ “Los Bermingham (...) consiguieron erigirse en una de las familias más representativas de la burguesía mercantil donostiarra”. Garate Ojanguren, M., 1990, 113.

Pobes, 2003, 425-426). XIX. mendearen 60ko hamarraldian erlijioa protagonismoa irabaziz doa. Espainiako gobernuak 1865ean Italiako erresuma onartzea elizjende katolikoak ez zuen egokitzat jo (Garmendia, 1984, 25), aitasantutzari sorrarazten zizkion eragozpenengatik, eta fededun horien haserrea areagotuz joango da 1868an eratutako Espainiako gobernuak ezarritako neurriekin.

1866ko irailean, geroago Dasconaguerreren eleberriaren gaztelaniazko itzulpenetariko batek artezkari izango duen Vicente Manterola zuzendari duela, Gasteizen *Semanario Católico Vasco-Navarro* (1866-1873) kaleratzen da eta berehalako batean heltzen dio aita santua goresteari, laudatzeari, esanekotasun osoa agintzeari eta Italiaren batasun berria Vatikanorako mehatxu moduan azaltzeari. Ondoren, 1868ko irailean moldatutako erregimenak indarrean jarritako legeak gaitzetsiko ditu.

1868ko iraileko iraultzaren garaipenarekin, Donostian oporretan zegoen Isabel II.a Espainiako erreginak daukan destino bakarra erbestea da, eta Seiurteko Demokratikoa deitutako aldia hasten da (1868-1874). Iraultzaren lehen unean bertan Araba eta Bizkaiko diputazioak junta bihurtu arren, botereak aitzineko agintarien esku jarraitu zuen, ez horrela, Gipuzkoan. Hemen, agintari foralak alde batera utziz, liberalek osatutako Junta Iraultzailea taxutu zenez, bikoiztasun instituzionala gertatu zen. Beste bi lurraldeetan ez bezala, Gipuzkoan, Juntak burututako lana Espainiako beste edozein probintziakoren parekoa izan zen.

Irabazle berak Donostian ere. 1868ko irailaren 30ean bertan egin zen manifestaldian liberal oso ezagunak zeuden; horien artean, 1857az gero, Madrileko Kongresuan diputatua zen Fermin Lasala, eta Joakin Berminghamen emazte Emilia Bruneten osaba, Ramon Brunet. Udaletxera ailegatzean, bilduta zegoen udalbatzak aipatuak aukeratu zituen manifestatzaileen ordezkari, eta Udaleko agintariak laster batean dimittitu zuten (Artola, 2000, 307). Hauen eginkizunak betetzeko Junta iraultzaile bat izendatu zen, nahiz eta 1868ko urrian bertan indargabetu zen, udal gobernu berria era zedin. Hau ere, liberala, jakina. Hitz batean, Seiurteko Demokratikoan Araban eta Bizkaian baino gehiago txer-

tatu zen liberalismoa Gipuzkoan, eta testuinguru honetan liberal entzuetetsuak Baionatik Donostiara itzultzen ari ziren bitartean⁽²⁰⁾, Joaquín Berminghamek kontrako bidea egin zuen autuok argitaratzeko: Donostiatik Baionara.

Iraultzatik jaiotako gobernuak 1868ko urriaren 8an kargua hartu eta hurrengo bi hilabeteetan hamaika dekretu eman zituen. Hitzunen berbetaren eragileak honako hiru hauek dira, urriko “Supresión de las Conferencias de San Vicente de Paul” eta “Libertad de imprenta” eta, azaroko “Permisi3n de cultos no cat3licos” (Sanz de Diego, 1975, 203). “Conferencias de San Vicente de Paul”, “Creaci3n de las Asociaciones Civiles de Caridad que no deben depender de autoridad extranjera” elkarte laikoak ordezkatzeko du 1868ko azaroko dekretu baten bitartez. 1869ko ekainean baietsitako Konstituzioak kultu-askatasuna aldarrikatzen zuen eta Estatuaren konfesionaltasuna ezabatzen. Konstituzio horren 21. artikuluan oinarritzen dira helduko diren beste lege eta dekretu batzuk, horien artean “Proyecto de Ley de Matrimonio Civil” (Sanz de Diego, 1975, 206) eta urte horretan bertan jendarteratutako autuetako batean, *Terexaren sukaldean*, ezkontza zibilen gaiak mintzakideten arreta erakartzen du. Hizketakideek ez dihardute legez, haietatik jariatakoez baino eta, justu, neurriok ereiten dutena arbuizatzeko egikaritu ziren. Haatik, horietako batek, karitatea eraentzen zuenak, azken elkarrizketan onarpena lortzen du, laguntza horren beharra zutenek beraiek ontzat daukatelako Donostiako Ongintza publikoaren funtzionamendua. Xedea alboratzen duen salbuespen bakarra da.

Konstituzio berria izan bazen ere Elizaren eta Estatuaren artean tentsiorik bortitzena ekarri zuena, Elizaren babes-erreakzio handiena

⁽²⁰⁾ Ik. Rodríguez de Coro, F., 1985, 123. L. Castells-ek dio Donostiako burges moderatuek “Temían que exiliados políticos que habían acudido a San Sebastián después del triunfo de *La Gloriosa*, se hicieran con las riendas de la nueva situaci3n y, como primer paso, evitaron que la Junta Revolucionaria fuera elegida popularmente, logrando que fuera una comisi3n la encargada de su designaci3n”. Arto-la, M. (arg.), 2000, 307.

sortutakoa, erlijio katolikoa ofizialtzat zeukan Espainia konfesionalean, legeak zigortu arren⁽²¹⁾, 1868ko iraultzaren aurretik ere sartzen hasia zen propaganda protestantea. Hona J. B. Vilar-ek ohorezko lekuan kokatzen dituenak:

Entre estos propagandistas, figuran en un lugar de honor el bibliófilo de Madrid, Luis Usoz y Río, y sus colaboradores, el hispanista británico Benjamín B. Wiffen, el editor catalán Fernando de Brunet y el impresor vasco-navarro Ignacio R. Baroja (Vilar, 1996, 413-414).

Fernando Brunet Prat (Lekeitio 1808 - Donostia 1881) ez da katalana, euskalduna baizik, bere aitzindari zuzenak jada XVIII. mendearen erdi inguruan Kataluniatik Donostiara etorritakoak ziren eta. Lekeitio jaioleku izatea gorabehera historiko baten fruitua izan zen: Donostiaren okupazio frantsesa⁽²²⁾.

F. Bruneten lanbidea familiak Donostian zituen negozioez arduratzea izan zen, ez Usoz eta Wiffen “agente social” bezala jardutea. Kua-kero izateak batzen zituen eta luzaroan ibili ziren lankidetzan⁽²³⁾, Usoz 1865ean hil arte. Elkarlanari ekin ziotenean debekatuta zeuden liburuak argitaratzen ari ziren, 1847an datatzen baita Donostian argia ikusi zuen lehenbizikoa⁽²⁴⁾ eta bi hamarkada geroagokoa da, 1868ko urrikoa, kultu-askatasunaren dekretua.

⁽²¹⁾ “La ley castigaba con privación de derechos civiles, fuertes multas, destierro, exilio y hasta ocho años de presidio las actividades conceptuadas como de propaganda o proselitismo de confesiones que no fueran la del Estado. Incluida la edición y circulación de las Sagradas Escrituras (...) o de publicaciones de signo protestante”. Vilar, J. B., 1996, 413.

⁽²²⁾ F. Apalategik Agustin Brunetek kontatutakoa jasotzen du: “haber oído a sus abuelos que, durante la ocupación francesa, era San Sebastián ciudad muy afrancesada, y que, por no participar los Brunet de ese espíritu, se ausentaron de aquí y se establecieron transitoriamente en Lekeitio”. Zavala, A. (arg.) 2005, 376.

⁽²³⁾ “La asociación Usoz-Wiffen-Brunet, por espacio de un cuarto siglo, puede ser mencionada hoy como paradigma de colaboración intelectual sin posible parangón en la España de la época, que daría por resultado la esmerada edición crítica de dos decenas de volúmenes en Londres, Madrid y San Sebastián”. Vilar, J. B., 1994, 400.

⁽²⁴⁾ “La serie fue abierta con *Carrasón* (...) aparecido en San Sebastián en 1847 (...). Aunque sin pie de imprenta por razones de seguridad al tratarse de un libro prohibido, (...) sabemos que lo fue en la oficina de Ignacio R. Baroja”. Vilar, J. B., 1994, 401.

Donostiar bat eta Donostia “en el centro del tráfico clandestino de libros auspiciado por Usoz” (Vilar, 1994, 410) eta, nor izango donostiar hori eta, Joakin Berminghamen koinatua eta osaba, bi ezkontzen ondorioz. Koinatua, F. Brunet Maria Berminghamekin ezkonduz gero, eta, osaba, J. Bermingham Emilia Brunetekin ezkondu zenetik.

Dena dela, F. Brunetek ez zuen arazorik izan Maria Bermingham Etxaguerekin izandako bederlatzi seme-alabak “eliza katolikoan” bataiatzeko (Bengoetxea, 2008, 167), ezta beste brunetarren hautu erlijiosoak erroteko ere⁽²⁵⁾. Dirudienez, pertsona moldaeraza zen, ez baitzion galarazi berarekin bat ez zetozenekin batera lan egitea, bere senideekin, kasurako.

“Fernando Brunetek bere aurkari sutsuena etxean bertan zeukan” (Bengoetxea, 2008, 168). Era berean, noski, J. Berminghamek. Halere, aurkariok zerbait partekatu zuten: batak eta besteak erlijioarekin zerikusia zuten testuak euskaldunen esku jarri zituzten. Kanpotik Donostiara iritsitako aurrekariak zituzten bi donostiarrok —katolikoak irlandarrak eta kuakeroak katalanak— beren bizilekuko euskalkiaz baliatu ziren fede-bultzatzaile zituzten idazkiak gizarteratzeko; Brunetek itzultzaile-eginbideari oratuz, ebanjelio batzuk euskaratu zituen⁽²⁶⁾, Berminghamek, berriz, “egiazko erlijio bakarra katolikoa da” goiburu zuten liburuxka hauek gobernatu zituen.

XIX. mendean euskalduna eta katolikoa hitz trukagarriak zirela esanaz heldu bazaio ere testuinguruari, justu sasoi horretan, lehenagoko ahaleginean baino emaitza hobekak erdietsi zituen protestantismoak:

Protestantismoa sartzeko XVI. mendean egindako ahalegin haiek ez zuten fruiturik eman, baina XIX.ean berrito agertu ziren. (...) XIX. mendean bigarren erdian, protestanteen zentroak eraiki ziren Logroñon, Donostian, Bilbon eta beste toki batzutan (Urkiza, 1995, 1062).

⁽²⁵⁾ 639 harpidedun izatera iritsi zen *Semanario Católico Vasco-Navararren* harpidedunen artean Brunet bat azaltzen da: Josefa.

⁽²⁶⁾ J. Bilbaoren bibliografiaren arabera, *Jesu Cristoren Evanjelioa Juanen araura* eta *Jesu Cristoren Evanjelioa Lucasen araura*.

Bruneten “agente social” betebeharrak lagunduko zuen, baita Berminghamen egitasmoa sustatu ere.

Jada kontentagaitz zeuden katolikoak lehertu egin ziren Seiurteko Demokratikoari hasiera eman ziotenek hartutako neurriekin. Hala diote hamaika azterlarik; besteak beste, V. Garmendiak, “Se organizó una tremenda campaña contra la posibilidad de dicha libertad” (1975, 44), “Es impresionante también la cantidad de folletos hostiles a la libertad religiosa que se publica entonces” (46) gaineratuz, zein Rodriguez de Corok, “La campaña organizada contra la posibilidad de dicha libertad fue tremenda” (1977, 94) edo “La cantidad de folletos hostiles a la libertad religiosa fue sorprendente” (95) erantsiz eta Gasteizen argitaratutako bat nabarmenduz⁽²⁷⁾. Kultu-askatasunaren aurkako kanpaina horretan ez ziren soilik liburuxkak argitaratu, firma-bilketa ere antolatu zen, garai hartan 163.000 bizilagun inguru⁽²⁸⁾ zituen Gipuzkoan bertan 16.751 izenpetzaileraino ailegatuz (Artola, 2000, 310-311).

Euskarazko idazkietan, Francisco Apalategik jasotako batek erakusten duen bezala⁽²⁹⁾, bertso-paperera jotzen da propagandarako, nahiz eta ez izan berria eginkizun hori atxikitzea, ordurako nola alde batekoek, hala bestekoek, erabilia baitzuten: “Ori bera gertatu zan leenengo gerra-tearen denboran, eta orduan euskerazko bertso-paperak argitaratzeari eman zioten, liberalak asi eta karlistak segi, zein baño zein biak” (Zavala, 1997, 8). Gisa honetan aurkezten du 1868ko irailak ekarritakoa:

⁽²⁷⁾ *Consideraciones sobre la urgente necesidad de que se asocien, organicen y trabajen de consumo los verdaderos católicos, para impedir la propagación de la impiedad y de las heregías en esta nación eminente y exclusivamente católica.* Ez apaiz batek idatzia, familiako aita batek, baizik.

⁽²⁸⁾ 1860ko eroldaren arabera, 162.547.

⁽²⁹⁾ Hona A. Zavalak, 1868an, Isabel II.a erregina bota zutenean moldatutakotzat daukan bertsoa bi ahapaldi. Lehenak, “Irureun urte pasatu dira / (eskribiturik badakit) / gobierno au para zanean (sortu?) / protestanteen mendetik. / Orduan ere kosta zitzaigun / euskaldunai galanki / belar gaizto au ateratzea / Españaiko lurretik” dio eta, hirugarrenak, “Judu, ereje, protestantiak / beti dabilta artean, / Jesukristoren relijioa / supritu ezin pakean. / Gurutzeko bat eskribiturik / parako zaie atean, / a(g)interik gabe izan ditezen / katolikoekin oin pean”. Zavala, A. (arg.), 2005, 110-112.

Españaiko politika irakiten jarri zan (...). Alderdiak orduan asi ziran builla eta zalapartaka alkarren leian eta burrukan. (...).

Orretarako, nork bere propaganda egiteko alegia, egunkariak eta gaiñontzeko argitalpenak jo ta ke ekin zioten lanari. Baiña oiek etzuten Euskal Errirako balio, garai artan emengo jendeak erdera oso izkuntza arrotza eta ezezaguna baitzuen (Zavala, 1997, 8).

Gaztelania hizkuntza arrotza eta ezezaguna zutenen artean zeudenez alfabetatu gabeak, irakurtzeko gai ez zirentzako propaganda paratze-ko, papera euskarri izan arren, kanta bidez zabal zitekeen moldekoa zen aproposena. Horregatik, eta oso etxekoa izategatik, 1868-1872 tartean jarritako bertsoak “mordo aundia osatzen dute” (Zavala, 1997, 9). Pilo horretan, ahots bakarrekook ez ezik, berrargitaratuen erara taxutuak ere badaude, autu moduan egikarituak, alegia, “Bertso Berriyak Erljiyua, Errege eta Fuegoak Antontxok eta Perutxok alkarri kantatubak” (Zavala, 1997, 45-51), adibidez. Bertso paperaren izenburuak iragarri bezala, elkarri kantatuak dira, ez ordea eztabaidatzeko, batak azaldutakoa besteak berresteko baizik. Iritzi berberekoak izanik, mezua errepikatzen dute, bost elkarrizketetako lautan legez. Bestela esan, hizketakideak bai kantakideak ados daude, eta horrela azpimarratzen dute ikaskizuna. Hortaz, bitartekoak batzen ditu: adierazpen baten inguruan ahotsak metatzeak. Solas bat baino ez da urruntzen ahotsak pilatzetik, uste desberdinekoak aurrez aurre ipintzen dituen, ikuspegi tradizionala alde batera laga duena eta ez duena, eta, jakina, aldatu dena, mudantzak sorrarazi dizkion kalteengatik ederki damututa lehengora bihurtuko da. Bostak dikotomian oinarritzen dira, baina ez bide berdinari helduz, lautan indartu nahi den pentsamenduko hitzunik direlako beste alderdiko- enak adierazten dituztenak, eta bosgarren honetan nortzen delako arbuizatzen dena.

Hona ekarritakoak eta propagandarako gauzatutako bertso paperak egiletasuna ezkutatzeak ere lotzen ditu: “bertso-jartzailleen izenak oso gutxitan ezagutzen ditugu. Zergatik, ote? Bildurragatik ziur aski” (Zavala, 1997, 9). Ez bertso gilearen, ezta, sarritan, moldiztegiaren izenik ere.

Laburbilduz, egun haietan ideologia-borrokarako ohikoa zen balia-bidera jotzen dute elkarrizketek, eta, gerra horretan sartu direnek bezala, ahalik eta gehien gordetzen dute beren burua. Lehiari ekin diotenen lehiakidea garaitzea izanik jomuga, ezinbestez, eraginkortasunaren premia dute, eta, bi hizkuntza mintzatzen diren lekuetan, aukerakoenari oratzen diote. Horiek horrela, idazleak euskaraz burutu izanak aditzera ematen du irabazi gura dituenen hizkuntza dela⁽³⁰⁾. Aldi berean, hizkuntza honetan atzeman zezakeen hutsune bat ere bete zezakeen, bertsopaperaren osagarri izatea; izan ere, bertsoa prosarengatik trukatzean, harrera-modua ezartzen du: kantaren bidea baztertzen du.

Hartzaileari dagokionez, gaztelaniaz zekiten Penintsulako euskaldunek propaganda eta kontrapropaganda ugari eskura zezaketen; euskaraz, aldiz, bertsopaperez harat, ezer gutxi (edo ezertxo ere ez). Berriketen ontzailea bertsopaperaren herrikoitasunari itsasten zaio, baina beste itxura bateko idazkiak mamitzean, haiek ezagutzeko derrigorrezkoa ez zen gaitasun baten jabe izan behar zuen jasotzaileak, irakurmenaz, alegia; etsaiek barreiatutako izkribuei erantzutera datozenek autuak, irakurtzeko gauza direnen artean kokatzen dute tirabira, letren barrutian.

2. Autuen azterketa

Solaskideak donostiarrak dira eta bertako euskalkian hitz egiten dute. Liberalek agintzen duten hirian bizi dira, *Aurrera* (1868-1870) egunkari liberala argitaratzen den tokian, eta hau, lehentxeago, “centro editor y difusor clandestino de libros protestantes a mediados del siglo XIX” izandakoa da, eta, autuok jendarteratzean, kultu-askatasunaren legerari esker, klandestinitatea gaindituta dauka.

⁽³⁰⁾ Soralucek (1871, 19) liburuxkon aurkezpena amaitzen du, “Hubo además algunos opúsculos con igual fin, así como en Alava y en Vizcaya en español generalmente, también en defensa del catolicismo” erantsiz.

Xedeak ere uztartzen ditu berriketak: “besteek”, areiotzat dauzkatenek, banatzen dituzten liburuxkak edo kazetariren batzuk esandakoak kontraerasotzea. Saila hasten duen *Herejiak escaldunen artean* (1868), nahiz honen hurrengo edizioa, berrargitaratzen den *Herejiak euskaldunen artean* (1868) Mañubel eta Patxikuren berbeta abiatzen da luzatu dien “*Luteroren dizipuloak*” (99) idatzitako liburuxkarekin. Non emango liburuxka, eta “Donostiyako plaza berriyan”⁽³¹⁾ (99), arestian aipatutako protestanteen liburuak inprimatzen zituzten enparantzan, alegia.

Mintzakide horien arteko bigarren berriketaren hizpidea liburuxka edo egunkariaren bateko artikuluren batek sorrarazitakoa ez bada ere, ez dute saihesten kazetarien jarduna gaitzestea⁽³²⁾. *Terexaren sukaldean* (1869), “badakizute erri onetako bertako gazetero batek zer eskribitu zuen?” (141) behin eta berriz baliatzen da, beti era berean jokatu, kazetariak agertutakoa azalduz eta segidan ezeztatzen duten arrazoiak jakinaraziz. *Bi ganbarakeko* (1869) Joxe Migelek liburu eta kazetetan irakurritakoa sinetsi izanak ekarri dizkion kalteak pairatuko ditu: zorrak ez ezik, baita esanekoa ez den semea ere, eta honekin izandako borrokatik bi hilabetera, heriotzaren atarian dela, emazteari galdetzean, “Bota al dituzu gazeta eta liburu ayek surtara?” (161), hark “erre nituen guztiak eta gure etxean geyago sartuko ez dira” (161) ihardesten dio. Hortaz, ereduzkotasunetik atera duten eragileak errez eta aitzinekora bihurtuz amaitzen da istorioa. Azkenik, *Pello Mariren ganbaran* (1870) Pello Marik dio, “etzekiela, inpernueatikan ez bazan, nondik etortzen ziran gure artera izugarri gazeta eta inprentako paper, euskaldunen artean iñoiz ikusiak” (169-170). Horra bost autuen lokarria: arbuatzen diren mezuak salatu eta zuzentzea.

⁽³¹⁾ Donostiako egungo Konstituzio plazak izan duen izenatariko bat.

⁽³²⁾ “gure artean ezagutzen dizkiat makiña bat gizaseme apaizen gañean berriketa franko egiten dizkitenak, eta ala ere Gacetero ayeri lepoak al balitekek, eta arrazoyarekiñ, okertuko liotekenak” (110).

Bostak erantzun gisa aurkezten dira, egileak gogorarazten baitu ez dela gatazkaren abiarazlea, baizik eta “besteek” ernetakoa desagertzea duela helmuga. Hots, “besteek” ekin diote guduari, eta gudurako darabilten tresnarekin defendatzen ari da, haien propagandak jende gehiago irabaz ez dezan. Letra dute euskarri hedatzen dituzten liburuxkek eta kazetariak ezagutarazitakoek, eta letra bidez gezurtatzera dator. Ez da liskarra hasi duena, babesteko premia sumatzen duena baino, haien ikuskera gaiztoa delako.

Lanabes batek ere batzen ditu bostak: “gutarrak” eta “besteak” bekoz beko ipintzeak, ez horratik, alde bakoitzekoari aukera bera eskainiz, “besteek” bakar batean ematen zaielako berba, *Bi ganbarakeko* bi berbadunei, Joxe Migeli eta honen seme Paskuali, eta, osterantzeko lauretan “gutarrak” besterik ez direnez hiztun, hauek arduratzen dira arerioen esanak, ekintzak eta portaerak adierazteaz. Hala, lauretan jagon nahi den ikuskerakoak dira etsaiak ezaugarritzen dituztenak eta azken hitza dutenak. “Gutarrek” diotenez, “besteen” agindupean dauden lurraldeetan bizitzea arriskutsua da, betiere, fede katolikodunak estutzen dituzte eta; “besteek” barreiatzen dituzten usteak iturri okerretik hartutakoak dira; “besteak” beti norberaren erosotasunari begira bizi dira, “gutarrak”, aldiz, lagun hurkoa aintzat edukiz... Bostak dikotomian oinarritzen dira, osatzeko erak aldentzen baditu ere, *Bi ganbaraken* bi arrantzalaren bitartez irudikatzen da batbederaren ikuskerak sortzen duena, eta, gainerakoetan, soilik ereduazkoen jarraitzaileak daudenez, hauen azalpenetan kokatzen da talka, beren alderdikoek eta kontrakoek jarrerak erkatuz.

Dikotomia taxutzeko moduz bestalde, solaskideei egotzitako tasunak ere aurkako norabidekoak dira. Bostetako bat, *Bi ganbarak*, maila bereko eta iritzi desberdineko hizketakideekin mamitzen da, eta beste laurak, aldrebes, mailak banantzen baititu eta iritziak uztartzen. Lau hauetako mintzatzaileen arteko aldea gizarte-geruzak ezartzen du, ondare eta ikasketen sailak, eta generoan ohikoa zen maisu-ikasle harremana dute eustazpi.

Bata bestearen segida bezala planteatzen diren lehen hiruretan⁽³³⁾ maisu-eginkizuna Don Pablok betetzen du, aurreneko bietan bozera-maile batez baliatuz: Patxiku ikasleaz. Mañubelekin dituen bi berriketetan, hark oratzen dio irakaslearen lantegiari, oraindik agertokira irten ez den jakintsuaren bidez ikusitakoak eta ikasitakoak jakinaraziz. Azken elkarrizketan, Don Pabloren lekukoa Don Martiñek bereganatzen du. Bi hiztun horiei atxikitzen zaie maisu-lana eta hauen hizketa-lagunek eskertzen dituzte jaso dituzten ikaskizunak.

Jakite-mailak ez ezik, bizi-mailak ere urruntzen ditu: ezjakinak behartsuak dira, eta maisuak, haien ongileak. Elkarren arteko ezaupideak ongintza du jatorri, ez ikasbidea. Ongileok gogoan dituzte txiroak, eta hauen etxeetara igotzen dira bizilagunen osasunaz arduratzera, nahiz janariz edo diruz hornitzera, eta bisitaren abagunean heltzen diote bigarren zereginari: maisutzari. Ongileak eta landerrak mundu-ikuskeraren berekoak izan arren, ongileak jakintsuak ere izateagatik adierazteko gaitasunaren jabe dira, baina ez horrela ezjakinak diren txiroak. Bi premia horietaz axolatzen dira “don” bereizgoaren jabe direnak.

Bostetatik lautako mintzatzaileak, irakasle zein ikasle, dirudun zein behartsu, “gutarrak” dira eta denek salatzen dituzte “besteen” jokabideak. Soilik batek, bekoz beko edo hegaletik jardunaz maisuren bat gidari ez duen *Bi ganbarakek*, trukutzen du bitartekoa. Maila berekoen solaskideekin egikaritutako elkarrizketan, beste era batean helarazten da ikasgaia: bi ganbaretake giroa aurka jarriz, eta “besteek” erakartzea lortu dutena, oker zebilela aitortuz eta lehengora itzularaziz. Aldi berean, beste eginkizun bat ere buru zezakeen: idazlearen egitasmoa zuritu, Joxe

⁽³³⁾ Aurreko biekin, Patxiku eta Mañubelen bi berriketekin, hariak lotzen jarraitzen du egileak, hirugarren honetan. Goizean Mañubelen emazte Terexa arrandegian zela “agertu zan Dⁿ Pablo, gizaseme katoliko zurekin [Patxikurekin] Ingelatierrara juantzan ura, eta nola ezagutu ninduen, oraiñ amabost egun, zure etxean sartu nintzanean” (130). Hark oparitutako bisigua daukate afaltzeko Mañubelek, Terexak eta hauen gonbidatu Patxikuk *Terexaren sukaldean*.

Migelen aldaketaren eragilea arerioek hedatzen duten propaganda izan baita. Horrenbestez, ez da borroka abiarazi duena, eta haiek barreiatzen dituzten idazkiek xedea jadesten ari direnez, euskarri berarekin erantzuten die, galerak areago joan ez daitezen.

Bi ganbaraken aitzinetik ere bazen euskarazko solasik maisu-ikasle harremana erabili ez zuenik. XIX. mendearen hasieran idatzitako J. A. Mogelen *Peru Abarkako* [1802] bi hizketakide nagusiak eskola-motak aldentzen zituen eta nor baino nor bestea konbentzitu nahian dabilta, egilearen pentsamenduaren bitartekariak erdietsi arte. *Bi ganbaraken* ez dago eztabaidarik, bi arrantzale ezjakinak bakoitzaren ustetik dariona egitera mugatzen baitira. Eztabaida tarteko ala ez, bi autuetan garaile bat dago eta garbi lagatzen da noren aldekoa izatea den onena.

Lehenbizi argitaratu ziren Patxiku eta Mañubelen arteko bi berriketak bi hiztun soilekin eta elkarrizketa hutsarekin paratuta daude. Balia-bide gutxienekin mamitutako hauen artean gobernagaitzagoa zen bigarrena, hain justu, aurrenekoaren luzera bikoizten zuelako, nahiz eta monotonia ekiditen duen Patxikuk egindako bidaia hizpide bihurtuz. Patxikuk ikusitakoak eta ikasitakoak dira solasgai, eta, joan-etorriak geltoki desberdinak izan dituenek, gertalekuz mudatuz doa, baita ikusmiratu dutenean aldaerak itsatsiz ere.

Gainontzeko hirurek elkarrizketari akotazioak txertatzen dizkiotenez, eranskin honekin gutxieneko kontakizun-markoa eraikitzen dute. XIX. mendean euskaraz gauzatu zirenetan, bi moldetakoak daude: J. Duvoisinin *Laborantzako liburuan* (1858) bai A. Iturriagaren *Diálogos basco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipuzcoan* (1842) elkarrizketa baizik ez, Mogelen *Peru Abarkan* (1881) ez bezala. Istorio bat kontatze-ko gutxieneko oinarriaren jabe diren hiruretan akotazioen egitekoa da jardunaren garapen-zirkunstantzien aldaketak iragartzea: leku edo denbora mailakoak, zein solaskideren baten gehikuntza ala desagertpena... Autuotarako taxututako kontakizun-markoan iraunkorra den koordinatu bakarra ekintza da, preseski, ekintza mintzatzea izateagatik, osterantzeko koordinatuak, berriz, aldakorak dira, pertsonaiak, hau da, berba-

dunak, ugalduz edo urrituz doazen neurrian, tokiz trukatur edo beren berriketaldia denbora batez bertan behera utziz.

Hiztunen sartu-irtenak ezagutaraztera zedarrizten dira *Terexaren sukaldeako* akotazioak; *Pello Mariren ganbarak* batzen dizkio leku-mudantzak eta bi hauen tartean plazaratutako *Bi ganbarak* da kontakizun-marko osatuenarekin ondutakoa. Batetik, ekintza berba egiteaz harat eramaten delako aita-semeak borrokan dihardutenean; bestetik, hizketakideak ordeztuz, lau solastokira zabaltzeaz bestalde, bi hilabeteko etenaz gero berrartzen delako, isildu den denboran erne den egoeran kokatuz. Elkarriketa zeharo gailentzen bada ere, istorio bat kontatzera bideratzen da: Joxe Migelen istorioa, liburuxka eta kazetetan irakurritakoek konbentzitu zutenarena, eta, sinetsi izanak sorrarazi dizkion ondorioak jasan ostean, kalte-eragileok erretzeko aginduarekin amaitzen duena.

2.1. Solaskide eta solastokien bereizgarriak

Erljioa elepide behinena izan arren, hizketakide guztiak laikoak dira. Erljioaz diharduten idazkiak gezurtatzera badatoz ere, dela ematen dizkieten Luteroren jarraitzaileek idatzitako liburuxkak, dela kazetariren batek aitortzaren sakramentuaz agertutakoa, ez dago apaizik. Idazki horiek diotena salatzeke eta artezteko ongileak aukeratzen dira. Lantegi horretaz arduratzeko, apaizaren profila egokia izanagatik, hobariak gabe galerak erein zitzakeen, Mañubelek lehen elkarrizketan adierazitakoaren arabera: “neri eman ditetan libruak esaten dik Katolikoan errelijioa *apaizen* obra dekala” (101). Dirudienegun horietako istiluetan alderdikoiegitzat jota zeukaten apaiz katolikoa.

Berbadunen ogibideaz berri gutxi dago. Maisudunegun hitzik ere ez, ezta hiru solasetan parte hartzen duten Patxiku eta Mañubelenez ere, hiru horietako bitan solaskide bakarrak direnean, eta, bi horietako batean, Patxikuk, bat-batean, Don Pablok egingo duen bidaiari mutillane-

tan aritzeko bere bizilekutik irtetean, dena delako lanbidea bertan behera lagatzera behartuta zegoenean. Soilik *Bi ganbarakeko* Joxe Migel eta Joxe Iñaxioren eta, *Pello Mariren ganbarako* Pello Marirena zehazten dira: hirurak arrantzaleak dira.

Gizarte-mailaren ikuspuntutik bi muturretako mintzatzaileak: bi dirudunak eta jakintsuak, osterantzekoak, behartsuak eta ezjakinak. Estatusak banantzen dituenok fedeak batzen ditu, egiazkoa den erlijio bakarra katoliko, apostoliko, erromatarra dela aldarrikatzeak. Helarazi nahi den funtsezko mezu horri begira, bazuen ekarpenik maisutzarako ongileak izendatzeak. Ongileek gidatzen dituzten lauretan, gutxienez hiztun txioren batek aitortzen du fede katolikodunak “pobrien adiskideak”⁽³⁴⁾ direla behin edo gehiagotan esanaz. Ordurako haien laguntzaren onuradun zirenez, baiespenak eskarmentua zuen oinarri. Haatik, ez dute saihesten bizi ez dutenaz jardutea ere, heretikoekin inolako harremanik ez duten hiztunok haiei kontrako jarrera⁽³⁵⁾ egozten baitie.

Don Pablok ez du zuzenean hitz egiten hirugarrena arteraino, aurreneko bietan Patxikuz baliatzen da eta. Patxiku ikasleak ikaskizunak azaltzen ditu maisuak jakinarazitakoa hitzez hitz aipatuz zein bere berben bitartez. Patxikuk Mañubelekin duen lehen elkarrizketan, “Katoliko Euskaldun, eskola ona dikan batek, eta herejien artean urte asko bizitu dekan batek notizia oyek eman zizkiak; eta gizaseme ori dek pobrien eta nekazarien eta baserritarren adiskidea” (106) gisa aurkezten duen berbera da hizketakideon arteko bigarren berriketaren eragilea, ongilearen mutil-lanetan egindako bidaian ikusitakoen eta ikasitakoen berri emango baitio. Maisua, nolabait esateko, antzezpen bateko “oroitarazle” moduan ibiliko da, hirugarrenean, Mañubelen emazte Terexari bisigu bat erosten dion egunean, senar-emazteak Patxikurekin bilduta dauden Terexaren sukaldea bisitatu arte. Bistakoa da egileak hobetsi duena: mai-

⁽³⁴⁾ *Herejiak euskaldunen artean*, 103; *Patxikuren eta Mañubelen bigarren berriketa*, 111-112; *Terexaren sukaldea*, 130-131, 132; *Pello Mariren ganbara*, 167.

⁽³⁵⁾ *Herejiak euskaldunen artean*, 102-103; *Patxikuren eta Mañubelen bigarren berriketa*, 111-112.

sua ahal dela jokalekutik atera eta hark erakutsitakoa behartsu eta ezjakin baten bidez ezagutaraztea. Hala, ohikoena duten pertsonaia-moldearen erabilera sendotuz eta arrotzagoak zituztenenak gutxituz, beste hurreratze bat egiten du irabazi gura dituenengana, hori bai, ikaskizun-iturria argituz.

Bost autuok txiroen giroan kokatzen dira, batez ere, hauen ganbaretan. Maisudunenak ganbara dute ikaskizunen jaioleku edo burutzeko leku, ongile-lanetan joaten direlako. Solastoki bakarra ez bada ere, hor jartzen dira elkarrekin harremanetan. Patxiku eta Don Pabloren ezaupidea ongilea haren ganbarara igo zenean gertatu zen (*Patxikuren eta Mañubelen bigarren berriketa*, 112) eta ezaupide horretatik ernetzen dira Patxiku eta Mañubelen arteko bi berriketak; nahiz eta bi mintzakideon berbeta ez garatu ganbara batean, ganbarako topagune batek ahalbidetzen du, topagune hori dute sorrarazle. *Bi ganbarak* da solastokiz gehien aldatzen duena, bi ganbaretan, Joxe Iñaxioren eta Joxe Migelen bizilekuetan ez ezik, osterantzekoetan agerrerarik ez duten “arrantzalez eta nekazariz” beteta dagoen sagardotegian ere egikaritzen baita, eta, Joxe Iñaxio etxeratzean, auzokide batekin trink egiten duen lekuan ere bai.

Solason multzoan hainbat ñabarduraren jabe da *Bi ganbarak*, dela maisuren batek bideratu gabeko hizketakidez osatutakoa, dela sagardotegia ere solastoki izatea, dela hizpidean heretikoei aipurik ez egitea, dela katolikotasunari buruzko irakaspenak ezabatzea... Baita egilearen egitasmoa zuritzeke lanabesa ere. Gainera, “guturrek” egokien jotzen duen tratamenduaren lorratza uzten du. Bost autuak batzen ditu maila bereko gizonezkoen artean hitanoa baliatzeak, eta gizonezko eta emakumeen artean, aldiz, zuketa erabiltzeak. Maila desberdinekoetan behekoak goikoari berorika eta, aldrebes, zuketa. *Bi ganbaraken* ongile-maisu hiztunik ez egon arren, guraso eta seme-alaben arteko lokarrian erakusten da, baina ereduzkoa den Joxe Iñaxioren ganbaran baino ez, Joxe Migelenean, semea zuketaren bidez zuzentzen zaiolako aitari.

Berbetaldi profanoenarekin gauzatutako *Bi ganbarakek* berariaz ez esanagatik, aditzera ematen du erregimen berriak pertsonok “libreak eta

igualak” garela aldarrikatu duela eta ikuskera hori hedatzeko abiarazi duen propagandatik datozela Joxe Migeli eskuratu dizkioten idazkiak. Horra Joxe Migelen mudantzaren jatorria, eta, ekarri dizkion kalteengatik berriro lehengora itzultzean, errakuntzaren aitordpena eskarmentuan oinarritzen da. Maisuek jakin bazekiten ez garela berdinak, eta Joxe Migel ezjakinari bizitzak erakutsi behar izan dio irakurri zuena gaizki zegoela.

Joxe Migel eta honen semearen salbuespenarekin, ongile zein behartsu, ikasgabe zein ikasi, sinesmenaz bestalde, beren egunetako nobedadeak arbuiatzea partekatzen dute, bakoitzak bere tokitik, ordea. “Igualak eta libreak” garela pentsatzen duen Joxe Migel zeharo oker dabil, hain zuzen, ikasiak diren bi maisuek berdintasuna ukatzen dute eta. Honela diotso Don Pablok Patxikuri: “*Lenago (...) zenuben Espanian ibai izugarri bat zubirikan gabe, (...) bañon orain herejiak bota dute bere libruekiñ eta bere doktriñekin ibai ortan zubi bat*” (*Patxikuren eta Mañubelen bigarren berriketa*, 127). Ibai horretan bota duten zubiaren eragina Patxikuk eta bere gisakoek nozituko dute eta ez Don Pablok eta honen mailakoek: bi donostiarron artean badago alderen bat “genuen” “zenuben”-engatik ordezteak egiaztatzen duenez: guztiok ez gara “igualak”.

Iritzi berekoa da Don Martiñ. *Pello Mariren ganbaran*, Pello Mariren hilotzaren aurrean dagoen mintzakideetako batek euskaldunen artean barreiatzen duten propaganda berbabide duela, azken hitza Don Martiñena da: “Bai, Paskual. Izugarriak eta ikaragarriak dira zuen artean sartzen dituzten gure erreligio santoaren kontrako gazeta eta liburu oyek” (170). “Zuen” erabiltzean, kanpoan geratzen da. Azalpenak amaitzean Paskualek “Atsegiñ andiarekiñ aitu ditugu, jauna” (170) erantzuten duenez, entzuleak talde berean sartzen ditu. Honela bada, beste maila batekoak dira erasana jasango dutenak, ez maisuak: ez gara “igualak”. Estatusak banantzen ditu eta, ondorioz, ez dira berdinak, nahiz eta zehatz-mehatz ez ezagutarazi zein den desberdintzen dituen osagaia: dirua?, heziketa?, eskola-maila?, hauek guztiak?

Bi maisuen artean tartekatutako *Bi ganbaraken* guztiok berdinak garela uste zuenak huts egin zuela onartzeaz gain, arretagunea jende apalaren-

gan jartzen zuen. Dirudienez, alderdi batekoak nahiz besteakoak gizarte geruza berekoak bereganatu nahian dihardu. Lehen hiru elkarrizketetako maisua den Don Pablok egoera berria Patxikuk eta hau bezalakoek pairatuko dutela baieztatu eta gero, *Bi ganbaraketako* Joxe Migelek begien bistan lagako du: arrantzale bat konbentzitu dute. Hurrengoak, azkena den *Pello Mariren ganbarako* Don Martiñek, jada igorrita zeukaten mezua berresten du. Bego, oraingoz, helburuak, inprenta eta kultu-askatasuna erasotzea ez ezik, besterik ere uztartzen dituztela solasok: gizartea hierarkizatua dagoenez, ezin izan denok berdinak.

2.2. Ezjakinei zuzendutako solasak

Ezjakinak erakartzea xede duen egileak badaki hauengana iritsi ezean alferlanean ari dela. Egia irakasteko maisu-ikaslle harremana ohikoa zuen autura jotzen du. Genero didaktikoa, baina fikziozkoa, zinezkoa dena erakusteko. Hobetsi duen moldearekin hasten da paratzailea ikasgabeengana gerturatzen, eta mamitzeko unean aintzat hartzen du astunagoa dena arinagoa denarekin konbinatzea. Arintasunean irabazteko tresna zituen akotazioak, eta baliteke ibilian-ibilian jabetu izana eskaintzen zioten abantailaz, hirugarrena arte ez ditu itsasten eta. Akotazioez bestalde, Don Pablo maisuak argumentuen artean kontakizunak txertatzen ditu. Fikzioaren arloa iturburu duten baliabide hauek ez ziren egokienak egia azaltzeko, gezurrei aurre egiteko, preseski, asmatzeko lizentzia osoa daukan esparrutik mailegatutakoak direlako, eta, horrenbestez, ekarri hauen neurria eta modua begiratzeko premia ere bazuen. Urgazle ez zituen lanabes horiek orekatzen ditu errealtasunean oina ipiniz: hiztun guztiek Donostia dute bizileku, eta, hor, toki jakin batean kontrarioek liburuxkak banatzen dizkiete, egunkari liberal bat daukate, andre dirudun eskuzabalak, kofradiako kaballeroak... Hitz batean, donostiarrak ikusten dutenean ere euskarritzen da ontzailea.

Asmoa ikasgabeak konbentzitzea izanik, hauengana hurbiltzeko hainbat urrats egiten ditu, dela berriketak haien giroan kokatzea, dela maisuetako batek haietako baten esku uztea irakaspena, dela, erudizioa edo azalpen sakonak alboratuz, oinarrikoetara mugatzea eta hauen artean entretenigarriagoak diren istorioak sartzea, dela argitasunetarako erabilitako bitartekoei gai hutsalak gaineratzea. . . Estandarizatu gabeko hizkuntzan gauzatzera doa eta hizkuntza horretan eskolaratu gabeak ditu hartzaile. Egoera horretan, arauetatik aske dagoen egileak idazketa eraentzen du transmisioa erraztea lehenetsiz. Hurreratze bat gehiago hartzaile gura dituenengana. Solasa hautetsi izana laguntzaile zuen egiantzekotasunaren mozorroa janzteko eta idazlearen erantzukizuna idazkariarenera jaisteko. Eskribauaren eginkizunari helduz, mintzatzaileen berbetaren batzar-ageria egiten du, honako irizpideari eutsiz: ahalik eta aktarik zehatzena jasotzea, entzundakoarekin leial jokatu, hiztunek ahoskatutakoa transkribatuz. Ezjakinentzako idazkera herrikoia hobesten du.

Helburua betetzeak zuen lehentasun osoa, eta horren eskakizunen arabera osatzen du. Zeregina iruzurtizat jotzen diren idazkiek agertutakoari jarkitzea bada, euskarria ezarrita dago. Don Pabloren iritziz, idatzita datorrenari idatziz baino ezin zaio ihardetsi, hain justu, ezjakinek idatzita dagoena jakinduriarekin lotzen dutelako, letraren bidez eza-gutarazitakoa egia huts moduan dakusatelako: “Eskribitzen dituzte gazetetan burla oyeke eta gezur oyeke; eta gure nekazari batzuek xiñisten dituzte, zergatik moldeko letretan eskribitua egon ezkerro letzen dituzten gazeta oyetan, xiñistuko luteke” (141).

Horiek horrela, nahiz eta ezikasientzat burututakoak izan, ez ezikasi ororentzat, hartzaileak trebetasunen bat beretuta izan behar zuen: irakurtzeko gaitasunaren jabe. Haatik, gutxienak ziren ahalmen hori zeukatenak, Soraluek (1870, 507) 1868an Gipuzkoako %11,89 lehen mailako irakaskuntzan eskolatuta zeudela baitio. Alfabetatzea goraka badoa ere, 1860ko portzentajeetan Donostia probintziari era nabarmenean nagusitu arren, Diaz Nociren esanetan, Autonomia Erkidegoan Gipuzkoa da azkena:

Guipúzcoa era la que contaba con menos personas letradas, sólo un 18,8% de la población. Había una notabilísima diferencia entre las capitales y el resto de los respectivos territorios (...) el 31,9% de los donostiarras sabía leer y escribir (Díaz Noci, 2012, 74).

Bai alfabetatzearen zenbatekoetan, bai gaztelania dakitenetan, hiriburua Gipuzkoako edozein herriren gainetik dago. Egun horietan J. Manterolak plazaratutako gida batek azaltzen zuenez,

El vascuence ó Euskara es la lengua mas antigua y popular en la provincia de Guipuzcoa, si bien hoy se ha generalizado bastante el castellano en la mayor parte de los pueblos y especialmente en San Sebastian en donde lo hablan la gran mayoría de las gentes (Manterola, 1871, 23).

Euskara hizkuntza “herrikoienaren” aldamenen gaztelaniaren eza-guera hedatuta hautematen du, Zavalak besterik bazioen ere atzerago egin den aipamenean, alde batekoek zein bestekoek propaganda ugari egin zutela adieraztean, euskaldunarentzat erdarazkoak ez zuela balio baieztatzen baitzuen, hizkuntza hori ezezaguna eta arrotza izateagatik.

Solason egilea donostiarra da eta, ziur aski, hori da Donostia solastoki izatearen jatorria. Aldi berean, aukerarik egokiena zen igorlearen zein hartzailearen ikuspuntutik begiratuta, inprenta eta kultu-askatasunaren ondorioak begien bistakoak izanik, idazleak sinesgarritasunean irabazten zuelako, eta, norentzakoari dagokionez, liburuxkok norbereganatzeko ezinbestekoa zen betekizunean, irakurmenean, portzentajerik garaiena zuelako.

Zernahi gisaz, ez dabil gaztelaniaz burututako propagandari aurre egiten? Maisuek berbabide dituzten idazki guztiak ez ziren euskaraz egongo. Eta ezjakinei banatzen dizkien liburuxkak zein hizkuntzatan zeuden? Euskaraz ihardesteko hamaika arrazoi izan zitezakeen, dela barreiatuko diren lurraldeko bizilagun gehienak euskara izatea lehen hizkuntza, etxekoen zuten hizkuntza, bertso-paperera baino ez izatea propagandaren lantegian... Eta, justu, horregatik, euskaraz egindako propagandan hutsuneren bat suma zezakeen. Asmoa haiek osatzea izan zitezkeen, beste molde batez baliatuz, molde serioagoaz, neurri handia-

gokoaz eta, derrigorrez, irakurtzea eskakizun zuenaz. Bertsopaperera bildutakoa kanta bidez ere barreia zitekeen; autuok, banaka zein taldean irakurriz, irakurlea galdatzen zuten. Bost elkarrizketak batzen ditu gezurrean oinarritzen diren idazkiei jarkitzeak, eta, hala izanik, irakurtzeko gai direnen artean kokatzen da lehia, alde batekoak nola bestekoak eremu horretan tokitzen baitira eta bertsopaperak barruti zabalagoa izan zezaketen jokaleku.

Sasoi berrian maneiagarrien atzematen den jende xehearentzat paratu dira, ezaupide urrikoentzat, idatzita datorkiena zalantzan jartzeko gauza ez direnentzat. Ohartarazi legez, ahulenak erakartzeko maisutza ongileei esleitzeak abantailekin batera desabantailak zekarzkion, haien ikasleen profila murrizten zuelako: behe-mailakoetan apalenak, nahitaez, txiroak. Jende xumearengana bideratuta dauden solasotan irakurtzeko trebetasunaren jabe diren hainbat hiztun behartsu aurkezten ditu, denak ere gizonezkoak. Berbadun horien artean, ez bakarrik kopuruan, baita protagonismoan ere gizasemeak emakumeen oso goitik daude, eta seguruenik ez zen izango ustekabeen hartutako erabakiren baten emaitza hiru gizonezko txirori irakurmena egozte, preseski, garaiak bi sexuetakoei ez zielako eskaintzen aukera bera tasun hori lortzeko. Nahiz eta alfabetatuen portzentajeetan alde nabarmena egon daitekeen gizarte-geruza edo sexuaren arabera, argitalpen hauen aurretxoan Donostiako ehuneko bizilagunen herenak eskuratu badu irakurmena, ongileen laguntza behar dutenengana ere hedatuta ote zegoen ahalmen hori jades-teko egokiera? Egileak ez ote du lehenetsi maisu-lana ongileei atxikitzea, hauekin elkarretaratuko direnetan jartzen zizkion mugarriak bigarren mailan utziz? Behartsuak diren hizketakide horien arretagunea egon zitekeen eskaintzen dizkieten liburuxketan? Propaganda-idazkiak irakurtzeko eta ulertzeko gogoia eta nahikotasuna ote zuten?

Ezjakinak irabazi nahi dituela garbi lagatzen du. Haatik, ez erabateko ezjakinak, bigarren hizkuntza baten berri dutenak eta bietan irakur zezaketenak, aipatzen duten idazki orok ez baitzuen hizkuntza bera erabiliko. Landerrak konbentzitzeko bazuen hobaririk eskuzabal jarduten

duten ongile katolikoetara jotzeak, poztuko baitzituen ganbararen bat bisitatzena doazenean, beti zerbait eramateaz bestalde, luzatzen duten eskupekoak. Beren premiei erantzuten dieten ongileen jarrera gogoko izango zuten arren, irakurriz baino ezin zezaketen ezagutu. Behe-mailakoentzat zuzendutakoak badira ere, bost elkarrizketetako batean izan ezik, soilik ongileen laguntza eskertzen duten mintzatzaileez baliatzeak ez ote zion urritzen geruzaren aniztasuna? Eta ez ote zen arriskurik handienean sartzen, ongileen lana gehien txalotuko zuketenengana iristea lortzen ez bazuen, hauek estutasunean bizitzeaz gainera, ez daukatelako behar adina prestakuntza liburuxka horiek berenganatzeko?

2.3. Solaskideen iturriak

Esan bezala, bi neurritakoak dira elkarrizketok, hiru hamasei orrialdekoak eta beste biak hogeita hamabikoak. Don Pablo da maisu nagusia, hiruren irakaspenez arduratzen delako, horien artean bi zabalenez.

Hona Don Pabloren ikasgaien iturriak: ikusitakoa, irakurritakoa, bereziki, testu sakratuetan, eta kontatu dizkioten istorioak. Beraz, ongilea ikasitakoa eta ikusitakoa da. Munduan zehar ibiltzeak erakutsitakoa eskarmentua du eustazpi: bere begiekin behatutakoa da. Aukerarik hoberena benetakotasuna sendotzeko: norentzakoari bermea jakinarazten dio, ez da norbaitek agertutakoa, lekuko moduan bizi izandakoa baino.

Don Pablok Patxiku mutil-lanetan zuela antolatutako bidaia aurrenekoa ez izanagatik, ordurako Ingalaterran, Txinan eta Indian ere egondakoa baitzen, hura da autu oso baten eragilea: Patxiku eta Mañubelen arteko bigarren berriketa. Bidaia honek lehenbiziko geltoki Ingalaterra izan zuen eta han kuakeroekin topo egitean, Don Pablok maisutzari ekiten dio, haien sinesmenei buruzko zehaztasunak azalduz, eta segidan haien eliza batean barruratzen dira. Gero, Ingalaterratik Irlandara aile-

gatzean ikusitakoa: Irlanda eraentzen duten Ingalaterrako agintari heretikoek herri guztietan beren fedeko apaiz bat jarria dute, eta “Katoliko guztiak obligatoak ziaudek (...) eramatera amarrenak eta primiziak eta oblazioak apaiz hereje arri” (118). Zertzelada hau dela eta, bidaiaren kontakizuna bertan behera lagaz, “libertad de cultos” gaiari oratzen diote bi solaskideek. Patxiku baino ezjakinagoa den Mañubelek erabilitako izendapena orraztu beharrean bada ere, biak bat datoz katolikoentzat kaltegarritzat ebaztean, jada indarrean daukaten legea dela erantsi gabe.

Irlandatik Marseillara eta hemendik Andaluziara heltzeaz bat, “Andaluziyako probinzietan ibilli ditukala herejiak bere libruak eta bere doktrinak nekazarien eta baserritarren artean sartzen” (126) diotso maisuak Patxikuri, jasan dituzten ondorioak gaineratuz: “lapurkeriak eta, dozena erdi bat ezkuturengatikan, edozeñi eriotza edo etxieri suba ematen ziotek; eta gende ondraduak bizi dituk, eskopeta ondoan edo pistola boltxilluan daramakatela” (126).

Bisitaturako lekuak hizketakideen jarduna justifikatzeko bitarteko ez ezik, esperientzian euskarrizten direla nabarmentzeko ere badira. Erljio desberdinetakoak bizilagun dituzten herrialdeetara joateak parada egoia eskaintzen dio erkatzeko. Erkaketa ren gunea sinesmen-mailako aldeek baino agintarien erabakiek atzitzen dute. Lehen berriketan Don Pablaren ikasle Patxikuk Mañubeli erlijio heretikoaren zerrenda luzea ezaugarazi arren, bigarrenean, kuakeroen sinesmenaren bereizgarri gutxi batzuk adieraziko dizkio, horien berri ematera mugatu zelako maisua. Osterantzeko alderaketak erakunde politiko zein erlijioen gobernariak hartutako neurrietatik eratorritakoak dira, nola Irlandan heretikoek katolikoei ezarritako zergak salatzen dituenean, hala beste erlijioen aurrean, Eliza katolikoak dituen usadio, ohitura eta tradizioek, batez ere, legeztatuta daukan apaizen zelibatuak dauzkan onurak azpimarratzean.

Andaluziaren eginkizuna da andaluziarrak eta euskaldunak bekoz beko ipintzea: “Ez al gaude emen *Euskaldunak*, eta ez al daude Espaniako

beste aldean *Andaluzak*? Probinzia abetan geyenak urtero eta maizago ere konfesatzen gera eta gure artean ortzak sartu eztituzte herejiak, Andaluzietan bezela” (145). Aurkakotasuna oraindik tinkoago izan zedin ohikoak ez dituen oin-oharrak⁽³⁶⁾ txertatzen ditu.

Bere egunetako gorabeheren jakitun den Don Pablok ez ditu desitxuratzen, inprenta eta kultu-askatasuna nahiz ezkontza zibilak gobernu berriak onartu zituen eta. Bidaiaren geltokiak ere ondo hausnartuta zeuzkan, Rodriguez de Cororentzat, “Andalucía, polvorín estallado y catalizador de la Gloriosa” (1985, 129) izan baitzen, ez horrela, Euskal Herria, testuinguruaz aritzean agertu denez. Beste auzi bat da, noski, garaiak erakutsitakoa nola irudikatzen eta iruzkintzen duen. Asmoa ez da sasoiak deskribatzea, lehenbailehen aldaketaren bat izan dezala lortzea baino, eta, gertaerei eutsiz, bere ikuskeratik epaitzen du.

Ikasitakoak letra du berme, bereziki, idatzita dagoen liburu sakratuan irakurritakoa, ebanjelioetatik ateratako pasarte batzuk hitzez hitz aipatzen ditu eta hauei bi istorio emendatzen dizkie, horietako bat bere ezagun bati jazotakoa dela baieztatuz. Don Pablok horrenbesteko garrantzia atxikitzen dio eskarmentuan oinarrizeari bere azalpenen jatorria ere gaztigatzera iristen dela. Marseillan Patxikuri helarazitako irakaspenen sorburua, “eztezula uste, Patxiku, gauza abek norbaitengatik jakindu ditudala. Ez, Patxiku, neronek ikusi ditut, zergatik ni ere Txinan izandua naiz” (124) jakinarazteaz bestalde, fikziora jotzen duenean, bietako bat benetakotzat aurkezten du eta testu sakratuetako aipamenak nondik hartutakoak diren gaineratuz. Hitz batean, maisutzaren eustazpiak eraitsi ezinezkoak dira. Bere irakaspenen zimentarria soilik da egia hutsa. Konbentzitzea helburu izatearen ondorioa da, baita kon-

⁽³⁶⁾ Lehen oin-oharrak dio, “Espania barrendik datozten gaztelebak esaten dute, Euskaldunen mendietan sartzea dala gaur aingeruen artean sartzea” (145), bigarrenak, berriz, “Andaluziatik datorren gendeak esaten du, herejien doktrinekiñ, lapurrak eta asesinoak eta beste genero guztietako gizatxarrak Probinzia ayetako jabe eta nausi egiñak daudela” (145).

bentzitu nahi ditueni begira egindako aukerak ere: ezjakinen ulermen-mailara egokitzea, lanabes desberdinak erabiliz monotonia ekiditea, asmaziotik datorrena istorio bakar batera mugatzea.

Ez dira tamaina berekoak Don Pablo eta Don Martiñen lantegiak, hark eraentzen duen maisutza bost bider luzeagoa baita. Horregatik edo bestelako arrazoiengatik, kontua da Don Martiñen eta Don Pablaren ikasgaiak sustrai berekoak izanagatik, badagoela alderen bat ikaskizunen euskarria moldatzeko eran: eskarmentuaz ez baliatzea ez ezik, istorioen kontakizuna desagertzen da, eta ebanjelioetako aipuei ez zaie itsasten erreferentzia bibliografikorik. Ikusi eta bizi izandakoa, ikasitakoagatik ordeztan du, eskoladun ororengana hedatuz bere argibideen berria “dakizki edozeñek eskola duenak eta urrutiko juan dan urteetan, zer mundoan gertatu zan, liburuetan letu eta ikasi duenak” (170).

Bi maisuen ikaskizunak berdinak dira, beretzeko moduak baino ez ditu bereizten. Biak ere ikasle dituzten txiroei ezagutarazten die banantzen dituenak: ez gara berdinak. Atzerago agertutakoari batzen zaio karitatearen onura. Landerrentzako irabaziak bistakoak ziren, baina bi maisuek ere zehazten dute ongintzak dakarkiena. Biek diote txiroa bisitatzean Jainkoa bisitatzen dutela. Don Pablok, ikasle Patxikuren bidez, eransten du txiroari zerbait ematen dionak Jainkoarengandik ehun bider gehiago jasoko duela⁽³⁷⁾, eta ikaskizun hori sendotzen du kontatutako bi istoriotako baten bitartez: Jainkoaren aginduei jaramonik egin barik bizi izan zen gizaseme batek pilatutako bekatuen zama “pobreentzat biotz onekoa” (*Terexaren sukaldea*, 131) izanak ezabatzen du eta horri esker sartzen da zeruan. Honela bada, landerrentzat bizitza aurrera ateratzeko bitartekoa da karitatea, eta ongileentzat, paradisia lortzekoa.

⁽³⁷⁾ “Bañon, katolikoek erreligioak erakusten dik pobrieri zerbait ematen dionari, Jaungoikoak zeruban, eta baita ere askotan mundo ontan bertan, emango zio kala eun bider geyago, eta pobriak bere etxietan eta presoak karzeletan bisitatzen dizkitenak, Jaungoikoa bera bisitatzen ditekala”. *Patxikuren eta Mañubelen bigarren berriketa* (111). *Pello Mariren ganbaran*: “pobreak mundu onetan bisitatzen dituztenak, gaxo daudenian, JESU-KRISTO bera bisitatzen dutela” (167).

Behartsuen iturriak, Patxikuren salbuespenarekin, Donostian ikusitakoan eta entzundakoan daude. Ikusten dute liburuxkak banatzen dizkiela eta aditu dute *Piperra eta Cultus*⁽³⁸⁾ zein *Lingarda re cultus* (*Terexaren sukaldea*, 147, 148) eta sasiezkontzak ezarriko dituztela. Esamolde horien esanahia ezezagun dutenez, dakitenengandik datozkie orrazketak (kultu-askatasuna, ezkontza zibilak) eta azalpenak. Hortaz, maisuen eginbidea justifikatuta geratzen da.

Edonola ere, bada gorabehera bat maisua aitzinean ez daukatenean hizpide dutena, ongintza, ongintza pribatua nahiz publikoa, nork bere kabuz txiroak laguntzen dituztenena eta Babes-erakundearen ardurapean dauden hiru egitarauak: ospitalea, miseriakordia eta kofradiako kaballeroak. Landerrek azkentzat daukate nola ospitalea, hala miseriakordia eta, ongile partikularren eta kofradiako kaballeroen eskutik, saihestu ditzaizketela diote bi emakumek. Lehenbizi Mañubelen emazte Terexak:

Elizara muturrak agertzen eztituzten gizaseme batzuben esaten dute, or dau dela irikiak hospitala eta mixeriakordia nekazariarentzat; bañon, Dⁿ Pablo ori eta beste katoliko on batzuben bezela gure etxe pobrietara igotzen ez tiranak, ez tute ezagutzen gure mixeria, miñ bat gure gizoneri sartzen zayotengan, ez eta ere zer pena duen nekazari hondradu eta langille batek hospitalera eta mixeriakordiarara juateko; eta gañera, askotan, nai badu joan ere, ez bada erriko semea, etxe artan errezibitzen ez tute; eta kaso oyetako, nekazarien etxietara igotzen diran kaballero eta señora ongile oyek, pobrien aingeroak dituzu (132).

Antzeko zerbait adierazten du *Pello Mariren ganbarako Pello Mariren emazte Kataliñek*:

Ez Paskual. Gazetekiñ eta itz onekiñ jaten ez tute pobriak... Gu beñepen egon baginñan Madrillko eta baita ere erri onetako gizaseme, elizako gendea deitzen duten kontra dabiltzan oyeri itxogoten, aspaldi izango genuen gure gizona hospitalera bigaltzeko eta gu mixeriakordiarara juateko bearra (166).

⁽³⁸⁾ *Pachicuren eta Mañubelen bigarren berriquetra*, 119, 120; *Terexaren sukaldea*, 132, 133, 148.

Aurretik ere, Mañubelekin duen bigarren berriketan, aitortua zuen Patxikuk Donostian txiroak artatzen dituztela: “Orregatikan, Donostian ditue gizaseme eta señora aberats makiña bat, gusto andienarekiñ gure etxietara igotzen ditukanak” (111-112). Hurrengo gizarteratutako *Terexaren sukaldean*, Terexak Ongintza publikoan aldaketaren bat hautesman izanagatik, Patxikuri galdera bat luzatu arren, “Bañon, erreparatu al dezute lenago bezela eztirala oraiñ biñaka ibiltzen kofradiako kaballero ayek, astero, eta etxetik etxera, pobriak bisitatzen? Jakindu al dezu, Patxiku, zer gertatu zayoten kaballero ayeri?” (132), senar duen Mañubelek erantzuten du: “*Piperra eta Cultus* arren medioz kaballero ayen kofradia akabatu zuten” (132). Terexaren jakingura ase ez zuenez, Patxikurentzat beste itaun bat, baina honek entzungorrena eginaz, beste gai bati oratzen dio: “*elizatik kanpoan*” (133) ezkontzeari. Patxikuk, ezikasien artean ikasienak, ez konprometitzea erabakitzen du.

Hala eta guztiz, Patxikuk alboratu duen auzia, azken autuan, *Pello Mariren ganbaran*, berrartzen da. Arrantza izandako Pello Marik hiru hilabete daramatza gaixo, eta Paskual auzo laguna bisitan datorkionean, orain daukan ohean hobeto lo egiten duela ihardespeneren uea baliatzen du eriazen emazte Kataliñek, bisitariari ohe berriaren jatorria jakinarazteko: “Gure kontrario batzuek ekarria da, Paskual” (165). Kontrario horiek nor izango eta, “Kofradiako Kaballeroak ekarriak dira; eta oraiñ ezagutuko dezu zer arrazoi gutxirekiñ zuk ere egiten zenituen makiña bat berriketa, Kaballero oyen kofradia, orain zortzi illabete akabatu zutenean” (165).

Idazleak berriro gertaerekin leial jokatzen du. Espainiako gobernuak aitzineko legea beste batengatik ordezkatu zuen, eta, nola ez, Donostian ere, ondorioak izan zituen, Berasateguik ohartarazi bezala:

La Revolución de Septiembre de 1868 y las modificaciones que se introdujeron en nuestra legislación á causa de las nuevas ideas, originaron á la Institución benéfica de esta Ciudad consecuencias (Berasategui, 1894, 118).

1855az gero, Ongintza Batzordearen ikuskaritza zutela, “Juntas de Barrio auxiliares de la Municipal” (Berasategui, 1894, 92) izendatuta-koak eratzen dira etxex etxeko ongintzaz ardura zitezen. Haatik, gora-beherak izan zituzten:

pasaron por diversos contratiempos que hicieron que en ocasiones vieran interrumpida su labor. Así sucedió en el mes de septiembre de 1865, aunque reaparecieron en 1867, vuelven a desaparecer en 1868, pero aparecen con nuevos nombramientos en 1869 (Roquero, 1999, 422).

Soralucek (1871, 19) *Pello Mariren ganbara* izan ezik, berrargitaratzen diren beste guztiak aurkezten ditu, seguru asko, bere liburuaren eta autu horren argitalpenaren tarte laburrak eragotzi ziolako. Gure egunetara iritsi ez den *Joshé Miguelen ganbarari* buruz dio Bizente Paul santuaren Ongizate-batzarra deuseztatzearen desegokitasuna eta bidegabekeria nabarmentzen zituela. Hala bada, Donostiako Ongintza publikoaren ibilbidea estu-estu jarraitu zuen egileak.

Irmotasun osoz sasoiko egoerari jarraitzea asmo duten solasotan, Donostiako ongileen jarduera txiroen atxikimenduarekin hasten eta bukatzen da. Ezjakinek ikusten dutena edo ez dutena elepide duten hirutan jorratzen da: aurrenekoan, jakitunena den Patxikuk, Donostiako dirudunen artean ongile asko atzematen ditu; bigarrenean, Ongintza publikoari buruzko galdera bat luzatzen diotenean, ez entzunarena egiten du. Honen ostekoa den galdutako *Joshé Miguelen ganbaran* egurtu bazuen ere, honen atzetik datorren *Pello Mariren ganbaran*, saila ixten duen honetan, ebidentzia batean oinarrituz, Donostiako kofradiako kaballe-roen portaera onuradunek beraiek onesten dute.

Seiurteko Demokratikoko agintariek indarrean jarritako zenbait legek jaulkitzen dituzten kalteak azaltzeko mamituak izan zirenez, erabat ezustekoa da etsaiei zerbait onartzea, eta *Terexaren sukaldean*, jipoitze-ko aukera zuenean, isiltzea, aurkariak zirenean erantzule. Edozein kasutan, hurrengo elkarrizketa batean astindu bazuen ere, *Joshé Miguelen ganbaran*, *Pello Mariren ganbarako* Kataliñek kontrarioengandik jaso duten ohea

eskertzen duenean, Ongintzaren lege berria ontzat ematen ari da: kontrako propagandari ekarriren bat batu gabe kentzen ziona. Eraginkortasunaren goiburupean osatutako autuak dira, mintzakideek gaitzesten dutena baino ez dutelako hizketagai. Horregatik da, hain zuzen, salbuespen hutsa Ongintza publikoarena, erregimen honetan behar bezala dabilen erakunde bakarra izateagatik, eta, xedeari begira lagungarri ez zuena, arerioei eskainitako esku-erakutsia zelako. Horra hor bere berezitasuna. Xehetasun hau berrartuko da datorren puntuan.

3. Berriro egiletasunaz: Bermingham ala Jauregi?

Jada agertutako bosten arteko juturei beste bi gaineratzen zaizkie: idazketa-modua eta maisuek gidatzen dituzten lauretan aipatzen den pasarte bat.

Ortografiari dagokionez⁽³⁹⁾, gainbegirada soilak erakusten du paratzaileak ez zuela lortu, ez okerrak ekiditea, ezta txistukarien transkripzioa gobernatzea ere. Batez ere, txistukarien idazketan ez dauka gidalerri⁽⁴⁰⁾. Bi urteren tartea dagoenez, *Herejiac euskaldunen artean* eta *Pello Mariren ganbararen artean* bilakaera txiki bat hautematen da, dela disimilazioa saihestea, —*Herejiac euskaldunen arteaneko* “semientzat” (8), “zemiequiñ” (12) edo “etchietara” (8), “etchietaco” (9) *Terescharen zualdean* “zemeeri” (16, 18), “zemeequiñ” (16, 18), “zemeen” (18) edo

⁽³⁹⁾ Jatorrizko idazketa jaso behar denez, aurrerantzeko aipua solasen lehen argitalpenetik egingo dira.

⁽⁴⁰⁾ Aldaketa nabarmenena egiten du hemen jasotzen ez den *Herejiac euskaldunen artean*en hurrengo edizioari heltzean. *Herejiac euskaldunen artean*, “aisac” (1, 3), “ser” (2, 4, 5, 7, 8), “serbeit” (4, 12), “besela” (4, 5, 8, 9, 10, 11, 12), “emaste” (5, 9, 11), “isan” (6, 13), “siagoc” (7), “guesurti” (7, 8), “sein” (7), “batiatseco” (7), “escontseco” (7), “enterratseco” (7), “apaiseri” (7, 8, 9, 10, 11, 12, 13), “esantsac” (8, 10), “bisi” (9, 11, 13), “eltse” (10), eta abar idazten ditu eta, jada berrargitaratzen den *Herejiac euskaldunen artean*, “aizac” (1), “cer” (2, 3, 4, 6, 7), “cerbait” (3, 11), “becela”, (3, 4, 9, 10), “emazte” (4, 8, 9), “izan” (5), “ciagoc” (5), “guesurti” (6, 7), “cein” (6), “batiatzeco” (6), “ezcontzeco” (6), “enterratzeco” (6), “apaiceri” (6, 7, 8, 11), “esantzac” (7, 8), “bici” (7, 9, 10), “eltze” (9)... eta honen ostean datozen gainerakoek, forma horiei eusten diete.

“echeetan” (9, 17, 18), “echeetara” (17), “echeetaco” (24) da—, dela hiatoa markatzeko kontsonante epentetikoaren txertaketa gutxitzea, dela “biar”, “ontan” edo “libru” hobestetik, “bear”, “onetan”, “liburu”ra igarotzea... baina, “baizik eta” juntagailua erabiltzen duen bakoitzean, “baicicanta” (behin “baisicanta”) jartzen du.

Maila morfosintaktikoan guztiak uztartzen ditu justaposizioa baztertzeak, erdian “eta” juntagailua sartuz⁽⁴¹⁾.

Maila berekoekin, ezjakinekin burututako *Bi ganbaracen* izan ezik, osterantzeko lauretan, maisuek testu sakratuetatik ekarritako pasarte batekin argumentatzen dute egiazko erlijio bakarra katolikoa izatearen funtsa, Jesu Kristok San Pedrori helarazitako mezu bat jasotzen dute: “*I aiz Pedro, eta arri orren gañean alchatucodiat nere Eliza, eta inpernuco diabru guztiyen indarrac ezittec Eliza ura lurrera botaco*”⁽⁴²⁾. Don Pablok hirugarren berriketa arte oroitazle moduan jarduten duenez, honen bitartekariaren bidez jarioko da, ez horratik, ordezkariak iturria argitu barik.

Horrenbeste loturaren jatorria ontzaile bera izatearen ondorioa baino ezin izan daiteke.

4. 1. *Albiste on bat eta berrargitaratuak*

Esan legez, Berminghamek jendarteratu zituen liburuxken egiletza argitaratzaileari berari zein Jauregiri egotzi zaie. Jauregik *Albiste on baten*

⁽⁴¹⁾ Adibidez, *Herejiac euskaldunen arteanen* “jangabe eta erangabe, eta jantcigabe eta etcherican gabe” (10); *Pachicuren eta Mañubelen bigarren berriquetan*, “jan eta eran eta ló egiñ” (6); *Terescharen zukaldeen* “zezenen eta beyen eta cerrien” (30); *Bi ganbaracen* “emaztea, eta aurrak eta familiá eta erretiro oná eta bezte elizaco eta apaiza gendeen contu oyek” (2); *Pello Mariren ganbaran*, “eta echeac eta arbolac eta zelayac” (14).

⁽⁴²⁾ *Herejiac euskaldunen artean*, 5, “hi” idazten du; *Pachicuren eta Mañubelen bigarren berriqueta*, 13. *Terescharen zukaldeen*, San Mateoren liburutik ekarritz, aldaketa txiki batzuk egiten ditu: “*Zu zera arria eta arri orren gañean alchatucodet nere Eliza, eta inpernuco atea ez tute Eliza ura botaco lurrera*”, 20. *Pello Mariren ganbaran*, “*orre-gatic San Pedrori (...)* esantzion ere *inpernuco atea iñoiz etzutela arri arren gañean alchatuko zuen eliza, botaco lurrera*”, 14-15.

bigarren argitalpenari bere izena ipini zionez, autu hori eta hemen bildutakoak alderatuko dira, ontzaile bera izan zuten ala ez behatzeko⁽⁴³⁾. Jauregirenak eta hamar urte lehenago plazaratzen hasi ziren berrargitaratuok generoa partekatzen dute. Baita ikuskerak aurrez aurre ezartzeak ere, ez ordea, era berean: *Albiste on bat*, bost hauek ez bezala, eztabaidaz baliatzen da.

Mintzakideak maila berekoak ez direnean, behekoa goikoaren menpe tokitzen da, dakiena baita irakasten duena, eta ezjakina jakin-mina ase nahian dabilena. Maisu-ikasle harremana euskarri duten lauretan, “besteen” ustekizunak irakasleen bahetik iragazita iristen dira, eta, solaskideen artean ez daudenez, ez daukate ihardesteko aukerarik, nahiz eta justu horiek izan batutakoen berbetaren sorrarazlea. Jauregiren lehia-kideak, haatik, bata bestearen aitzinean daude eta bakoitza arduratzen da bere aldekoen ikuspuntua adierazteaz.

Jauregik izenburuari erantsitako azpтитuluak, “Edadean eta doctriñan lenagoco demboretaco guizonzar Fernando eta onen antzecoen, eta oraingo demboretaco Ernesto, eta bere guisacoen arteco jolas-aldia” iragartzen duenez, adinak eta dotrinak bereizten ditu. Bestela esan, maila bereko eta aburu desberdineko hiztunetara jotzen du bekoz beko jartzeko. Liburu honetara ekarritakoetan soilik bat da ezaugarri horren jabe: *Bi ganbarac*. Maila berekoak eta kontrako iritzikoak direnez *Bi ganbaraceko* hizketakide nagusiak, Joxe Migel eta Joxe Iñaxio arrantzaleak, parekotasunen bat izango lukete *Albiste on bateko* Fernando eta Ernestorekin, baina hor hasten eta bukatzen da antza, ideiak babesteko moduak banantzen baititu; haiek norberaren izenean hitz egiten eta jokutzen dute; hauek, ostera, ordezkari gisa; haiek balioetatik jarriotakoa egiten dute eta hauek, aldiz, eztabaidatu.

⁽⁴³⁾ Esan gabe doa, erkaketa lehen argitalpenarekin, bigarrenak *Euskal-Erria* izan zuelako argitalpen-leku, hots, bere idazketa-arauak zituen aldizkaria.

Joxe Iñaxiok eta Joxe Migelek sagardotegia dutenean solastoki, egin gura dutenera zedarritzen da desadostasuna: lehenak, familiarekin afaltzeko etxeratzea, bigarrenak, hor elkarrekin jarraitzea, eta Joxe Iñaxiok “Bakoitzak dizkik mundu onetan bere gustoak; eta i libre eta jabe baaiz nai dekan gustoa izateko, neri enak nire ustez ukatuko deretxo ori bera” (2) esanaz amaitzen badu adostasunik eza, inor ez dator printzipioak defendatzera, ezta alderdi batekoen edo bestekoen bozeramaile izatera ere. Ikuskeratik jaulkitako portaerak erakusteko lanabes huts diren *Bi ganbaracekoak* ez bezala, *Albiste on bateko* Fernando eta Ernesto, arrazoietan funtsatuz, solaskidea konbentzitzeaz saiatzeaz bestalde, haien arteko harremana singularrean garatzen da eta hauenean plurala nagusitzen da.

Mandataritzaren eta eztabaidaren erabilerak urruntzen ditu *Albiste on bat* eta hemen batutakoak. Bost hauetan ez dago mandatari legez berba egiten duenik. Bost horietako lautan bestelako ustea duenari erantzuteko eskumena ukatzen zaio, eta bosgarrenean, ikuspegiak aldentzen dituen mintzatzaileak aurkeztu arren, bakar bat ere ez da ahalegintzen aurrez aurre duena erakartzeaz. Jauregik ez du jakinarazten hizketakideten eskola-maila, eta *Bi ganbaraceko* egileak ezjakintzat dauzkan bi arrantzaleei ez die itsasten pertsonok “libre eta igualak” ote garenaren gaineko azterketa eta hausnarketa. Benetan, ez zukeen sinesgarritasun handirik ere izango eta, berez, egiantzekotasuna doitzen du batak besteari jaramonik egin barik azaltzen dituenen.

Albiste on batek eta liburu honek jasotakoek Eliza Katolikoa aldezteak eta lehenaldiko egoera hobesteak uztarturik ere, hura Eliza horren gomendio bat gordetzera zedarritzen da, gai zehatz batera. Hauena nabarmen zabalagoa da. Halaber, iraganaldiaren oroimina darie, atzoko erak eta ohiturak laxatuta atzematen dituztelako, berariaz *Terescharen zucaldean*, hizpide baitute. Testuinguru historiko desberdinetan mamitutaakoak izanagatik, joandako denborak faltan botatzen dituzte eta orainaldiko joerei kontra egiteko asmoa dute; ez ordea, gorabehera beraz jardunaz, berrargitaratuek erregimen berriak indarrean jarritako zenbait neurrik ereindakoa gezurtatzea dute zeregin eta *Albiste on batek* desbide-

ratu den uste bat bideratzea baino ez. Hala, albiste txarrak dituzte abiarazle, baina Jauregirenaren izenburuak iragarri bezala, albiste on bat ematera dator “lenagoco demboretaco” gizonak “oraingo demboretaco” lehiakidea irabazi baitu. Beste hauetan, berriz, ez da horrelakorik, hiztunen esku ez baitago, legeen aldaketan baizik.

4.1.1. *Idazketaren erkaketa*

Helburu literariorik ezak eta estandarizatu gabeko hizkuntzan idatzitakoak izateak guztiak lotzen baditu ere, alde handia dute idazketan, hasi ortografiarekin eta jarrai joskera eta hiztegiarekin. Edozein idazlearen egitasmoaren osagai denez norentzakoa, baliteke alderdi horrek idazketa-modua baldintzatu izana. Berminghamek banatu zituenek ezizkiak zituzten helmuga eta, agian, euskara jantziagoa baliatzen duen Jauregik ezaguera gehiagokoak zeuzkan buruan. Nolanahi ere, zeinahi izan mudantzaren eragilea, Jauregi balitz berrargitaratuen paratzailea, hauek idatzi osteko zortzi urteetan euskara lantzen aritu behar izan zuen, haiek gauzatzeko bere euskalkitik atera ez zelako eta bai *Albiste on batekin*.

Zeinu ortografikoak direla eta, *Albiste on batek* dieresia testuinguru jakinean eransten du —“ezagüera” (13, 14, 15), “testigüen” (25)— bost hauetan, batzuetan bai, bestetan ez: orrialde berean, “dagüen” eta “daguen” (*Terescharen zucaldea*, 11).

Albiste on batek tilet ortografikoa “osó” (11, 13, 17, 20, 21, 23, 25, 26, 27, 28) hitzera mugatzen du, lehen bi agerreretan izan ezik (5, 10). Autuotan askoz ugariagoa izateaz bestalde, kasu batean behintzat, berba bati egotzitako bi adierak bereizteko eginkizuna atxikitzen zaio: “gasc-hó”ren esanahia “eri”ri batzen dio, eta “gascho”, dohakabeari, gajoari.

Albiste on bat eta bi urtean zehar egikaritu eta argitaratu ziren elkarrizketok batzen ditu hiatoa markatzeko kontsonante epentetikoa sartzeak,

gipuzkeran ohikoa denez. Hemen jasotakoak itsastetik ezabatzen bideratzen dira, lehenbizikoan ia arau bihurtzetik, hurrengoetan, bertan behera lagatzera, “mendiyetan”etik “mendietan”era; “valiyo”tik “balio”ra; “guchiyenaz”etik “guchienaz”era; “izugarriya”tik “izugarria”ra; “biyac”etik “biac”era; “guztiyac”etik “guztiac”era, “eguija”tik “eguia”ra; “eguiyazcoa” “eguiazcora”... igaroz. Berdin jokaten dute “u” eta “e” edo “a”ren tartean txertatutako “b”arekin: “zuben”etik, “zuen”era, “duben”etik “duen”era, “batzubec”etik “batzuec”era eta aurrenekotik atzenera gutxituz doa. Saila ixten duenean, hitz bakan bazuetan baino ez: “orduban”, “suba”, “inpernuban”, “koipatsubagoa”.

Albiste on batek eta solasok hitz berbera modu desberdinean idazten dute. Esaterako, Jauregik hitz bukaerako dardarkaria “r” grafemaz (“zar”, 6, 11; “negar”, 8), eta hauek, berriz, “rr”⁽⁴⁴⁾ bidez. Erkaketan salbuespenari jaramon egin barik⁽⁴⁵⁾, zeharo nagusitzen den formari eutsiz, hona desberdintasunen erakuskari zabala:

⁽⁴⁴⁾ *Herejiac* euskaldunen artean, “zarr” (2); *Pachicuren eta Mañubelen bigarren berriquet*a, “guizacharr” (2), “adarr” (11), “ederr” (22); *Terescharen zukaldea*, “gaurr” (1, 3, 18), “belarr” (2), “moscorr” (7, 32), “guezurr” (22); *Bi ganbarac*, “guezurr” (2), “aurr” (3), “betorr” (5), “natorr” (5), “canpotarr” (5), “zarr” (5), “alferr” (10), “mozcorr” (10), “muturr” (11), “zacurr”, (12) “atorr” (14, 16); *Pello Mari- ren ganbara*, “atorr” (10), “negarr” (11)...

⁽⁴⁵⁾ Akatsen edo arautu gabeko hizkuntzaren ondorioz, Jauregik ere ez du hitz bera beti berdin idazten, baina horietako bat da erabiliena: joatea (15, 22), esanic (13), ez bada (13, 14, 15, 18, 23, 26, 30), santuac (8, 19, 20, 21, 22), gucia (6, 7, 11, 18), edan (7, 12), leguea (13), bear (16, 17, 18, 20, 21, 23, 26, 27, 29, 30, 31) eta abar idazten du eta, behin edo behin, “joatia” (14), “ezanic” (29), “ezpada” (12), “santubac” (15), “guciya” (15), “eran” (15), “leguia” (15), “biar” (7, 27).

<i>Albiste on bat</i>	Berrargitaratzen diren autuak				
	<i>Herejiac euskaldunen artean</i>	<i>Bigarren berriqueta</i>	<i>Terescharen zucaldea</i>	<i>Bi ganbarac</i>	<i>Pello M. ganbara</i>
par, 5, 17, 29, 30		farr, 7, 9, 10	farr 3, 9, 15, 29		
beciñ, 5, 6, 9, 12, 14, 15, 31; becin, 8, 28	bezeiñ, 2	bezeiñ, 3, 16, 19, 21, 29; bezein, 3	bezeiñ, 9; bezein, 28	bezeiñ, 6	bezein, 1; bezeiñ, 14
erligioa, 16, 30	erreligiyo, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 10, 14, 15	erreligio, 2, 4, 5, 6, 7, 11, 13, 23, 24, 28, 29	erreligio, 18, 19, 23; erreligiyo, 19	erreligio, 7	erreligio, 8, 12, 15
prailiac, 5, 15		fraile, 26			
atera, 5, 28; ateratzen, 9		eteratu, 1, 10, 12, 18, 20, 23; eteratzen, 15		eteratzen, 12	eteratzen, 6, 14; eteratu, 15
baña, 6, 7, 10, 11, 14, 17, 19, 20, 24, 25, 26, 27, 29, 31	bañon, 1, 2, 3, 4, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 16	bañon, 3, 4, 4-5, 7, 8, 9, 10, 11, 16, 17, 19, 21, 22, 24, 25, 27, 30, 31	bañon, 1, 2, 3, 4, 5, 6, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 17, 18, 21, 23, 25	bañon, 2, 6, 7, 8, 9, 11, 14, 15	bañon, 2, 3, 4, 5, 7, 8, 11, 13, 14, 15
vici, 6, 7, 21, 25, 27	bici, 7, 8, 9, 10; vizitu, 14	bici, 17, 20, 23, 24, 27, 28, 29, 30	bici, 1, 2, 4, 7, 8, 11, 14, 15, 16, 25, 26, 28, 30, 31	bici, 2, 7, 8, 13	bisi, 12
gaisto, 6, 7, 9, 13, 14, 17, 19, 22		gaschto, 2	gaschto, 16, 23	gaschto, 7, 8	
gaistaqueri, 1, 19, 27		gaschtaqueri, 3			

<i>Albiste on bat</i>	Berrargitaratzen diren autuak				
	<i>Herejiac euskaldunen artean</i>	<i>Bigarren berriquetta</i>	<i>Terescharen zucaldea</i>	<i>Bi ganbarac</i>	<i>Pello M. ganbara</i>
aundi 5, 6, 11, 18, 19, 24, 28, 30; andiagoac, 20; andiarequin, 30	andiya, 5, 6, 7, 11, 15, 16	andia, 1, 3, 5, 16, 23, 25, 26, 28	andia, 3, 9, 10, 12, 14, 15, 16, 18, 23, 24	aundia, 4; andia, 9, 14; aunditu, 11	andia, 1, 14, 16
liburu, 6	libru, 1, 2, 3, 6, 15	libru, 10, 11, 12, 13, 14, 16, 19, 24, 26, 28, 30, 31	libru, 16, 19, 20, 21, 22, 23, 25; libro, 20	liburu, 11, 16	liburu, 12, 13, 14
siñistu, 6, 17; siñisten, 16	schinisten, 12	schinisten, 7, 12, 13, 14, 15, 27	schinisten, 5, 10, 19, 26	schinistatuco, 7	schinistatu, 13
izan, 6, 7, 10, 13, 15, 16, 21, 22, 24, 25; izandu, 16	izandu, 1, 2, 13; izan, 5; isan, 15	izandu, 3, 4, 11, 13, 14, 18, 26; izan, 4, 9, 10, 13, 15, 20, 28	izandu, 10, 15, 31; izan, 2, 3, 4, 5, 7, 10	izan, 5, 6, 7, 8, 14, 15	izandu, 1, 10, 12; izan, 3, 7, 9, 10, 13
¡Ayl, 7, 9, 15, 22, 27, 29			ahi, ahi, ahi, 1		
onetan, 10, 14, 15, 17, 29		ontan, 5	ontaraco, 21	ontan, 6, 15; onetan, 10, 14	onetan, 2, 3, 4, 5, 7, 11, 14
orrela, 10, 19; orrelaco, 6, 7, 10, 17, 23, 29	orlaco, 4, 13	orlaco, 2, 21	orla, 12, 24, 30; orlaco, 2, 5, 21, 28, 30, 31	orla, 4; orlaco, 13	orlasche, 4; orlaco, 4, 5, 7, 16
orretan, 13, 25, 28, 29;		ortan, 31, 32		ortan, 2	

<i>Albiste on bat</i>	Berrargitaratzen diren autuak				
	<i>Herejiac euskaldunen artean</i>	<i>Bigarren berriqueta</i>	<i>Terescharen zucaldea</i>	<i>Bi ganbarac</i>	<i>Pello M. ganbara</i>
pistu, 7	pischtutcea, 3			pischtuco, 3	pischtutzen, 1; pischtutsen, 2
sucalde, 7		zucalde, 18	zucalde, 1	zucalde, 10	zucalde, 1, 6, 11
alperqueri, 7	alferric, 14, 16			alferr, 10; alferric, 8, 15	
deabru, 7, 10, 18, 20	diabru, 1, 5, 16	diabru, 3, 13, 15	diabru, 22	diabru, 12	diabru, 15
Virgiña, 8	Vergiña, 2, 3			Virgiña, 1; Vergiña, 7, 16	
aimbeste, 8, 10, 12, 27	aiñ beste, 4, 12	ainbezte, 30	ainbezte, 2		
andic, 8		andican, 11, 13	andican, 12, 13		andic, 7
Jesu Cristo, 8, 10, 12, 14, 15, 20, 21, 25; Jesu Cristo 15, 16, 18	Jesu- Cristo, 3, 4, 5, 6, 16	Jesu-Cristo, 10, 12, 13, 14, 24, 28	Jesu- Cristo, 19, 20, 21, 22, 23, 30, 31	Jesu-Cristo, 8; Jesu- Christo, 8, 16	Jesu-Cristo, 8, 14, 15; Jesu- Christo, 10
bay, 7, 8, 10, 11, 14, 26, 27, 28, 29	bai, 1, 3, 4, 5, 11, 13	bai, 1, 4, 6, 8, 14, 21, 27, 28, 29, 31	bai, 9, 10, 15, 28, 29, 30, 32	bai, 6, 7, 8, 11, 14, 16	bai, 7, 8, 10, 12, 16
maisua, 8	maisuba, 1, 6, 14, 15	maizua, 12, 14			maizu, 13

<i>Albiste on bat</i>	Berrargitaratzen diren autuak				
	<i>Herejiac euskaldunen artean</i>	<i>Bigarren berriqueta</i>	<i>Terescharen zucaldea</i>	<i>Bi ganbarac</i>	<i>Pello M. ganbara</i>
eguintaco, 8		eguintaco, 10	eguinta, 12		
gucia, 8, 11, 17, 21, 22, 28, 31	guztiya, 7, 9, 14, 15, 16	guztia, 2, 3, 7, 8, 9, 11, 13, 14, 16, 17, 18, 19, 20, 22, 23, 24, 25, 26, 27, 28, 29, 30, 31; gustia, 6	guztia, 11, 14, 16, 19, 20, 21, 23, 24, 25, 26, 27, 28, 32	guztia, 4, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 15, 16	guztia, 7, 10, 13, 14, 15
beñic beñ, 12, 14, 18		beñepen, 1, 8, 15, 29, 32	beñepen, 3, 7, 8, 27, 32		beñepen, 5, 16
orduan, 9, 12, 21; orduban, 28	orduban, 5, 6, 7, 12, 13	orduban, 3, 8, 17, 20, 22, 23, 25	orduban, 2, 15, 17, 19, 23, 27	orduban, 3, 9	orduban, 5, 15
mutil, 7; mutill, 23		mutill, 5, 6		mutill, 12	mutill, 12
pensa, 10, 12, 14	pentzatsen, 3	penzatzeco, 2; pentzatzeco, 11		pentza, 14; pentzamentu, 15	pentzatu, 6; pentzatzea, 7, 8, 14
guissasso, 6	guisagajo, 8	guizagajo, 16, 17	guisagajo, 5, 8, 14; guizagajo, 12, 13, 17; guizagayo, 18	guisagajo, 6, 15, 16	guisagajo, 7, 13; guizagajo, 1, 7, 8, 9, 11, 13
gaisso, 9, 20, 23; gasso, 10		gascho, 18	gascho, 15	gascho, 3, 5	gascho, 2, 7, 10

<i>Albiste on bat</i>	Berrargitaratzen diren autuak				
	<i>Herejiac euskaldunen artean</i>	<i>Bigarren berriqueta</i>	<i>Terescharen zucaldea</i>	<i>Bi ganbarac</i>	<i>Pello M. ganbara</i>
beldur, 10, 13, 16, 17, 19		beldurrez, 12; bildurrigan, 25; bildurra, 30	bildurras, 11; bildurric, 18; beldurtzen, 25	bildurra, 14	bildurrean, 10, 12; beldurraz, 14
iduiqui, 9; eduiquitzea, 11; eduiqui, 16		iruqui, 5	iruqui, 8; iruquitzen, 12	iruqui, 9, 14	
aiña, 9, 14, 15		diña, 19			
aditu, 10, 23, 27, 30	aitu, 7, 12	aitu, 2, 7, 16, 18, 19	aitu, 4, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 18, 23, 27, 28, 29, 31	aitu, 7, 8, 9, 12, 15	aitu, 3, 5, 8, 9, 14
aiéc, 10, 20, 21, 30; aec, 11, 12, 13, 19, 31	ayec, 5	ayec, 3, 6, 7, 9, 23, 25, 26, 28	ayec, 6, 16, 17, 25	ayec, 2, 5, 16	ayec, 3, 13, 14
vioztz, 11, 12, 13, 15, 17, 23, 26; biyotz, 14		biotzetan, 19	biotz, 3, 4, 12, 18, 22	biotz, 6, 15	biotza, 7, 9, 10
irudi, 11		iruri, 5, 6, 21	iruri, 4		iruri, 9
aparitan, 12			afaria, 1, 2, 7		
ausitzen, 12; austearequin, 12; ausi, 13; austeac, 13				autzitzia, 11	

<i>Albiste on bat</i>	Berrargitaratzen diren autuak				
	<i>Herejiac euskaldunen artean</i>	<i>Bigarren berriqueta</i>	<i>Terescharen zucaldea</i>	<i>Bi ganbarac</i>	<i>Pello M. ganbara</i>
erres, 13, 14, 16, 19		erresch, 3, 4	erresch, 10, 21	erresch, 4	erresch, 4
heregiac, 14	herejiac, 2, 3, 4, 6, 7, 8, 9, 12, 13, 15	herejiac, 2, 4, 12, 15, 16, 17, 19, 20, 24, 27, 30	herejiac, 6, 23, 25, 31		herejiac, 12, 13
Eleiza, 14, 18, 19, 20, 21, 22, 24, 25, 26, 27, 29, 30	Eliza, 5, 6, 11, 16	Eliza, 13, 14, 15, 26, 29	Eliza, 3, 5, 6, 13, 14, 18, 19, 20, 25, 30	Eliza, 1, 2, 3	Eliza, 5, 6, 15
intenciyo, 14		intenzio, 13, 20			
ssamarra, 14					schamarra, 5
guissacharra, 14, 16		guizacharra, 2	guisacharra, 26		guizacharra, 15
au, 7, 8, 10, 11, 12, 13, 16, 23		abo, 2, 5, 7, 17, 22, 30	abo, 2, 4, 24, 32	abo, 2, 7, 8 14	abo, 6
palso, 16	falso, 5, 6, 7; falzo, 15	falso, 11, 14, 29	falso, 6, 29		falso, 13; falzo, 13
issillic, 16, 26, 27		ischilic, 4; ischillic, 18	ischillic, 3, 23, 30; ischilcho, 8	ischillic, 8	ischillic, 2
gossora, 12 gozoric, 17		goschoa, 18, 19; gozo gozo, 16, 17, 26, 28	goschoa, 2; gozo gozo, 5		gozoac, 3; gozotazun, 4; gosatzen, 9

<i>Albiste on bat</i>	Berrargitaratzen diren autuak				
	<i>Herejiac euskaldunen artean</i>	<i>Bigarren berriqueta</i>	<i>Terescharen zucaldea</i>	<i>Bi ganbarac</i>	<i>Pello M. ganbara</i>
eroceiñ, 11; edoceñec, 14; edoceiñ, 8 17, 24	eroceiñ, 2	edoceiñ, 4, 7	edozeiñ, 3; edozein, 17, 23, 30; edocein, 18		edozeiñ, 14
jaquin, 5, 6; jaquiñ, 20, 26	jaquindu, 1, 2, 3, 14	jaquiñ, 18, 27; jaquindu, 26, 27	jaquin, 8, 21; jaquiñ, 2, 13; jaquindu, 6, 13, 22, 28, 29, 31	jaquindu, 15	
issuri, 20		ischuri, 19, 20		ischuri, 13, 16	ischuri, 13
paltan, 20, 22, 25	faltan, 3	faltan, 1, 12; faltaco, 5, 8	faltaric, 28; faltas, 29	falta, 6	faltaco, 15
gutizi, 22		cutizia, 10, 18	cutizi, 2, 9, 23		
dedin, 24; dediñ, 25		deyen, 29	deien, 8; deilla, 8	deilla, 2	
piña, 24			fiña, 1		
aserre, 11, 25	asarratu, 1	azarratu, 9, 10	azarratu, 7		azarratu, 1
piscabaten, 25; pisca bat, 29	pischcabat, 7	pischcabat, 4, 20, 21, 23, 24; pischcabate- ra, 11	pischcabat, 1, 2, 3, 13, 14, 26	pischca bat, 5	pischca bat, 1, 2; pischcabat, 2, 10
miseriya, 27		miseria, 2, 27 mischerian, 17, 27, 28	mischeria, 3, 5	mischerian, 2	mischeria, 5

<i>Albiste on bat</i>	Berrargitaratzen diren autuak				
	<i>Herejiac euskaldunen artean</i>	<i>Bigarren berriqueta</i>	<i>Terescharen zucaldea</i>	<i>Bi ganbarac</i>	<i>Pello M. ganbara</i>
misericordi, 27	mischericordi, 10	mischericordi, 5			mischericordi, 6
zucen,15, 23; zuzen, 28	chusen- chusen, 15	chusen, 6	chusentzen, 16; chuzendu, 16, 17; chuzena, 22		chuzentzen, 2
erreal, 29	errial, 8, 13		errial, 24	errial, 5	errial, 3, 16
cristauac, 13	crislabac, 14	crislabac, 27	crislabac, 7, 9, 20, 22		cristauac, 14
joan, 8, 19, 20, 22, 29	juan, 3, 13, 14	juan, 1, 2, 6, 10, 15, 16, 17, 19, 22, 23, 24, 25, 26, 27, 28, 29, 30, 31	juan, 1, 2, 5, 7, 12, 17, 18, 19, 21, 24, 27, 30, 32	juan, 1, 2, 6, 14	juan, 1, 4, 6, 9, 10, 11, 12, 13, 15

Bada alderik ere hitzaren amaierako “o/u” aukeran. *Albiste on batek*, beti “mundu” (8, 13, 16, 19, 20), “pecatu” (8, 9, 11, 12, 14 eta abar), “santu” (5, 6, 8, 9, 11 eta abar), “aingueru” (9, 17, 20), “seguru” (14, 15, 16), “castigu” (17) eta hauetan, bi aldaerak, “o” nagusituz⁽⁴⁶⁾: “mundo”, “pecato”, “santo”, “aingueru”, “seguro”, “castigo”.

⁽⁴⁶⁾ *Herejiac euskaldunen artean*, “mundo” (3, 6, 7, 14) eta “mundu” (4, 5), “santo” (5, 13, 16) eta “santu” (7), “seguro” (5); *Pachicuren eta Mañubelen bigarren berriquetan*, “mundo” (2, 5, 10, 12, 19, 20) eta “mundu” (5, 11, 14), “santo” (7, 8, 9, 11, 12, 14, 15, 23, 24, 26, 28, 29) eta “santu” (11, 29), “aingueru” (29), “seguro” (3, 6, 9, 28, 30) eta “seguru” (25); *Terescharen zukaldean*, “mundo” (4, 10, 14, 19, 20, 23, 31) eta “mundu” (15, 20, 23, 30, 31), “pecato” (4, 5, 21, 22) eta “pecatu” (4, 22, 30), “santo” (16, 18, 19, 21, 23, 25) eta “santu” (19, 22, 23), “aingueru” (6, 10, 16), “seguro” (2, 7, 16, 22, 29) eta “seguru” (2, 19), “castigo” (25); *Bi ganbaracen*, “mundo” (2, 7) baino ez, baina “santo” (7, 8, 12, 13, 14, 16) eta “santu” (7, 11, 12), “aingueru” (8, 15), “seguro” (2, 4, 13, 15); *Pello Mariren ganbaran*, “mundo” (13, 16) eta “mundu” (4, 8, 11, 14, 15), “santo” (8, 9, 12, 15) eta “santu” (10, 12, 15), “aingueru” (9, 12) eta “aingueru” (11), eta beti “seguro” (5, 6, 8, 14).

Jauregik, partizipioa eta aditz laguntzailea banantzeaz gainera, ia tesuinguru fonosintaktiko batera zedarritzen du “sandhi”aren erabilera, “ez” eta “z”-z hasitako aditz laguntzailearen topaketara: “etziñatela” (6), “etzayo” (7), “etzenduen” (23)..., “ez zadazue” (13, 23) izan ezik, eta zenbaitetan, emendatzen du “i” eta “z”ren elkarretaratzera: “dizquitzuetan” (13), “zaizquitzuen” (29). Hona ekarritakoez hainbat soinu-talkara hedatzen dute, dela “z” eta “d” —“eztec”⁽⁴⁷⁾, “estacat”⁽⁴⁸⁾, “eztaquit” (*Pello Mariren ganbara*, 6), “eztago” (*Terescharen zukaldea*, 22)—, dela “n” eta “z”, —“esantzac”⁽⁴⁹⁾, “esantzitan”⁽⁵⁰⁾, “zeintzan”, “deitzentzan” (*Herejiac euskaldunen artean*, 1, 3), “emantzion”⁽⁵¹⁾, “izantzala” (*Terescharen zukaldea*, 4), “juantzian” (*Terescharen zukaldea*, 3), “eguintzazu”⁽⁵²⁾, “zartzentzizayon” (*Terescharen zukaldea*, 14), “egontzianian” (*Terescharen zukaldea*, 5), “igotzentzait” (*Pello Mariren ganbara*, 8), “erantzazquic” (*Bi ganbarac*, 1), “jantzazquitzu”⁽⁵³⁾—, dela “l” eta “z”, —“altcia-goc” (*Herejiac euskaldunen artean*, 3),, “altzera”⁽⁵⁴⁾, “afaltzazute”⁽⁵⁵⁾, “altzuen”⁽⁵⁶⁾, “bigaltzac” (*Herejiac euskaldunen artean*, 11)—, dela “r” eta “z”, —“beartzan”, (*Terescharen zukaldea*, 13)—. Baita beste ingurune batera zabaldu ere, “zartzazu” (*Terescharen zukaldea*, 2), “artzac” (*Bi ganbarac*, 12), “artzazu”⁽⁵⁷⁾, “pentzazu” (*Terescharen zukaldea*, 7), “pentzazac” (*Bi ganbarac*, 15), Jauregik “pensa ezazue” (10) eta “artzazue” (18), zein “ar-eza-

⁽⁴⁷⁾ *Herejiac euskaldunen artean*, 2; *Pachicuren eta Mañubelen bigarren berriquetan*, 3; *Terescharen zukaldea*, 2; *Bi ganbarac*, 4; *Pello Mariren ganbara*, 4.

⁽⁴⁸⁾ *Bi ganbarac*, 5; *Pello Mariren ganbara*, 1.

⁽⁴⁹⁾ *Herejiac euskaldunen artean*, 1; *Bi ganbarac*, 11.

⁽⁵⁰⁾ *Pello Mariren ganbara*, 6; eta hitano tratamenduaren ondorioz, *Pachicuren eta Mañubelen bigarren berriquetan*, “esantzican” (15) eta *Terescharen zukaldean*, “esantzitecan”, 29.

⁽⁵¹⁾ *Terescharen zukaldea*, 22; *Pello Mariren ganbara*, 15; *Herejiac euskaldunen arteanen* “emantziyon”, 15; *Bi ganbaracen* “emantziac”, 4.

⁽⁵²⁾ *Terescharen zukaldea*, 22, eta “eguintzuela”, 20. *Pachicuren eta Mañubelen bigarren berriquetan*, “eguintzan”, 11.

⁽⁵³⁾ *Bi ganbarac*, 9. *Terescharen zukaldean*, “jantzaleac”, 14.

⁽⁵⁴⁾ *Terescharen zukaldea*, 29; *Bi ganbarac*, 5; *Pello Mariren ganbara*, 1, 8.

⁽⁵⁵⁾ *Terescharen zukaldea*, 10. Baita “altzan” (14) ere.

⁽⁵⁶⁾ *Pello Mariren ganbara*, 8. Baita “altzaude” (2, 11) ere.

⁽⁵⁷⁾ *Bi ganbarac*, 5; *Pello Mariren ganbara*, 15 eta “artzazute”, 16.

zue” (19), zein “artu ezazue” (23) idazten duenean. Ez dira ebakerara gerturatzeko egindako hautu bakarrak: “ecatzu”⁽⁵⁸⁾, “juanta”⁽⁵⁹⁾, “ilta” (*Pello Mariren ganbara*, 6), “erreza zagun”⁽⁶⁰⁾. Hamarkada batera horrenbeste aldaketa egin ote zituen Jauregik?

Ortografiaren mugarriz haratago, maila morfosintaktikoa atzitzen dute desberdintasunek:

<i>Albiste on bat</i>	Berrargitaratzen diren autuak				
	<i>Herejiac euskaldunen artean</i>	<i>Bigarren berriqueta</i>	<i>Terescharen zualdea</i>	<i>Bi ganbarac</i>	<i>Pello M. ganbara</i>
baizik, 7, 9, 10, 11, 12, 14, 18, 24	baicicanta, 2, 9; basicanta, 5	baicicanta, 14, 19, 20, 26, 27, 30	baicicanta, 14, 16, 18, 19, 24, 31		
emanic, 12, 18	emanta, 15		emantaco, 5		emanta, 15
sarturic, 11	sartuta, 10		zartuta, 14		

Morfosintaxiaren barrutian ez dago inolako bilakaerarik bost elkarriketetan eta *Albiste on batek* hauetan ez zeuden bitartekoak eranstu ditu: justaposizioa⁽⁶¹⁾, lokailuak⁽⁶²⁾ eta izenordain erlatiboak⁽⁶³⁾.

Albiste on bat eta hemen bildutakoak, baliatutako aldaerak (aundi / andi, guzi / guzti...) ez ezik, mailegutzari emandako lekuak bereizten ditu. Hona hiztegiaren erkaketak bistaritzen duena:

⁽⁵⁸⁾ *Terescharen zualdea*, 32 eta “ecatzac”, 27; *Pello Mariren ganbara*, 1, 2.

⁽⁵⁹⁾ *Pachicuren eta Mañubelen bigarren berriqueta*, 30; *Terescharen zualdea*, 30; *Pello Mariren ganbara*, 12.

⁽⁶⁰⁾ *Terescharen zualdea*, 8; *Bi ganbarac*, 7, 9; *Pello Mariren ganbara*, 12.

⁽⁶¹⁾ “Café, taberna, teatro eta eche gaistoetan”, 6; “eritasun, negar, guerra, peste, eriotza eta vicitza onetaco”, 8; “gugatic barau gorri, arantza gogor, azote, neque-oñace eta eriotzaric samin”, 9; “Judio erri madaricatutaco-arrec supri-araci ciozcan burla, azote, arantza-coro, chistu, masalleco eta osticoac?”, 16-17 eta abar.

⁽⁶²⁾ “Au ere aiñ gauza arguia da, nun eciñ ucatu dezaquezen”, 21.

⁽⁶³⁾ “Aita Santuac eman digu aguiri edo paper bat, *Bulda Santua* deitzen dioguna; ceñaren bidez Españiaco catolicoac, beste erreñoetacoac eciñ lezaqueena”, 22.

<i>Albiste on bat</i>	Berrargitaratzen diren autuak				
	<i>Herejiac euskaldunen artean</i>	<i>Bigarren berriqueta</i>	<i>Terescharen zucaldea</i>	<i>Bi ganbarac</i>	<i>Pello M. ganbara</i>
albiste, izenburua, 23	notizia, 14; notiziya, 15	notizia, 9	notizia, 23, 25, 28		noticia, 7; notizia, 14
oso, 1, 10, 11, 13, 16, 17, 21, 23, 25, 26, 27, 28		entero, 11	ozu, 23		
jolas-aldia, izenburua; jolas-aldiya, 5; jolas aldia, 30; jolas, 6, 25, 30	conversaciyo, 2	conversacio, 4, 5; converzazio, 30; berriqueta, izenburua, 1, 3, 6, 7, 8	converzazio, 27; berriqueta, 1, 30	converzasio, 10; conversazio, 30	berriqueta, 4
arreta, 5, 14, 16, 18, 19		atenzio, 22			
iracurri, 6, 28		letzen, 10, 19; letu, 12, 19	letu, 19, 20		letu, 13
igaro, 6; igarota, 7		pasatuco, 24	pasata, 12; pasatu, 14		pasatu, 1
cintzurrian, 7	estariya, 12	eztarria, 6			
ajola, 7			importa, 27		importa, 9
traba, 7		dificultadea, 10			
ordeco, 9; ordezco, 21		sucesorea, 9; succezorea, 14	sucesorea, 20		

<i>Albiste on bat</i>	Berrargitaratzen diren autuak				
	<i>Herejiac euskaldunen artean</i>	<i>Bigarren berriqueta</i>	<i>Terescharen zucaldea</i>	<i>Bi ganbarac</i>	<i>Pello M. ganbara</i>
amar aguinte, 9			mandamen- to, 4; man- damentu, 18		
jarraitzalleac, 9	dicipulo, 1, 14; dizipulo, 15				
jarraitu, 9	seguitu, 15	segui, 22	seguitzen, 9; segui, 23		
escubide, 9, 13, 18, 19, 24, 25	derecho, 7, 8			derecho, 2	
aldiz, 10, 15, 22		bider, 5, 17, 29	bider, 2, 7	bider, 11	bider, 12
bucatzen, 11		acabatu, 31	acabatu, 6, 24		acabatu, 4; acabatzen, 5
une, 11, 14, 15, 24	momentu, 14				
mota, 11, 19, 27	genero, 4	genero, 7	genero, 18, 26, 30, 32	genero, 3, 7	genero, 14
ausardi, 11, 27				atrevimentu, 12	
janari, 11		alimento, 11; janari, 24			
eri, 11, 12, 13		gaschó, 4	gaschó, 11		gaschó, 8
ipui, 11		contu, 9, 30; historia, 22	contu, 5, 29; historia, 3, 4, 10, 13, 15	contu, 2	historia, 13

<i>Albiste on bat</i>	Berrargitaratzen diren autuak				
	<i>Herejiac euskaldunen artean</i>	<i>Bigarren berriqueta</i>	<i>Terescharen zucaldea</i>	<i>Bi ganbarac</i>	<i>Pello M. ganbara</i>
izcuntzaz, 11		lenguagea, 13			
aberiac, 11; pisti, 11		animali, 24	animali, 31		
zati, 12; pusca, 27		pusca, 4, 11, 15; puzca, 11		pusca, 10	puzca, 3; pusca, 10
goranaia, 13			goragalia, 32		
aitatze, 14; aitatu, 24	mentatu, 5, 6	mentatu, 11, 18	mentatu, 28	aitatu, 3, 8	
arcumia, 15		bildochoa, 13			
icendatu, 15			nombratu, 21		nombratu, 15
zaquela, 15		bolchillu, 16, 30; faltriquera, 20		faltriquera, 3	
irentsi, 16			tragatu, 12		
masalleco, 17		matralleco, 2, 10	matralleco, 17, 28	matralleco, 10	
oñace, 20; miña, 14			miñ, 5, 8	miñ, 6	miñ, 5
bidez, 23, 25		mediós, 5	mediós, 6, 10		
beartsu, 26; pobriac, 27	pobriac, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14	pobriac, 4, 5, 9, 17	pobriac, 3, 4, 5, 6, 14, 27	pobre, 3	pobriac, 5

<i>Albiste on bat</i>	Berrargitaratzen diren autuak				
	<i>Herejiac euskaldunen artean</i>	<i>Bigarren berriqueta</i>	<i>Terescharen zucaldea</i>	<i>Bi ganbarac</i>	<i>Pello M. ganbara</i>
betetzen, 26		cumplitu, 15			cumplitu, 15
erantzun, 20, 24, 27, 30, 31	errespuezta, 15		errespuesta, 18		
itzaldi, 27		sermoya, 5, 8, 21			

Bi urtean zehar gizarteratu zirenek hitz bakanen bat baizik ez dute ordeztzen⁽⁶⁴⁾, betiere jatorragoa litzatekeenaren alde eginaz, “nombriac” “izen” agatik trukaturaz, “entero” “ozu” gatik edo “mentatu” “aitatu” gatik.

Argi dago *Albiste on batek* baino gehiago jotzen dutela mailegutzara berrargitaratuek. Maileguok maila berekoak ez direnez, guztien eragilea ezin izan daiteke erakarri nahi dituenengana hurbiltzea. Demagun, erketan jaso den “succesorea” edo kanpoan geratu diren “verificatzen”⁽⁶⁵⁾, “interpretea” (*Pachicuren eta Mañubelen bigarren berriqueta*, 14) zein “facultadea”⁽⁶⁶⁾ zehaztasunen eskakizunek galdatutakoak izan zitezkeela; hau da, arautu gabeko hizkuntza batean idazten ari zenez, doitasunaren ize-nean, badaezpada, araututako hizkuntza batetik mailegatzeari lehentasuna eman ziola. Esaterako, *Herejiac euskaldunen arteanen* “absoluzioare-

⁽⁶⁴⁾ Berez, hemen jasotzen den lehenarekin hasten da. *Herejiac euskaldunen arteanen* “Bañon alferric dabiltsá” (16), honen aurreko edizioan, *Herejiac euskaldunen arteanen* “Bañon en valde dabiltsá” (13) baitzion.

⁽⁶⁵⁾ *Pachicuren eta Mañubelen bigarren berriqueta*, 14. *Terescharen zucaldean*, “verificatzeco”, 19 eta “verificatua”, 20.

⁽⁶⁶⁾ *Pachicuren eta Mañubelen bigarren berriqueta*, 14; *Terescharen zucaldea*, 20, 22, 23, 31.

quin” (14) jartzen badu ere, ez da “barkatu” ezezagun zuelako, ezta “barkazioa” bera ere (*Pello Mariren ganbara*, 5). Hitz horien erabiltzaileak maisuak izanik, sinesgarritasunari eusten zion, nahiz eta ez izan egokie-
nak ezjakinengana gerturatzeko. *Albiste on batek* antzeko maileguak baz-
tertu ez arren, bestela jokutzen du: euskarari tradizioa duena hobetsiz
eta honen aldamenean zehatzen hautemandakoa itsatsiz, “absolucio edo
barcacioa” (19), “barcamen edo indulgenciac” (20), “pecha edo contri-
bucioac” (21, 22), “papel edo chartelac” (25), “pesta edo funcio bat”
(26). Bost berriketetan, berriz, behin hartzen da erabaki hori: “estrang-
guladoreac edo gende itozalleac” (*Terescharen zukaldea*, 24).

Dena dela, zeinahi maileguren sorburua ez da zorroztasuna: “entre-
vista”, “admitituco” (*Herejiac euskaldunen artean*, 1, 3); “preferenzia”,
“habitante”, “diferencia”, “pretextoa” (*Pachicuren eta Mañubelen bigarren
berriqueta*, 13, 16, 25, 27); “peligro”, “soziedad”, “asesinoac” (*Terescha-
ren zukaldea*, 14, 24, 26); “sugetatzen” (*Bi ganbarac*, 13); “Padre Nuestro”
(*Pello Mariren ganbara*, 12); “cambiatu”⁽⁶⁷⁾, “obligazio”⁽⁶⁸⁾, “explica-
zioac”⁽⁶⁹⁾, ia guztiak agerrera bakarrekoak, eta hauez gainera, alderake-
tara batutako beste batzuk, “entero”, “dificultadea”, “medios” edo
“errespuesta”, kasurako. Ezbairik gabe, hainbat mailegu hizketa herri-
koia islatzearen ondorioa dira, irabazi gura dituenengana hurreratzea,
nola “señora”, “caballero”, hala ezjakinen berbeta zipriztintzen duten
esaera adierazkorrak, adibidez.

“Señora” eta “caballero”ri, “andre” eta “jauna”ri, leku egiten zaie
esanahiak bereiziz. “Caballero” deitzen dute etxez etxeko ongintza-lane-
tan ibiltzen den gizakumea, ongintza ermandadeko kidea eta, “señora”,
“andrea” baino gorago behatzen dutena, ongintzaz arduratzen direnez
bestalde, behin Ama Birjina eta beste batean Jesu Kristo aurretiko

⁽⁶⁷⁾ *Pachicuren eta Mañubelen bigarren berriqueta*, 10, 13; *Terescharen zukaldea*, 14.

⁽⁶⁸⁾ *Pachicuren eta Mañubelen bigarren berriqueta*, 26. Baita “obligatu”, 16, ere. *Terescharen zukaldea*, 16, 20.
Herejiac euskaldunen artean “obligatuba”, 10, “obligatu”, 14.

⁽⁶⁹⁾ *Pachicuren eta Mañubelen bigarren berriquetan*, “explica”, 12, “explicatzeco”, 14; *Terescharen zukaldean*,
“esplicazioac” edo “explicazioac”, 23.

ezkontzetako emakume gailenak izendatzeko baliatzen baita. Esaera adierazkorrek ere garaiko lekukotasuna jasoko zuket: “guapoqui bici-tzea”, “guapoac eta frescoac” (*Pachicuren eta Mañubelen bigarren berriqueta*, 19, 27), “venga”, “venga afaria” (*Bi ganbarac*, 3, 10), “venga, venga”, (*Terescharen zucaldea*, 7), “buena gente” (*Terescharen zucaldea*, 27), “buen provecho” (*Bi ganbarac*, 1) eta konfiantza giroko jardunean ohiko izan zitezkeen hauei fintasun eskasekoren bat eransten zaie, lehenbizi, iradokiz, “a la M...” (*Terescharen zucaldea*, 7), eta gero osatuz, “a la mierda” (*Bi ganbarac*, 12), “igualak” eta “libreak” garela uste duen Joxe Migelen seme Paskualen bitartez.

Oro har, mailegutzak bi iturri ditu, bata letratik dator, bestea, aho-tsetik; izan ere, alde batetik, egiazko erlijio bakarra solasgai dutenean, irakurritakoa ahalik eta zehatzen ezagutaraztetik jariatzen da eta, bestetik, barruti horretatik kanpo entzundakotik.

Idazkeran helburua betetzeak agintzen du. Izena jakinarazteko asmorik ez zuenez, ezta gerokoentzat ondare bat lagatzea ere, mamitu ziren garaiko egoera lehenbailehen mudatzea baizik, paratzaileak ez zuen jokoan jartzen bere sona. Idazlearen hizkuntza-gaitasunak baldintza zitzakeen arren, ezjakinetara hurbiltzeak ardazten ditu, zelan argibideetan, halan adierazteko moduan. Argibideetan, esan bezala, azalpenen artean osagai aringarriagoak sartzen ditu, funtsa dutenak funsgabeekin tartekatuz, edo istorioak kontatuz... Agertzeko erari dagokionez, bi lehentasun ditu, nahiz eta kontrako norabidekoak izan: bata, egiazko erlijioaren eustazpitzat jotzen dituen testuak doitasunez ematea; bestea, horren aurkakoa, berbetan oinarritzea, ortografia ebakerara gerturatuz, joskeran, euskalkiko mintzatzaileek erabiltzen dituzten loturetara atxikiz eta, hiztegian, oro har, hedatuen zeuden hitzetara mugatuz.

Soilik, anonimatuak, generoak eta Eliza Katolikoa babesteak uztartzen ditu *Albiste on bat* eta berrargitaratuak. Bereiz zitzakeen bilatzen zuten balizko hartzaileak, baina idazketaren erkaketak erakutsitako alde guztiak norentzakoari egotzi dakizkioke? Zentzuzkoagoa dirudi urrun-tzen dituenaren jatorria ontzailean tokitzea, batzuk eta bestea esku des-

berdinetik jaiotakoak izatea, alegia. Senak zailago luke Jauregik zortzi-hamar horietan izandako bilakaera zehaztea, dela hiztun-mandataria eta eztabaida baztertzen zuten bost solason ostean justu bitarteko horiei oratzea, dela ahoskatutakoaren eta idazketaren arteko tartea handitzea, dela hizkera herrikoitik jasora igarotzea, dela orduz gero euskarazko testuak irakurtzen jardutea, donostiar batek sorburu horretatik baino ezin beregana zitzakeelako *Albiste on batera* ekarritako zenbait joskera... *Euskal-Erriari* bigarrenenez argitaratzean, bere izena ipini zuenean, orduko euskal idazle eta itzultzaile batek hizkuntza-kontu bat argitzeko eskatu zion. *Laborantzako liburua* autuaren egile Duvoisinek ezezagun zuen Jauregiri 1885eko martxoaren 29an gutun bat igorri zion, ez bakarrik zoriontzeko, baita irakurketak eragindako galdera bat egiteko ere: “Vous n’avez sans doute pas besoin des éloges et applaudissements d’un inconnu; mais puisque je suis amené sur votre terrain par une question de linguistique basque” (Daranatz, 1931, 324). Hurrengo mendean, Euskaltzaindiaren *Orotariko Euskal Hiztegiak* euskarri izango zuen testu-bildumaren hautatzaileek Jauregiren elkarrizketa ere gaineratu zuten.

Egiletzari lehenbizi heldu zaionean aipatu diren zalantzei oraingoak emendatzen zaizkie. Azken hitza amaieran.

4.2. Berminghamek argitaratutako liburuxkak

Liburu honetara batutakoekin batera, beste molde batean gauzatutako *Erligio eguiazcoaren siñaleac eta protestanteen liburua* iracortzeco eleizaren *debecua*, tartean *ejemplo batzuequin*en bi edizio kaleratu zituen Joakin Berminghamek. Xede orokorrak ez ezik, didaktikotasunak elkartzen ditu denak: egiazkoa erlijio bat eta bakarra izatearen funtsak jakinaraztea eta zeregin-a betetzeko argumentazioari leungarriren bat itsastea. Aringarri horietako bat istorioen kontakizuna da, argumentazioaren zerbitzura jarritz: baliabideak konbinatuz irakatsi.

Erligio eguiazcoaren siñalecek egitura finkoa du: galdera, erantzuna, etsenplua. Erantzuna baino luzeagoa den etsenpluaren eginkizuna da ihardesprenaren azalpena arintzea eta, aldi berean, hura indartzea, biak ikaskizun berbera helarazteak lotzen baititu. Prestakuntza gutxikoengana bideratuak izanik, entretenigarriagoa denari oratzea lagungarri zen. Hortik harat aldenduz doaz, generoaz bestalde, batez ere, idazketa-moduak banantzen dituztelako.

Argitaratzaile bera izan zutenotan bada nobedaderik solasen idazketarekiko, izenburutik bertatik hasiz, haietan “letu” baizik ez, hemen, “iracorri”.

Berrargitaratzen direnen eta ez denaren arteko desberdintasunak idazketa-maila orotara hedatzen dira. Ortografiari dagokionez, ezuste-koena euskal hitz gutxi batzuei “h” hizkia gehitu izana da, beti “hume” (5, 6, 8, 11, 16) idatziz, “itz” (5, 8, 10, 12, 13, 15, 16, 17) zeharo nagusitu izanagatik, behin edo behin “hitz” (9, 12), baina deigarriena da hizki horren bidez erakuslea (hura, 6, 13) eta isurkaria (ura, 6) bereizi izana. Badira “h”a daramaten berbak berriketetan, guztiak gaztelanietatik mailegatuak⁽⁷⁰⁾, agerrera bakarrekoak diren hiruren salbuespenarekin: “hi” (*Herejiac euskaldunen artean*, 5), “¡Ohi Terescha!” eta “abi, abi, abi” (*Terescharen zualdea*, 1). Maila bereko gizonetzkoen arteko harremanean hitanoa baliatu izanagatik “i” ugari daudenez, zalantzarik gabe, akats baten ondorioa da, eta ezin zedarritu interjekzioen adiera dutenen iturburua, hor eta behin besterik ez direlako erabiltzen.

Beste testuinguru batean ere tokia egiten diote “h” hizkiari. *Erligio eguiazcoaren siñaleac* “x” soinua “sh”-rekin transkribatzen du —“maishu” (13, 14 eta abar); ishuri (11, 12); “ishilltasunac” (9)— eta autuok

⁽⁷⁰⁾ *Bi ganbarac* kenduta, gainerakoetan maiztasun handia duen “herejiac” hitzaz eta *Herejiac euskaldunen arteanen* izan ezik, beste guztietan azaltzen den “Ah” interjekzioaz bestalde, “habitante” (*Pachicu eta Mañubelen bigarren berriqueta*, 16), “historia” (*Pachicu eta Mañubelen bigarren berriqueta*, 22; *Terescharen zualdea*, 3, 4, 10, 13, 15; *Pello Mariren ganbara*, 13), “humore” (*Terescharen zualdea*, 17; *Bi ganbarac*, 9), “hospitala” (*Terescharen zualdea*, 5; *Pello Mariren ganbara*, 6), “hazienda” (*Bi ganbarac*, 3) “hondradu” (*Terescharen zualdea*, 5, 25), nahiz eta “ondradu” ere azaltzen den (*Pachicu eta Mañubelen bigarren berriqueta*, 30; *Pello Mariren ganbara*, 14).

“sch”-rekin —“ischuri”, “ischillic”, “erresch”, “goschoa”, “pischcabat”, “bischigu” (*Terescharen zucaldea*, 1, 3; *Bi ganbarac*, 1)...— eta bat egiten dute “tx” soinuei egotzitako grafemarekin, “ch”, nahiz eta aurreneko elkarrizketan, Patxiku eta Mañubelen arteko lehen berriketan, “x”-ra ere zabaldu zuen (cotche, 9; etchietara, 8, 9).

Hiatoa markatzeko autuek sartzan zuten kontsonante epentetikoa baztertzeaz gain, ortografian alde franko daude. *Albiste on* batekin erkatzean bildu direnekin hasiz, elkarrizketetako “erreligiyo” edo “erreligio”, *Erligio eguiazco siñaleacen*, “erligio” (izenburua, 5, 6, 7, 8, 10, 11, 12, 13, 14, 16) da; “cristabac” nahiz “cristauac”, “cristaüac” (5, 6); “mutill”, “mutil” (6); “bai”, “bay” (9); “fraile”, “fraide” (10, 16) edo “fralle” (12); “etera”, “atera” (16, 17); “bañon”, “baña” (6, 7, 10, 11, 15, 17); “gaschto”, “gaizto” (10, 11, 12, 13, 15); “gaschtaqueri”, “gaiztaqueri” (12, 13); “libru”, “liburu” (10, 12, 13, 15, 16); “schifnisten”, “sinisten” (3, 7, 11, 12, 13); “izandu”, gehienetan, “izan” (6, 7, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15), noiz edo noiz “izandu” (11, 14); “orla”, “orrela” (8), “orrelaco” (5), “orretatic” (12); “errial”, “errealeco” (10); “deyen” bai “deien”, “dedin” (14); “pischtu”, “piztu” (15); “alferric”, “alperric” (11); “diabru”, “deabru” (7, 13); “ainbezte”, “ambeste” (11, 12); “maisuba” zein “maizu”, “maishu” (13, 14, 15, 16, 17) edo “iracastle” (14); “eguintaco”, “eguindaco” (6, 9, 14); “beñepen”, “benic beñ” (5); “orduban”, “orduan” (6, 8, 17); “pentzatu” edo “penzatu”, “pensatu” (9, 15); “iriqui”, “iduqui” (7, 8, 10); “aitu”, “aditu” (6, 7, 8, 10, 11, 15, 16); “iruri”, “iruditu” (9, 15); “erresch”, “erraz” (7); “Eliza”, “Eleiza” (izenburua, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 14, 16, 17); “intenzio”, “intencio” (11); “abo”, “ao” (13, 16); “falso”, “palso” (5, 7, 12); “ischillic”, “ishilltasunac” (9); “jaquindu”, “jaquin” (6) baino ez; “ischuri”, “ishuri” (11, 12); “azarratu”, “aserre” (5); “pischca bat”, “pisca bat” (11); “chusentzen” nahiz “chuzentzen”, “zuentzen” (3, 8, 9, 12, 15, 16, 17); “juan”, “joan” (7, 8, 15); “juanta”, “joanda” (11).

Hona aipatuei gehitzen zaizkienak:

<i>Erligio eguiazcoaren siñaleac</i>	Berrargitaratzen diren autuak				
	<i>Herejiac euskaldunen artean</i>	<i>Bigarren berriqueta</i>	<i>Terescharen zualdea</i>	<i>Bi ganbarac</i>	<i>Pello M. ganbara</i>
siñalea, izenburua, 11, 12, 13			señalea, 12		
purrucatu, 3, 16		porrocatu, 10, 18, 19, 24, 32	porrocatu, 12, 18, 25		porrocatu, 2, 13
zoazte, 7			zuaz, 8, 26; zuazte, 32	zuaz, 12; zuazte, 13	zuaz, 3
dotriña, 7, 11, 12, 13, 14, 15, 16		doctrina, 7, 10, 17, 29, 30, 31	doctrina, 23, 24, 25, 26	doctrina, 3	doctrina, 13, 14
itzcribatu, 6, 7, 10, 12, 14, 15	escribitu, 1, 14	escribitu, 12, 13	escribitu, 11, 19, 21, 22	escribitu, 8, 15	escribitu, 12, 13
poz, 7			poschas, 23		
baldin, 7, 9, 10; baldiñ, 12	balin, 8, 10, 11, 12, 16	balin, 1, 3, 5, 7, 17, 18, 19, 22	balin, 7		
cizayon, 6, 8, 10, 13, 15; zizayon, 13; citzayon, 11			citzayon, 12; cizayon, 13		
visitatzaera, 8		bizitatzen, 4; bisitatzen, 5	bicitatzen, 6		bizitatzen, 8; vizitatzen, 8
arequin, 8; haren, 8; aren, 11, 12, 13; arc, 9, 10, 14	arrequiñ, 12; arrec, 13, 15; arren, 14	arrequiñ, 30; arrec, 14, 18, 23, 27; arren, 1, 7, 8, 10, 11, 14	arrequiñ, 14; arren, 4, 5, 6, 12, 14; arrec, 4; arrentzat, 12; arri, 13	arren, 15; arrec, 14, 15; arri, 3, 7, 8	arren, 15; arri, 16

<i>Erligio eguiazcoaren sinaleac</i>	Berrargitaratzen diren autuak				
	<i>Herejiac euskaldunen artean</i>	<i>Bigarren berriqueta</i>	<i>Terescharen zucaldea</i>	<i>Bi ganbarac</i>	<i>Pello M. ganbara</i>
infernu, 7, 8, 16	impernu, 5, 16	impernu, 13	impernu, 20, 24	impernu, 8, 12, 13, 15, 16	impernu, 12, 15
herege, 12; heregeen, 9; heregeac, 15, 16	hereje, 8, 14; herejien, 3, 4, 5, 6, 8, 12, 13, 14, 15, 16	hereje, 6, 7, 9 etab. herejien, 7, 12, 14, etab.	hereje, 6, 7, 32; herejeac, 31		herejien, 13, 14
idiquitzia, 9	iriquiyac, 11	iriqui, 14, 25	iriqui, 31, 32	iriqui, 10	iriqui, 3, 6, 10, 15
aushe, 7, 9		ausché, 18			
batayatuaz, 7; batayatzen, 14	batiatzeco, 6; batiuarenca- tic, 7; batiuen, 8				
bialdu, 12, 13, 14	bigal, 11		bigaldu, 14, 20	bigaldu, 6	bigaldu, 6, 12
ceñ, 9	cein, 6, 7		cein, 8, 31; zeiñ, 17	zein, 15; zeiñ, 15	cein, 3; zeiñ, 5, 6
bidagea, 10		viage, 5, 6, 22			
eserita, 11			ischiri, 9, 10		
millagro, 14, 15	milagroz, 10	milagro, 3, 7	milagrosoa, 10, 15; milagrozoa, 13		

<i>Erligio eguiazcoaren siñaleac</i>	Berrargitaratzen diren autuak				
	<i>Herejiac euskaldunen artean</i>	<i>Bigarren berriqueta</i>	<i>Terescharen zualdea</i>	<i>Bi ganbarac</i>	<i>Pello M. ganbara</i>
emendic, 12		emendican, 15; emendic, 29	emendican, 14, 23; emendic, 14, 15	emendican, 2; emendic, 7, 13	emendican, 10; emendic, 15
adierazten, 16		ariazten, 2, 3		ari-azten, 5	
prochuric, 16				provechu, 4, 11	
onembestez, 17			onemezte, 21	onemezte, 5	

Solasak ez bezala, *Erligio eguiazco siñaleacek* badu irizpiderik berba amaierako “o/u” zehazteko, beti “mundu” (7, 13, 14), “pecatu” (13), “santu” (3, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15), “seguru” (7, 8), “castigu” (13, 17). Baita “mandamentu” (9, 10), “prestu” (3), “sakramentu” (9, 11, 13), “apostolu” (5, 8, 13, 14, 15), “frutu” (7) ere, haiek bitasunari eutsiz dirauten bitartean⁽⁷¹⁾, “apostolo”⁽⁷²⁾ eta “fruto”⁽⁷³⁾ hitzarekin izan ezik.

Partizipioa eta aditz laguntzailea banantzen ditu eta gutxi jotzen du shandira. Bi “z”en arteko talkari (“etcequiela”, 6; “etcien”, 6; “etzu-

⁽⁷¹⁾ *Terescharen zualdea*, “mandamento” eta “mandamentu”, 18; “sacramento”, 18, 19 eta “sacramentu”, 20, 31. *Pachicuren eta Mañubelen bigarren berriquetan*, orrialde berdinean, “presto” eta “prestu”, 2. *Pello Mariren ganbaran*, “prestu”, 11, 15 eta “presto”, 12, 16.

⁽⁷²⁾ *Herejiac euskaldunen artean*, 2, 5; *Pachicuren eta Mañubelen bigarren berriqueta*, 8, 10, 12, 13, 14, 28; *Terescharen zualdea*, 9, 20, 21, 22; *Pello Mariren ganbara*, 8.

⁽⁷³⁾ *Pachicuren eta Mañubelen bigarren berriqueta*, 28; *Bi ganbarac*, 5.

ten”, 6, 8; “etzuen”, 7, 8; “etcion”, 8; “etcegoen”, 8; “etzan”, 10, 15; “etcerate”, 14), behin edo behin “z” eta “b”ren arteko topaketa (“ezpada”, 7, 11, 13, 14; “ezpacigun”, 7; “ezpalitzaque”, 11, baina horien aldamenean: “ez bazuen”, 10) eta “i” “z”ren elkarketa (“zaizquitzute”, 3; “itzatzute”, 7) batzen dizkio.

Halaber, ortografian gidalerroa dauka. Hitzak etengabe berdin idazteaz bestalde, akatsak ekiditen dituen bakarra da. Argitaratzaile bera izan bazuten ere, *Erligio eguiazcoaren siñaleacen* edizioa berrargitaratuena baino askoz zuzenagoa da.

Alderdi morfosintaktikoan ere bada berririk: berriketen sasoi berean argitaratua izanagatik, bederatzi urte geroago argia ikusi zuen *Albiste on batetik* hurbilago dago, honek legez, beti “baicik” (9, 11, 12) ipintzeak, partizipioari “ic” atzizkia itsasteak, “izanic” (3, 11, 14), “eguiñic” (7), “sarturic” (9), “emanic” (13), “arrituric” (17) eta lokailu eta izenordain erlatiboak baliatu izanak erakusten duenez. Haatik, gertuago egon arren, lehenago plazaratu zena ondokoa baino aberatsagoa da. *Erligio eguiazco siñaleacen* egileak, “non” (6, 7, 12) eta “nun” (6, 7, 16) lokailuak ez ezik, Jauregiren elkarrizketan agertuko ez diren loturak ere erabiliak zituen eta, dela “alabaina” (8, 10, 12, 13), “ecen” (8, 9, 16), “ordea” (9, 16) eta “ostera” (12, 17), dela beste izenordain erlatiboak txertatzea, “ceñac” (8), “ceña” (9, 11), “ceintzuen” (6), dela “bai” menderagailua: “baña nola gorrac bai ciran, etcien entzun” (6), kasurako.

Bide bera ibiliko da hiztegiaren erkaketan, aurrenik, *Albiste on batekin* alderatzean bildutako hitzekin hasiz eta jarraian osatuz. Elkarrizketetako “entero” edo “ozu” liburuxka honetan “oso” (11, 12) da; “conversacio” zein “berriqueta”, “jolasa” (8, 17); “atenzio”, “arreta” (8, 10); “andi”, “aundi” (5, 6, 7, 9, 10, 13, 14, 15, 17); “letu”, “iracorri” (izenburua, 15, 16) nahiz “iracurri” (3, 9); “pasatu”, “igaro” (9, 11, 13); “dificultadea”, “eragotzico” (17); “succesorea”, “ordezco” (14); “dicipulo”, “icasle” (7, 8, 12) zein “jarraileac” (12, 14); “derecho”, “escubide” (14, 15, 16); “acabatu”, “bucatu” (17); “atrevimentu”, “ausardia” (11, 16); “lenguagea”,

“itzcuntza” (3, 15); “mentatu”, “aitatu” (14); “nombratu”, “icendatu” (5, 12, 15); “miñ”, “oñaceac” (6, 11); “mediós”, “bidez” (9, 12, 15) edo “bide” (13); “cumplitu”, betetzen” (10); “errezpueztza”, “erantzun” (8, 9, 16, 17), baita “sermoya” (9) eta “itz-aldi” ren (7) adierak bereizi ere.

Izendatutakoei honakoak emendatzen zaizkie:

<i>Erligio eguiazcoaren siñaleac</i>	Berrargitaratzen diren autuak				
	<i>Herejiac euskaldunen artean</i>	<i>Bigarren berriquetta</i>	<i>Terescharen zucaldea</i>	<i>Bi ganbarac</i>	<i>Pello M. ganbara</i>
perill, 5, 12			peligro, 14		
mudatu, 5; aldaera, 7; aldatuaz, 8		cambiatu, 10, 13	cambiatu, 14		
beticoera, 5			eternidade, 4		
estura, 6			tranze, 14; trance, 15		tranze, 6
ishecac, 6			burla, 19	burla, 3	
odei, 6					oroyetan, 15
oroitzen, 6; gogoratu, 6; gogora ecartcea, 6	acordatzen, 4, 9, 14; oroitzen, 13; oroituco, 13	oroitzen, 2; oroitzea, 6; oroituco, 9	oroitu, 13, 18	oroitu, 3; oroituco, 8; oroitze, 14	oroituaz, 11; oroitzea, 9
guichitu, 6; guichien, 10	guchi, 11	guchienas, 7, 11; guchirequiñ, 17	guchi, 2; guchiena, 2	guchi, 9	guchirequiñ, 4
estali, 6					tapa, 1; tapatzera, 2

<i>Erligio eguiazcoaren siñaleac</i>	Berrargitaratzen diren autuak				
	<i>Herejiac euskaldunen artean</i>	<i>Bigarren berriqueta</i>	<i>Terescharen zucaldea</i>	<i>Bi ganbarac</i>	<i>Pello M. ganbara</i>
irichi, 6, 13; iristen, 6; iriste, 8, 9		allegatzen, 24, 25	allegatzeco, 11; allegatu, 29		
aleguinic, 7; aleguiñ, 9; empeñu, 13			enpeño, 10		
brecitu, 8; brecitzen, 12; apartatzen, 16	separatzen, 14				
oitura, 10, 13		costumbreac, 10, 12, 17, 19	costumbreac, 17, 30, 31		
jaureguia, 11	palaziyo, 2; palaciyo, 10; palazio, 11				
aulquia, 11, 12	silla, 9				
banatzen, 11; banatu, 14		errepertitzen, 16, 26			
egoera, 11					estadu, 7
ingurumai, 11		parage, 10			
ostera, 12; berriz, 8, 16		berriz, 21	berriz, 2, 29, 31	berriz, 3, 9, 11, 14, 16	berriz, 3, 6, 9, 11, 15

<i>Erligio eguiazcoaren siñaleac</i>	Berrargitaratzen diren autuak				
	<i>Herejiac euskaldunen artean</i>	<i>Bigarren berriquetá</i>	<i>Terescharen zucaldea</i>	<i>Bi ganbarac</i>	<i>Pello M. ganbara</i>
epaya, 13			sentencia, 4		sentenziá, 15
sari, 8, 13					premiá, 7
deadarca, 13		ojuca, 1, 2, 21	ojuac, 11; ojuca, 13		
atceneco, 13; azquenengo, 13	asqueneco, 14; azquenecó, 15	azqueneco, 14, 28	azqueneco, 4, 10, 15	azqueneco, 9, 15, 16	azqueneco, 3, 11, 12, 15
arrotsac, 14			estrañori, 17		
itzultze; itzuli, 17	itzuli, 16	vueltatzen, 28	vuelta, 12, 15; itzuleguiñ, 19; vueltatzen, 22		
carrica, 17			caleiz cale, 17; calean, 27		

Hiztegiaren mailan ere hurreago dago *Albiste on batetik berrargitaratu*etatik baino, bi liburuxkon ontzaileak era garbizaleagoan jokatu dutelako. *Erligio eguiazcoaren siñaleac*enak jada egotzia zion “edo” juntagailuari maileguari euskarazko ordaina atxikitzeke eginkizuna: “burusai edo Gefeac” (6), “bat-eratzten edo juntatzen” (6), “carta edo escut itz” (10), “sendaguiñ edo medicu” (11), “bereizgarri edo siñalea” (12), “artzay edo Obispoac” (14).

Erkaketak bistaratu du solasen hainbat maileguri beste irtenbide bat eman ziela, eta uste izatekoa da jaso ez diren beste zenbait ere —esaterako, “facultadea”, “admitituco”, “explicacioac”, “asesinoac”, “encar-goia” — saihestuko zituela *Erligio eguiazcoaren siñaleacen* idazleak. Ez dira ekarri berba horiek ordezkia zitzaketen forma zehatzak egon ez zeudelako, baina, erabiltzen dituen “gai izan”⁽⁷⁴⁾, “ontzat eman”⁽⁷⁵⁾, “azalduera”⁽⁷⁶⁾, “illeraci”⁽⁷⁷⁾, “mandatariac”⁽⁷⁸⁾ hitzen oinarriekin, gauza zen aipatutako maileguak ekiditeko.

Bi ohar gehiago Bermingham argitaratzailearen liburuxkek ez zutela izan paratzaile bera azpimarratzeko. Bata da bost autuetan maiztasun handia duten “gure” edo “bera” erakusleen indargarria inoiz ez agertzea eta bai *Erligio eguiazcoaren siñaleacen*: “guere” (5, 7); “berpera” (12, 13, 14). Bestea da banantzen dituen elkarketa bat: maisurik gabeko *Bi ganbaracek* izan ezik, bi generoetakoak pasarte batek batzen ditu, egiazko erlijio bakarra katolikoa izatearen funtsak jakinarazteak, eta adierazteko erak banantzen: “Eta nic diotsut, zu cerala Pedro (ceñac esan nai duen arria) eta arri onen gañean alchaco detala nere Eleiza, eta infernuco atea beraren contra garaituco ez dutela” (8). Simon apostoluaren izen-aldaketa azaltzeko moduak ere bereizten du⁽⁷⁹⁾ lau elkarrizketetatik. Ezbairrik gabe, *Erligio eguiazcoaren siñaleac* idatzi zuenak bazuen euskal testuen berri eta ez du jaregiten.

⁽⁷⁴⁾ “eta era onetan icasi zuen bere dudac deseguiteco gai izan citequean gucia”, 10.

⁽⁷⁵⁾ “protestante bati ontzat emango nioque catolico eguitea”, 10.

⁽⁷⁶⁾ “ez iracortzeco beren itzcuntza jaquiñetara itzulitaco Escritura Sagraduco liburuac, nun eta ez dauden Eleizac ontzat emanac, eta berac ondo aditzeco azaldueraz lagunduc”, 16.

⁽⁷⁷⁾ “eta bere arrabi vician sendaguiñ batzuec illeraci ere baicituen”, 11.

⁽⁷⁸⁾ “protestanteen mandatariac añ ugari banatzen dituzten liburuac”, 16.

⁽⁷⁹⁾ Aipuaren aurretik argitasun hauek ematen dira *Pahicuren eta Mañubelen bigarren berriquetan*: “**Jesu-Cristoc** artuzuenian san Pedro bere apostoloen artean, onen izená zala *Simon*, eta izen ori cambiatu eta esanciola andican aurrera deitucozala *Pedro*, eta gueroago icusizan **Jesu-Cristoren** intenzioa, Simon bere apostoloari jarricionian izen ura. Simon apostoloac izan biarzuen **Jesu-Cristoren** erreligioaren *arria*, eta oraíñ comprendituco dezu cergatic deituzuen *Pedro* edo *arria*” (13). Askoz laburragoa da *Erligio eguiazcoaren siñaleace*koa: “Eleiz onen buru Jesu-Cristoc eguin zuen San Pedro, lenago ceucan icena Simon aldatuaz” (8).

Bada bestelako alderik ere benetako erlijioa bat baino ez dela ezagutarazteak lotzen dituenotan: zeregina betetzeko tankera, mamitu ziren garaiko gertaerei eskainitako tokia, hizkera-erregistroa eta tonua. Izenburuak iragarri legez, *Erligio eguiazcoaren siñaleacen* bi zati daude: lehen honetan seinaleak jorratzen ditu, hau da, egiazko sinesmena du berbal-di-sortzaile; aitzitik, solasetan “besteen” esanak dira hizketaldiaren sus-tatzaile (aurreneko bi berriketetan izenburuan bertan dago “herejiak” hitza). Gisa berean ez dute irakasten. Seinaleez arduratu ostean koka-tzen da idazketaren orainaldian, bigarren atalari oratzean, *eta protestanteen liburuac iracortzeco eleizaren debecua*, eta gaztigatutakora zedarritzen da. Elka-rrizketek, aldiz, beren egunetako jazoerak soilik dituzte hizpide-eragile.

Orobat, hizkera-erregistroak eta tonuak urruntzen ditu. Urte berean bost liburuxka argitaratu ziren, bost horietako lau autuak, donostiarrren ahoskerara gerturatuz osatuak, ez horrela bosgarrena, beste molde bate-koa zena; izan ere, *Erligio eguiazcoaren siñaleacek*, ebakera eta idazkeraren arteko tartea zabaltzeaz gainera, Donostiako lokalismoak ez ezik, gipuzkeraren mugarriak ere gainditzen zituen, eta elkarrizketek zerabil-ten hizkera herrikoia landuarengatik ordezten zuen. Tonuari dagokio-nez, genero desberdinekoak izanik, alderaketa ez da homogenea bi ezaugarriengatik: *Erligio eguiazcoaren siñaleac*, solasak ez bezala, ahots bakarrekoa da eta aurrean ez daukanari zuzentzen zaio. Heterogeneota-suna onartuz, hark tonu formal eta serioari eusten dio eta berriketetan hiztunen mailak ezartzen du, tonu formal eta serioa ongile-maisuek bes-terik ez: ezjakinek, berriz, zenbaitetan seriotasunarekin hausteaz bestal-de, emozioaren bulkada ez dute alboratzen. Ezaugarri adierazgarriok ere izan zezaketen zerikusirik aukeratutako argitalpen-lekuarekin: denen argitaratzailea izan zen Bermingham donostiarrak lau elkarrizketa Baio-nako bi argialetxetan inprimatu zituen urte berean, beste egitura bate-koa zen bosgarrena, bere bizilekuan; haiekin gobernu berriaren aginpi-detik ilki zen, ez hala honekin. Horra Berminghamek babestu zituen liburuxkak batzen eta banantzen dituen.

Nahiz eta egile berak ez zituela burutu agerikoa izan, azken hitza. Berminghamek 1869an kaleratu zituen bost liburuxkak esku beretik baletoz, ontzailea urte horretan bi bide eginaz ibiliko zen, generoa trukatzean idazketarako irizpideak mudatuz, hizkera herrikoia eta jaso txandakatuz, alegia. Horrenbestez, Berminghamek biri luzatu zien eskaera edo bati, autuen argitaratze lanari idaztearena emendatuz.

Egiletasunaren gorabeheraz aritu direnek bat egiten dute Berminghamek gizarteratutako liburuxkak idazle berari xedatzean; desadostasuna izena finkatzean dago; batzuek, horien artean Akesolok zein Haranburu Altunak, Jauregi izendatzen dute; T. Berminghamek eta Bilbaok, ostera, argitaratzaile berbera.

Hizkuntza-erregistroaren ikuspuntutik *Erligio eguiazcoaren siñaleacek* hemen bildutakoekin baino antz estuago du generoak eta argitalpen-urteak bereizten dituen Jauregiren *Albiste on batekin*, biek hizkera jasora jotzen dutelako. Halere, ez dirudi Berminghamek apaiz horri galdatu zionik idazketa. Izendatu diren bi liburuxken eginkizuna berrargitaratuak nork moldatu zituen argitzea denez, ez dira aurrez aurre ipini, baina hona ekarritakoekin alderatzean bistaratutako hainbat xehetasunek aditzera ematen dute *Erligio eguiazcoaren siñaleac* eta *Albiste on batek* ez zutela izan paratzaile bera, idazkera-moduan atzematen diren zenbait aldaketa nekez azal daitezke eta. Esaterako, Jauregi balitz *Erligio eguiazcoaren siñaleacen* egilea, zer dela eta, bederatzi urte lehenago “hura” hobetsi duenak, elkarrizketan “h” ezabatu eta erakuslea beti “ura” jarri? Zer dela eta, hiatoa markatzeko kontsonante epentetikoa saihestetik sartzera igaro? Salbuespen bakanen batzuetan izan ezik, —“itzcuntza”, “maishu”, “mandamentu”; “izcuntza”, “maisu” eta “amar aginte” rekin orraztea— bilakaera bitxi samarraren fruitua izango litzateke “infernu”, “fraide” edo “fralle”, “falso”, “heregeac”, “dotriña”, “ishuri”, “bici”, “biotz”, “ao” erak, “impernu”, “prailiac”, “palso”, “heregiac”, “doctriña”, “issuri”, “vici”, “viotz”, “au” bihurtzea. Gainera, molde-ordezkapenari ezin zaio egotzi baliatuak zituen bitarteko morfosintaktikoak murriztea ere, *Erligio eguiazcoaren siñaleacena Albiste on batena* baino aberatsagoa baita. Zer dela eta menderatzen zituen lanabesak autuari oratzean baztertu?

Koldo Mitxelena liburutegiko Julio Urkixo funtsean bada *Erligio eguiazcoaren siñaleacen* ale bat eskuz idatzitako oharrak dituena. Ohar horietako batek euskaraz eta frantsesez egilea ezagutarazten du, “par Ormazabal”, “Beraren egillea: J. J. Ormazabal” eta, ausartu bazen, jakin zekielako da. Ale baten jabe zen ohargile ezezagun horri gehi dakiok, A. Arzakek Juan Jose Ormazabal Argaya-z (1826-1899) egindako hilerrian agertzen den esaldi misterioitsu bat: “Cosas hay en la vida que merecen guardarse en lo íntimo de nuestro ser, pues el publicarlas equivaldría a disipar los aromas del alma” (*Euskal-Erria*, XXXVIII, 1899, 17). Ezkutuan gera dadila erabaki bada, hala izaten jarrai dezala.

Izengabeko liburuxkari izena ezarri zionari esker gainditu ahal izan da usteen barrutia. Berrargitaratuek eta ez denak argitaratzailea dutenez esteka, bibliografoen katalogoetatik kanpo geratzea erabaki zuenari buruz bi hitz, aurkezteko eta anonimatutik atera zuen ohargilearekin bat egiteko. Ogibidez irakasle, Ormazabal hizkuntzen katedraduna izan zen Donostiako Institutuan nahiz Merkataritzako Eskolan, eta frantsesaren eta ingelesaren irakaskuntzaz arduratu zen (Camino, 2010). Erakustea bazuen lanbide eta Arzakek “de gran cultura” (1899, 17) bereizgarria atxikitzen badio, bete-betean izan zitekeen *Erligio eguiazcoaren siñaleacen* moldatzailea. Galdera-erantzunetan zehatza, argia eta oso metodikoa da liburuxkan, etsenpluetan soilik pertsonaia historikoetara jotzen du —Marco Aurelio, D’Aldebert (Nimes, 1826), Stafford kondea, Pedro Joux (Nantes), Galerio enperadorea, Voltaire, San Clemente Alejandriakoa, Lutero eta honen emazte Catalina Bora— eta aurretik eman duen azalpenaren haria beti gordetzen du. Pertsona jantzi batek besterik ezin zuen izan etsenplu hauen berri, eta laneko orduak ikasleak hizkuntzetan trebatuz igarotzen bazituen, susmatzekoa da lantegiak erakartzen zuela. Ez bakarrik erakarri, baita begirunea izan ere, eta begiramena duenak nolana hiko jardunbideak arbuatuko ditu. Erabilera ona zaintzea eguneroko zeregin zuenak nekez ekingo lioke idazketa bati, bere hizkuntza-gaitasuna aintzat hartu gabe.

Oso euskalduna ere ba omen zen:

le manifesté en cierta ocasión, que no podía comprender cómo un buen *zortziko* no le *decía* más que todo lo mejor, siendo como era, sin alarde alguno, euskalduna hasta la médula (Arzak, 1899, 18).

Berminghamek gauzatu nahi zuen egitasmoko liburuxketako bat Ormazabalen esku utzi bazuen, bistakoa da bi donostiarrok ezaupideak eginak zituztela eta beren artean konfiantzazko harremana zutela. Adis-kidetasun hori zein testuingurutan erne zen ezezaguna izan arren, zenbait joerak elkar zitzakeen: biak eleaniztunak ziren eta karitatea balioztatzen zuten. Berminghamen emazte Emilia Brunetek hirugarren lokarri bat izan zezakeen Ormazabalekin: biak musikazale porrokatuak ziren.

Hiruren topalekua karitatea izan zitekeen, Ormazabalez Arzakek “Hicieron sus delicias el ejercicio de la caridad y el cultivo del divino arte de la música” (1899, 17) baitio, eta Emilia Bruneten hilberria egikaritu zuen López Alenek “de generoso corazón” (1904, 121) eta “caritativa señora” (122) bezala ezaugarritzen baitu. Bermingham eta Brunet abizenak ezagunak ziren XIX. mendeko Donostiako Ongintzan, bi eginkizunetan agertzen baitira: diru-laguntzaile eta gobernatu zuen Batzordeko kide legez (Roquero, 1999, 146 eta abar). Batzordeko partaideetariko bat Tomas Bermingham Brunet izan zen. Jada esanik dago: berriketek helburuaren gainetik jartzen dute karitatea hobestea.

Musikazale amorratua zen Ormazabal:

Inteligente músico, prestó su valioso concurso á la capilla de la parroquia de Santa María y reunía semanalmente en su casa profesores y aficionados. En sus conciertos se rendía á los clásicos casi exclusivo culto” (Arzak, 1899, 18).

Emilia Brunetek ere oso gustukoa zuen musika. “En el Instituto Des Oiseaux, de la capital de Francia, (...) recibió lecciones del instrumento clásico, de arpa, bajo la dirección del célebre maestro Mr. Godefroye” (López Alén, 1904, 121) eta harpa jotzen ikasi ostean, ez zuen bertan behera laga, 1876 inguruan Getariako itsasontzi baten hondoratzea pairatu zuten familiak sorosteko Donostian antolatu zen kontzertuan harpalari moduan taularatu izanak erakusten duenez. Musikagilea ere izan zen, besteak beste, zenbait zortziko moldatuz. Musika grinak ez ote zituen batu Emilia Brunet eta

Ormazabal? Astero Ormazabalen etxea bilgune zuten musikazale horien kontzertuetako kideetako bat izan zitekeen Emilia Brunet?

Bere aleari idazlearen izena itsatsi zionak finkatu du *Erligio eguiazcoaren siñaleac*en egiletza eta, Ormazabali buruz heldu zaizkigun zertzelada apurrek ohargileak adierazitakoa berresten dute.

4.3. Berrargitaratuen egilea: Bermingham

Garbi dago Bermingham argitaratzailearen liburuxkek bi paratzaile izan zituztela eta ohargile batek argitu du *Erligio eguiazcoaren siñaleac*ena. Elkarrizketen egiletasuna hori bezain erantzunezina ez izanagatik, horien gainean burutu den azterketek argitaratzailearen alde egiten dute.

Solasen ontzailatzat hartu denak gerokotasunerako albiste oso gutxi laga dituenek, eskuragarrietan oinarrituz itxiko da gaia.

Dasconaguerreren eleberria gaztelaniaz ipini bazuen, Berminghamek ez zuen arrotz letren barrutia. Lantegi horri oratzeko zioa Baionako notarioarekin zuen adiskidetasunaz harago joan zitekeen, Dasconaguerrek kontatutako istorioa karlistek estimu handiarekin jaso baitzuten. Itzultzaile hau da hurrengo urtean liberalei jarkitzeko liburuxken argitalpena abiarazten duena.

Semeak, Tomas Berminghamek, aita izendatzen du jendarteratu zituen liburuxken egile, baina zortzi urte zituenean hasitako eta hamarrera iristean amaitutako ekintzez ari denez, adinak berak eragozten zion jazoerei xehetasunez jarraitzea, nahiz eta jakin gura izanez gero, iturria etxean bertan izan: ama. Zernahi gisaz, Arzaki igorritako gutu-netik Urkixori bidalitakora, aita idatzitakoa zehaztetik zehaztugabetasunera igarotzen da, tarte horretan besterik ere aurkitu duelako, hain zuzen. Topatu dituenen berri baino ez du, eta, horien artean ez zegoe-nez, *Joshé Miguelen ganbara* ezezaguna du, ordurako bibliografikoek katalogoetan sartuta bazeukaten ere.

J. Caro Barojak “pueblos como el irlandés, el bretón y el vasco, precisamente, considerados como los pueblos más católicos de Occidente” (1972, 269) badio, Berminghamen aitzindariak herri katolikotik herri katolikora emigratutakoak dira, jazarpen erlijiosoaren kariaz Irlandatik ilki zirenean. Bi belaunaldira etorkiek badute harremanik Ingalaterrako zenbait herritarrekin. Hona bi datu: bata, Joakin Berminghamen anaie-tako bat, Lorenzo, Ingalaterrara ezkondu zen (Mugica, 2001, 45); beste-a, 1835eko abuztuaren 5ean komandante ingeles bat eta honen emaz-tea etxean zeuzkan⁽⁸⁰⁾. Beraz, mundu anglofonoko zenbait bizilagunekin lotura du.

Elkarrizketetan maisutzaz arduratzen direnek beren bizilekuko ger-takariak ez ezik, kanpokoak ere hizpide dituzte, Don Martiñek Alema-niakoak, eta, honen ikaskizunen neurria biderkatzen duen Don Pablok, batez ere, Ingalaterra eta Irlandakoak. *Pello Mariren ganbaran* behin aipa-tzen da Alemania, eta beste behin oin-oharrean. Don Pablok artezten dituenetan, Ingalaterra bost aldiz *Herejiac euskaldunen arteanen*, bederatzitan *Pachicuren eta Mañubelen bigarren berriquetanen*, eta, berriro, bederatzitan, *Terescharen zukaldean*. Horiei emendatzen zaie ingelesan agerrera, birritan lehenbizikoan, hirutan bigarreanean eta bostetan hirugarrenean, baita behin ere “Londres” azken bietan; Irlanda, berriz, hamaika bider *Pachi-curen eta Mañubelen bigarren berriquetanen*.

Egiazko erlijio bakarra katolikoa dela erakusteko ingurunez aldatze-an nora abiatuko eta Ingalaterra eta Irlandara, argitaratzailearen aurre-karien sorterrira, eta zein izango aberritik irteteko zioa, eta erlijiosoa. Don Pablok Patxikurekin batera egiten duen bidaian, lehenik Ingalate-rrara doaz, eta, hemen, noren eliza bisitatuko eta kuakeroena, eta erlijio

⁽⁸⁰⁾ Koleraren epidemia 1834ko irailean sartu zen Donostian. 1835eko abuztuaren 5ean Ongintza Batzordeak egindako bilkuraren agiriak dioenez, “El Hermano Aristeguieta manifestó que el día de ayer se le presentó Don Joaquin de Bermingham, diciéndole que su alojado el Comandante del 2º Batallón auxiliar inglés tiene enferma a su señora y debe ser asistida, por una de las Hermanas de la Caridad de los Píos Establecimientos” (Roquero, M. R., 1990, 160).

heretikoen zerrenda zabalaren berri duen Don Pablok, zein fede aukeratu-tuko sinesmen-mailako aldeak azaltzeko eta katolikoena eta kuakeroena besterik ez. Zergatik, justu, Ingalaterran kuakeroetara jo? Jartzailea ez ote da sendian kuakeroa zeukana? Ez ote Berminghamek erlijio heretikoaren artean ezagunena izateagatik?

Hurrengo geltokian, Irlandan, zertaz jardungo eta heretikoaren agin-dupean dauden katolikoei ezartzen dieten zamez: apaiz heretikoei eman beharreko hamarrenak, primiziak eta bataio, ezkontza eta ehorzketen eskubideak. Berminghamek ez ote zeukan etxean bertan entzuna kontu hau?

Maisu-lana bi ongileri egozten zaie. Katolikoak “pobrien adiskideak” direla nabarmentzeko hobariak izan arren, haiekin elkartuko direnen profila baldintzatzen zuten: bizibidea ateratzeko zailtasunak dituztenak. Txiro hauetako batzuek behintzat, beste bereizgarri batez jabetzeko premia ere bazuten, irakurtzeko gaitasunaz preseski, hala galdatzen zuelako helburuak, gizarteko behe-mailan sartzen ari diren propagandarekin (banatzen dizkien idazkiak) zuritzen baitu kontrapropagandari ekin izana. Garaiko alfabetatze-indizeen argipean, ba ote zuen sinesgarritasunik irakurtzeko ahalmena lander horiengana ere hedatzeak? Ez ote du lehenetsi maisutzarako ongileak hautatzea, hauen ikasleak apaletan apalenak izateak zekarzkion murriztapenei jaramonik egin barik?

Karitatea balioesten duena dute egile. Ez soilik ikaskizunetarako ongileez baliatzen delako, baita hiztunen berbetan eskainitako tarte esanguratsuatik ere, eta ez beti xedeak lagungarri zuena, ez behintzat Donostiako Ongintza publikoari dagokionez. Gobernuaren erabakiak okerrak direla aldarrikatzea dute asmo, kultu eta prentsa-askatasunak nahiz ezkontza zibilak sorrarazten duen hondamena jakinaraztea, baina indarrean dauden legeok ereiten dutena arbuiatzen duen leku berberean esku beretik iritsitako dekretu bat onartzen dute, “Conferencias de San Vicente de Paul” ordezkatu zuen “Creación de las Asociaciones Civiles de Caridad”, hain justu. Zer dela eta jomuga alboratu, kofradiako kaba-

lloren jarduera askietsizat hartuz, 1868ko azaroaz gero, aurkarien uztarripean badago? Katolikoei eskuzabal izatearen ezaugarria atxiki eta heretikoei ukatu dienak, zein arrazoi izan zezakeen arerioei aitortzeko Donostian Ongintza publikoak egoki funtzionatzen duela? Zeren izenean egun horietan ondo zebilen zerbaiti buruz mintzatu eta kontrako propagandatik aldendu, ez bada egileak estimu handian izateagatik?

Adierazi legez, Seiurtekoan zehar Donostiako Ongintzaren ibilera ezegonkorra izan zen eta berriketetan nolabait islatzen da: lehenbizi elepide dutenean, 1869ko bigarren den *Terescharen zucaldean*, Terexak dio azkenaldian ez duela sumatu kofradiako kaballeroen mugimendurik, eta, hizketakide jakintsuenari galdetzean, honek erantzuna saihesten du. Galdu den *José Miguelen ganbarak* bidegabekeria kokatu bazuen ere, hurrengo urteko *Pello Mariren ganbaran* txiroek beraiek eskertzen dute haien jokabidea, zeregina behar bezala betetzen dutela agertuz, eta “kontrarioek” eraentzen dutela erantsiz. Eraginkortasunaren irizpidepean osatutako solasotan salbuespen hutsa da. Zer dela eta hobariak gabe galerak zekarzkion gorabehera honi heldu? Idazleak bere buruari emandako lizentzia bat? Lizentzia baizik ez, bere asmorako beharrezko ez izateaz gainera, helmugatik desbideratzen zuelako.

Amaitzeko, ardatzez mudatuz, Bermingham argitaratzaileak behin baino gehiagotan gizarteratu zituen liburuxkei behatuko zaie. Bibliografoek jasotako *Erligio eguiazcoaren siñaleacen* bi edizioak ez dira gordetzen, Frantziako Liburutegi Nazionalak daukana ere lehenbizikoa baita, nahiz eta bigarrena Baionan tokitzen duten. Hala izanik, ez dago erkatzeko aukerarik, bai ordea, *Herejiac escaldunen artean* eta *Herejiac euskaldunen artean* berriketak. Esan bezala, bigarrena ez da aurrekoaren berrargitalpena, izenburuaren aldaerari, orrazketak eta berbaldi-txertaketa bat batzen zaizkiolako. Berrargitalpen soila ez denez, ateratzen den ondorioa da Bermingham bera ez balute egile, moldatu zuenari ostera galdatu ziola berregin zezala. Berriztatzea agindu bazion, bistakoa da paratzailearen maila zalantzan ipintzen ari zela, haren lana gutxiegitzat jotzen. Argita-

ratzailearen itxaropenak asetzeko gauza ez zen norbaiti eskatu ote zion eginbidea? Hizkuntza-gaitasunean eta langaian liburuxken gobernatzailearen azpitik zegoen bati?

Hitz batean, solasen arteko loturak idazle berberak mamitu zituela erakusten du, eta azterketaren arabera Joakin Bermingham izan zen autuon egile ezezaguna.

Erreferentzia bibliografikoak

- APARICIO PEREZ, C., 1991, *Poder municipal, economía y sociedad en la ciudad de San Sebastián*, Donostia: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones.
- AQUESOLO, L. de, 1964, “Una obra vasca ignorada. ‘Erle gobernatzailearen guidariya’”, *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*, 20 (1964), 367-374.
- ARTECHE, J. de, 1971, *El gran asombro*, San Sebastián: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones.
- ARTOLA, M., (Ed.) (2000), *Historia de Donostia-San Sebastián*, Donostia-San Sebastián: Ayuntamiento. Fundación BBVA.
- ARZAC, A., 1899, “Apuntes necrológicos. D. Juan José Ormazabal y Argaya”, *Euskal-Erria*, XXXVIII (1899), 17-18.
- BENGOETXEA, A., 2008, “Hiru donostiar itzultzaile”, *Senez*, 35 (2008), 157-180.
- BERASATEGUI Y MONTES, S., 1894, *Historia y situación actual de la beneficencia de San Sebastián*, San Sebastián.
- BERMINGHAM, J. B., 1868, *Herejiac escaldunen artean*, Bayonne: Vve. Lamaignère.
- , 1868, *Herejiac euskaldunen artean*, Bayonne: Vve. Lamaignère.
- , 1869, *Herejien eta beste gauza batzuben gañean Pachicuren eta Mañubelen bigarren berriqueta*, Bayonne: Vve. Lamaignère.

- , 1869, *Terescharen zucaldea*, Bayonne: Vve. Lamaignère.
- , 1869, *Bi ganbarac*, Bayonne: E. Lasserre.
- , 1869, *Josbé Miguelen ganbara*, Bayonne: E. Lasserre.
- , 1870, *Pello Mariren ganbara*, Bayonne: E. Lasserre.
- BERMINGHAM, T., 1901, “[Carta] 1901 Diciembre 9, San Sebastián [a] Antonio de Arzac [Manuscrito]. Donostiako Udal Liburutegia.
- , 1920, “[Carta] 1920 Noviembre 28, San Sebastián [a] Julio de Urquijo [Manuscrito]. Koldo Mitxelena Liburutegia.
- BILBAO, J., 1970, *Bibliografía*, I, Donostia: Auñamendi.
- CAMINO, I., 2010, *Los estudios de segunda enseñanza en Guipúzcoa. El instituto provincial (1845-1901)*, <https://addi.ehu.es/bitstream/10810/12186/1/camino.pdf>.
- CARO BAROJA, J., 1972, *Los Vascos*, Madrid: Istmo.
- DARANATZ, J. B., 1931, “Correspondance du Capitaine Duvoisin”, *RIEV*, XXII (1931), 310-337.
- DASCONAGUERRE, J. B., 1867, *Les échos du Pas de Roland*, Paris: Firmin Marchand.
- , 1867, *Ecos del paso de Roldán*, Bayona: Lamaignère. Itzultzailea: Joakin Bermingham.
- , 1870, *Atheka-gaitzeko oibartzunak*, Bayona: Lamaignère.
- DIAZ NOCI, J., 2012, “Historia del periodismo vasco (1600-2010)”, *Mediateka*, 13 (2012), 1-261.
- DUVOISIN, J. P., 1858, *Laborantzako liburua edo bi aita-semeren solasak laborantzaren gainean*, Bayona: Lamaignère.
- ECHEGARAY, C., 1886, “Bibliografía Euskara. Ensayo de un catálogo de obras bascongadas”, *Euskal-Erria*, XIV (1886), 527-531; XV (1886), 18-20, 53-55, 181-183.
- GARATE OJANGUREN, M., 1990, “La familia Brunet, San Sebastián y América”, *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, 24 (1990), 105-134.

- GARMENDIA, V., 1975, *Vicente Manterola: canónigo, diputado y conspirador carlista*, Vitoria: Obra Cultural de la Caja de Ahorros de Vitoria.
- , 1984, *La ideología carlista (1868-1876). En los orígenes del nacionalismo vasco*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- HARANBURU ALTUNA, L., 2016, *El crepúsculo de Dios: historia cultural del cristianismo en Vasconia*, Bilbao: Atxular Atea.
<https://uztarria.eus/azpeitia/liburuak/09bLoiolarik ez balitz/14>.
- ITURRIAGA, A. P., 1842, *Diálogos basco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipuzcoa*, Hernani: [s. n.].
- JAUREGUI, A., 1878, *Albiste on bat urteoro berritzen dana*, Madrid: Propaganda Católica. 2. argitalpena: *Euskal-Erria*, XII (1885), 175-178, 212-216, 252-254, 266-273.
- Jesu Cristoren Evanjelioa Juanen araura*, Londres: [s. n.], 1880. Itzultzailea: Fernando de Brunet.
- Jesu Cristoren Evanjelioa Lucasen araura*, Londres: [s. n.], 1870. Itzultzailea: Fernando de Brunet.
- LÓPEZ ALÉN, F., 1904, “Apuntes necrológicos. Dña Emilia de Brunet”, *Euskal- Erria* (1904), 120-123.
- MANTEROLA, J., 1871, *Guía-Manual geográfico-descriptivo de la provincia de Guipúzcoa*, San Sebastián.
- MANTEROLA, V., (Ed.) (1872), *Un drama en la frontera*, Madrid: Librería de D. Guio; Bayona: Librería de Mr. Desplan.
- MOGUEL, J. A., 1881, *El doctor Peru Abarca catedrático de la lengua bascongada en la Universidad de Basarte: o diálogos entre un rústico solitario bascongado y un barbero callejero llamado Maisu Juan*, Durango: Impr. y Lib. de Julián de Eleizalde.
- MUGICA, S., 2001, “Galería de donostiarras ilustres”, *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, 35 (2001), 9-50.
- OLAZABAL, J. J., 1869, *Erligio eguiazcoaren siñaleac eta protestanteen liburuac iracortzeco eleizaren debecua, tartean ejemplo batzuequin*, Donostia: Roman Goñi.

- ONAINDIA, S., 1973, *Euskal Literatura (II)*, Bilbao: Etor.
- PADRE DE FAMILIA, UN, 1869, *Consideraciones sobre la urgente necesidad de que se asocien, organicen y trabajen de consumo los verdaderos católicos, para impedir la propagación de la impiedad y de las heregías en esta nación eminente y exclusivamente católica*, Vitoria: Establecimiento tipográfico de El Semanario Católico Vasco-Navarro.
- RODRIGUEZ DE CORO, F., 1977, "Reacciones vascongadas ante un comportamiento religioso en España (1868-1869)", *Scriptorium victoriense*, vol. 24, 1 (1977), 65-100.
- , 1980, "Conspiración en Azpeitia. El cura Jáuregui", *Muga*, 10 (1980), 80-88.
- , 1985, "Revolución liberal en San Sebastián (1868-1876)", *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, 19 (1985), 105-211.
- ROQUERO, M. R., 1999, "Historia de los establecimientos de beneficencia", *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, 33 (1999), 129-516.
- RUBIO POBES, C., 2003, *La identidad vasca en el siglo XIX*, Madrid: Biblioteca Nueva.
- SANZ DE DIEGO, R., 1975, "La legislación eclesiástica del sexenio revolucionario (1868-1874)", *Revista de estudios políticos*, 200-201 (1975), 195-224.
- SORALUCE y ZUBIZARRETA, N. de, (1870), *Historia general de Guipúzcoa*, Vitoria.
- , (1871), *Más biografías y catálogo de obras vasco-navarras*, Vitoria.
- SORARRAIN, G. de, 1984, *Catálogo de obras euskaras*, Bilbao: Caja de Ahorros Vicaína.
- URKIZA, J., 1995, *Elizaren historia Euskal Herrian*, Markina: Karmel.
- VILAR, J. B., 1994, "La formación de una biblioteca de libros prohibidos en la España isabelina: Luis Usoz y Río, importador clandestino de libros protestantes (1841-1850)", *Bulletin Hispanique*, vol. 96, 2 (1994), 397-416.

- , 1996, “La ciudad de San Sebastián, centro editor y difusor clandestino de libros protestantes a mediados del siglo XIX”, *Historia Contemporánea*, 13-14 (1996), 413-427.
- VINSON, J., 1983, *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque, 1^o*, Bilbao: Caja de Ahorros Vicaína.
- WEBSTER, W., 1901, *Les Loisirs d'un Étranger au Pays Basque*, Châlon-sur-Saône.
- ZAVALA, A., 1997, *Karlisten bigarren gerrateko bertsoak*, Donostia: Auspoa Liburutegia.
- , (Ed.) (2005), *Francisco Apalategui Igarzabal. Karlisten eta liberalen gerra-kontaeak (II)*, Donostia: Auspoa Liburutegia, 293.
- , (Biltzailea), *Zenbait egileen idatzien bilduma. Eskuizkribua. Bermingham, Joaquin (1815-1875)*. Koldo Mitxelena Liburutegia.

Ana M. Toledo Lezeta
Euskaltzaindia-Deustuko Unibertsitatea

Berrargitalpenaren edizio irizpideak

Donostiarren XIX. mendeko bigarren erdialdeko euskararen —zehatzago esan, inguru horretako herri hizkera landu gabearen— ispilua dira Baionan liburuxkaz liburuxka argitaratu ziren bost berriek. Eta oraingo berrargitalpenak ez luke hizkera modu hori desitxuratu edo itxuraldatu nahiko, Joakin Berminghamek autuotan islatu nahi izan zuen hizkera, hain zuzen ere, guztiz funtsezkoa baita idazlanon beron izaera eta xedea ulertzeko. Alegia, jende arruntaren eguneroko hizkera horrixe heldu nahi dio, aldez behintzat, 150 urte ingurutsu geroago, aurkezten ari garen XXI. mendeko edizio berrargitaratu honek.

Aldez diogu, aldez bakarrik lotuko zaio eta, edizio hau jatorrizko testuarekiko leialtasunari. Aitzinsolasean adierazi da edizio honen helburua filologikoa baino areago historiko-soziolinguistikoa dela (exegetikoa ere bai, neurri batean behintzat). Euskararen estandarizazioa baino lehen, 1868-1870 urte bitartean zehazki, argitaratutako testua aldez egokituko dugu XXI. mendetik aurrerako irakurlearentzat. *Aldez* esan dugu berriz ere, testua egungo irakur-ohituretara egokituta plazaratuko bada ere, toki hizkeraren eta hitanoaren (Donostia inguruko hizkuntza-aldaera lagunartekoaren) ezaugarriak ere aldi berean jasoko direlako. Arrazoi horrexegatik eutsi zaio oraingo idazkeran bustidurari —bai automatikoari, bai adierazgarriari—, toki aldaeraren adierazgarria baita bustidura bera: “motz” eta “motx”, “koskor” eta “koxkor”, “galtxa gorri”, “pixtu”, “exkax”, “txuzen”, “gaxto”, “xinis(ta)tu”, “iñoxente”, “anayak”, “ayek”... berrargitalpenean horrela idaztea horri zor zaio.

Bestetik, edizio hau ez da Baionan (giputz-donostiarren artean zabaltzeko) argitaratu ziren liburuxken eguneratze automatikoa; ez da Baionan (hain zuzen ere!) 1964.ean hasi eta Arantzazun 1968.ean bul-tzada atzeraezina hartu zuen euskara batuaren arabera: ez da gaur-kotze automatikoa, baina ezta jatorrizko faksimilearen bikoa ere.

Jatorrizko testua ahalik eta gehiena errespetatu asmo du edizio honek, eta, betiere atzendu gabe faksimilea denon eskura dagoela sarean (Koldo Mitxelena katalogoan eskura daitezke bost berriketok, Joaquín Bermingham autorearen izen-abizenak idatzita: <http://www.kmliburutegia.net/Search/Results?lookfor=Bermingham%2C+Joaqu%C3%AADn%2C+%281815-1875%29&type=Author&submit.x=36&submit.y=29&limit=20&sort=relevance>). Horrexegatik jaso dira berrargitalpenean bere horretan idazkerok “libru”, “libro”, “liburu”; “santo”, “santu”; “motz”, “motx”...

Editore berrargitaratzaileen bitartekaritza lana ez da inoiz erraza izaten, eta edizio honetan ere izango da zer zuzendua, zer aldatua. Erabaki behar eta, azaltzen ari garen edizio irizpideok erabili ditugu, berriz esan, kontuan izanda jatorrizko testuak eskuraerrazak direla.

Arestian esan bezala, nolabait egokitu da testua gaurko irakur-ohiturara. Esate baterako, hitzen partiketan.

Horrela, aditz nagusia eta laguntzailea bereizi dira, non eta ez dagoen sandhirik edo topaguneko hots-aldaketarik, hauen modukorik, esate baterako: “eztutenian diruric” (*eztutenian dirurik*, 103. or.), “emantzion itza” (*emantzion itza*, 171. or.)...

Era berean, “bat” bereizi da hemen, batez ere gisa honetako sintagmetan: “Izena (*pixka*) + bat”: “Balinbadec semebat escolarequin” (*Balin badek seme bat eskolarekiñ*, 104. or.), “aitunazac pischcabat eta jaquingodec” (*Aitu nazak pixka bat eta jakingo dek*, 102. or.)...

Al (‘ahala’ eta galderazkoa) eta adizkia ere bereizita eman dira hemen, hots-aldaketa tartean ez denean: “eguindegū altzan guztia” (*egin degu altzan guztia*, 138. or.), “Eznatu altzera” (*Esnatu altzera*, 163. or.)...

Bere horretan utzi dira puntuazio ikurrak, hasierako galde eta harri-dura markak izan ezik. Letra larrien erabilera zuzendu da (“ama bergiña”, “jaungoikoa” → Ama Bergiña, Jaungoikoa...), baina bere horretan utzi dira jentilizioak: “Txinoak”, “Euskaldunak” (hitz hau beti letra larritz idazten du). Tiletak kendu dira (“sântisima,” “faltán”, “pollitá”...), mb, mp → nb, np eta gue, gui → ge, gi bihurtu dira. Hitz amaierako “r” bikoitza soil bihurtu da (“zarr” → “zar”), egungo idazteko sistemaren arabera.

Duda asko egin ondoren, “g” letrari eutsi zaio, baita egun “j” letraz idazten den hitzetan ere. Adibidez, erreligiyo, gende, biage, pasagero, language, salvage... jaso dira, garai horretako maileguak horrela idazteko ortografia joera sendo samarra islatu nahian.

Garbizalekeriaren aurreko testuotan “h” letra erabiltzea ere azpimaragarria da. Bere horretan utzi ditugu testuan “h” letraz idatzitako hitzak: “hereje”, “historia”, “habitante”, “hospital(e)”, “hondradu” (“ondradu” ere badarabil), “humore”, “hazienda”, “ohi” (harridura), “ah” (harridura)... eta behin darabilen “hi” izenordaina ere bai.

“V” letra, berriz, hemen “b” bihurtuta dago. Mailegu itxura gardena duten hitzetan batez ere eutsi dio berriketen egileak “v” letrari: “salvatu”, “entrevista”, “conversacio”, “Vergiña”, “valiyo”, “conveni”, “vociyo”, “zervitu”, “envidia”, “motivo”, “viage”, “conveniencia”, “vicario”, “salvage”, “provincia”, “esclavo”, “vuelta”, “devocio”, “verificatu”, “provechu”, “viatico”, “ventaja”... Baina behin edo beste, zalantza (edo okerra) erakusten du idazkerak: “ezcontza cibilla” (148. or.), “guardia cibillac”⁽⁸¹⁾ (148. or.), “ezcontza civilla” (149. or.). Maileguzko hitzetatik kanpo, “v” letraren erabilera oso mugatua da, agerraldi banako “vicitu” eta “vide” besterik ez dira jaso. Edizio honetan guztiak “b” bihurtuta daude, bere horretan utzi diren “venga” eta “buen provecho” izan ezik.

⁽⁸¹⁾ Elizakoak ez direnak esan nahi du; laikoak edo.

Jatorrizko “c” letra “z” edo “k” aldatu da hemen, txistukari igurzkari lepokaria eta herskari belar ahoskabea, hurrenez hurren, adierazteko.

Azken hots hori, hain zuzen, “c” edo “qu” letren bitartez idatzita dago batez ere, baina bada “k” letradun hitzik ere inoiz berriketetan: “toki”, “librako”, “krac” (onomatopeia), “dizkiat”, “oyekiñ”. “Euskaldun” hitza da gehien eta gehienetan idatzitako “k”-dun hitza. Gutxitan (5 aldiz) idatzi dute hitz hori “c” letraz (“escaldun” aldaeran batik bat). Bidenabar, “Euzkaldun” idazkera ere badago inoiz edo behin. Berrargitalpenean guztiak “k” letraz eman dira.

Euskararen idatzaraugintzaren aurreko aldiko testua izaki, nahas-mendu handia dago, oro har, eta, batez ere, txistukarien idazkeran: “guztiyetas”, “picardiyetas”, eta berriketa berean, “egunaz” eta “gabez”; “guztietaz”, “pobrietaz”, “burletas”; “guesurretas” eta “obligazioetaz” ... “bisita”, “bizita”, “guisa zeme”, “isan” (izan) eta abar.

Ez zaigu editoreoi beti samur iruditu zein idazmolde jo begiz berrargitalpenerako, batik bat, faksimilea eta idazkera estandarra baztertu direlako. Baina zenbateraino eutsi behar zaio testuko idazkerari, hizkera aldakortasunaren berri ere eman nahi bada, gainera, inprentako okerrak ere tartean direla?

Pagolak (1994) eta Toledok (1994) ere berriketon garai bertuko testuen edizioetan arazo berari heldu behar izan zioten. Bai batak bai besteak erabaki zuten gero finkatu zen idazkeraren arabera arautzea; hots, zuzentzea jatorrizko testuen erabilera nahasi eta asistematikoa. Berrargitalpen honetan, berriz, ez da itsu-itsuan hori egin, berriz ere, hizkuntza aldakortasuna, Donostiako hizkera, idatziz jaso nahi izatearren poderioz.

Grafia bat baino gehiago erabili badu berriketagileak testuan hots bera irudikatzeke, eta, horrekin batean, egungo idazkera estandarreko moldea ere erabili badu inoiz, hitza era horretan (estandarrean) jasoko da. Adibidez, “zopa” eta “sopa” idatzita daude jatorrizkoan, baina edizio honetan denak “zopa” idatzi dira. “Lotsa” eta “lotza”, “arrats” eta “arratz”, “pentsatu” eta “pentzatu”... aldaerak erabili ditu autoreak.

Irizpide berari jarraituz, arau estandarrekoa erabili da hemen: “lotsa”, “arrats”, “pentsatu”...

Aldiz, berriketa berean egungo idazkera estandarrekoa ez den grafia beti erabiltzen badu eta OEHk aldaeren artean jaso badu dena delako grafia, grafia ez-estandar horrixe eutsi zaio hemen. “igeltzero”, “itxaso” erabili dituzte beti berriketetan (jatorrizko “tz”, “tch”...) eta OEHk ere aldaera horiek jasoak dauzkanez gero, hemen ere horrelaxe idatzi dira.

Kontrara, nahiz molde bakarra erabili duten testuotan —konparaziorako, beti “zualde” idatzita dago—, “sukalde” idatzi da hemen, OEHn “zualde”-k lekukorik ez du eta. Idatz-sistema ezaren adierazgarriztat jo da letraren erabilera hori.

Okerrak ere baditu testuak. Halakotzat joak zuzendu (uste) dira. Askoren artean, “u” eta “n”-ren artekoa: “zicau” (zikan); “r” eta “s”: “goriak” (gosiak), “guisareme” (gizaseme); “r” eta “z”: “eze” (ere); “g” eta “c”: “geyaco” (geyago), “litegen” (liteken), “okerrego” (okerreko), “ogertasun” (okertasun)... Letrak ez ezik, silaba osoak ere aldrebestuta idatzita bide daude: “jakindoquec” (jakingo dek), “zinarian” (ziranian), “bodaticala” (bota dikala), “doctrinecato” (doktrinetakoa), “datenik” (danetik), “onenekatoa” (onenetakoa)...

Azkenik. Bi oin-ohar mota topatuko ditu irakurleak testuan. **Urdinez idatziak jatorrizko testuko oharrak dira** eta ohiko beltz kolorekoak editoreenak. Azken oharrok gehienetan testuko hitzen, esamoldeen, argibideak dira, eta, inoiz, hitzen formaren gaineko ohar metalinguistikoren bat. Jatorrizko testuko formaren bat jasotzen bada, “aipu marken artean” idatziko da, jatorrizkoa dela adierazteko.

Erreferentzia bibliografikoak

PAGOLA, I., (Ed.) 1994, *XIX. mende akabuko kontakizunak*, Donostia: Elkar-Euskal Editoreen Elkarte.

TOLEDO, A. (Ed.) 1994, *Leindak (1879-1891)*, Donostia: Ostoa/Etor-Euskal Editoreen Elkarte.

Elixabete Perez Gaztelu
Deustuko Unibertsitatea

Ana M. Toledo Lezeta
Euskaltzaindia-Deustuko Unibertsitatea

JOAKIN BERMINGHAMEN SOLASAK

Herejiak euskaldunen artean
Amabirgiñaren adiskidea, izango da Jaungoikoarena

MAÑUBEL eta PATXIKU

Mañubel.— Aizak, Patxiku, eman al ditek egun abetako batean, Donosti-yako plaza berriyan, libru pollit bat.

Patxiku.— Bai, Mañubel, eta iri?

Mañubel.— Baita neri ere, bañon esantzak, Patxiku, libru oyek zertako dituk?

Patxiku.— Anima salbatzeko omen dituk, Mañubel.

Mañubel.— Eta, bai al dakik, Patxiku, libru oyek norenak diran?

Patxiku.— Bai, Mañubel, libru oyek dituk *Luteroren* dizipuloak eskribitubak.

Mañubel.— Eta jakindu al dek, Patxiku, *Lutero* ori zeintzan?

Patxiku.— Bai, Mañubel, jakindu diat. *Lutero* ori, *herejien* maisuba, gizaseme bat uben eta **Aita santubarekin** asarratuta, izandu zikan, arrats batean, entrebista luze bat *Diabrubarekiñ*, eta gero eskribitu zikan bere librua, meza santubaren kontra eta katolikoek kontra.

Mañubel.— Bañon, egiya al dek ori, Patxiku?

Patxiku.— Eztek bara⁽⁸²⁾ egiya izango? *Luterok* berak esaten dik bere libruetan, *Galtxa gorriekiñ* arrats arretan konbersaziyo luze bat izandu zikala Alemaniayako palaziyo zar, *Wartburgo* deitzentzan batean.

Mañubel.— Gizona! *Galtxa gorriekiñ*! Eta zer dakik geyago *Luteroren* gañean?

⁽⁸²⁾ Bada.

Patxiku.— *Luterok* erakustentzikan erozeiñ andrek, gure Amasantisimak bezeiñbat meritu zikala, eta Ama Bergiñari kasorik egiñ biar etzayola, eta badituk ere *herejiak* erakusten dutenak gure **Ama santisima**, eta *Judas Iskariote*, apostolo traidore ura, gutxi gora bera igualak ditukala.

Mañubel.— Eztiat nik, Patxiku, endredo ori entenditzen. Ez al dek alde batetik esan, libru oyek anima salbatzeko ditukula, eta beste aldetik, herejiak erakusten dutela Ama Bergiña despreziatu egiñ biar dala?

Patxiku.— Zer nai dek, Patxiku⁽⁸³⁾, nik eztiat esan baizikanta⁽⁸⁴⁾ jakin dudetana.

Mañubel.— Bañon, aizak, Patxiku. *Herejiak* Ama santisima despreziazten baditek nola beren anima salbatuko ditek? Ez altziagok Ama Bergiña zeruban Jesu-Kristo bere semearen ondoan, eta gure **Jaungoikoak** admitituko al dizkik zeruban bere **Ama** mundoan despreziatu dutenak?

Patxiku.— Nik ere, Mañubel, ori bera esaten diat, eta nere ustez, katoliko onak, **Ama santisimaren** adiskideak juango dituk bere ondora, zerura; eta *herejiak* jua biarko ditek *Luteroren* eta *Galtxa gorri* bere adiskidearen ondora. Zer uste dek ik, Mañubel?

Mañubel.— Nik ere ik bezela pentsatzen diat, eta obiena izango dek libru oyeikiñ, kixkurren faltan, suba pixtutzea... Aizak, Patxiku, itz bi geyago. Jakindu al dek beste zer bait herejien, gañean?

Patxiku.— Bai, Mañubel. Gure artean, **Katoliko**en artean erreligiyo *bat bakarra* dek; bañon *herejiak* badizkitek gutxiyenez larogei, eta ez tituk beren artean entenditzen.

Mañubel.— Esantzak, Patxiku, ori bai dekala beste endredo pollita! Nola deitzen dituk herejien larogei erreligiyo oyek?

Patxiku.— Enak, Mañubel, guztiyeta akordatzen, bañon esango dizkiat dozena baten nonbriak. Dituk *Luteranoak*, *Kalbinistak*, *Trinitarioak*, *Unitarioak*, *Anglikanoak*, *Episkopalak*, *Presbiterianoak*, *Ortodoxoak*, *Anabaptistak*, *Metodistak*, *Independienteak*, *Kuakaroak*, *Iluminatoak*, eta *Mormonak*.

⁽⁸³⁾ Mañubel behar luke.

⁽⁸⁴⁾ OEHko adibideetan *baizikan*-en 93 adibide daude jasota. Behin ere ez *baizikan(e)ta* modukorik.

Mañubel.— Zer esan dek, Patxiku, *Amonak*?

Patxiku.— Eztiat ori esan, Mañubel. Esan diat, *Mormonak*; eta jakingo dek nola abek ere dirala *herejiak*, eta beren artean artzen dituztela al duten aĩnbeste emazte, *Moroak* bezela.

Mañubel.— Gizona! Arrituba uzten nak, zer Patxiku! Orlako erreligiyo gene-roak nai dizkitek Españiara ekarri! Bañon, Mañubel⁽⁸⁵⁾; Jesu-Kristo gure Jaungoikoa ez uben etorri mundura erreligiyo *bat bakarra* uztera?

Patxiku.— Bai, Mañubel, eta orregatikan, ostegun santuba baño egun batzuben lenago, **Jesu-Kristo** gure Jaungoikoak esantziokan san Pedro bere apostolari. «*Hi aiz Pedro, eta arri orren gañean altxatuko diat nere Eliza, eta inpernuko diabru guztiyen indarrak ezitiek Eliza ura lurrera botako.*»

Mañubel.— Orduban, erreligiyo *bat bakarra* izango dek munduan egiazkoa, eta besteak falsoak izango dituk. Eztek ala Patxiku?

Patxiku.— Bai, Mañubel, ala izan biar dik, zergatik Jesu-Kristok esan etziyon san Pedrori «*altxatuko dizkiat nere Elizak,*» baizikanta «*altxatuko diat nere Eliza*»; eta orregatikan, nola gure erreligiyoa, Katoliko guztiyen erreligiyoa dek *bat bakarra* eta zarrena, eta santoena eta beste erreligiyo guztiyak baño andiyagoa, orregatikan dek egiazkoa, eta orregatikan ere erreligiyo orren Elizan zia gok Jesu-Kristok san Pedrori mentatutziyon *arriya*; eta herejien larogei erreligiyo txiki ayek dituk guztiyak falsoak. Ala ezpadituk, esan dezatela beren larogei erreligiyo oyen artean zein dan Jesu-Kristorena; Eliza txiki oyen artean, zeñetan dagon Jesu-Kristok san Pedrori mentatutziyon *arriya*; eta esaten badi tek erreligiyo txiki oyek guztiyak ditukala egiazkoak, orduban Jesu-Kristo gure Jaungoikoa gezurti bat uben esantziokanian san Pedrori: «*Arri orren gañean altxatuko diat nere Eliza.*»

Mañubel.— Bañon, Patxiku, neri eman ditetan⁽⁸⁶⁾ libruak esaten dik Katoliko en erreligiyoa *apaizen* obra dekala, eta *herejien* erreligiyoak ditukala

⁽⁸⁵⁾ Patxiku behar luke.

⁽⁸⁶⁾ Didaten.

askoz zarragoak. Esaten dik ere gure apaizeri batiatzeko⁽⁸⁷⁾ eta ezkontzeko eta enterratzeko ematen diogula dirua, eta herejien artean eztekala ematen beren apaizeri. Zer dakik ik gauz oyen gañean. *Patxiku*.— Oyek eta herejiak esango dizkitek beste gauza asko dituk gezurrak eta andiyak. Galde zayok libru errepartitzalle oyeri zenbat urte diran *Lutero*, *galtxagorriren* adiskidia eta beste *herejien* maisubak agertu ziranetik mundoan, eta nai baditek esan egija, esango ditek oraiñ *iru eun eta berrogeita amar urte*, gutxi gora bera, agertu zirala. Galde zayotek oyeri berari zer ziran *san Atanasio*, *san Antonio*, *san Agustin* eta makiña bat beste gizaseme, santu jakintsubak, mundoa oraiñ *milla eta laureun urte eta geyago* arritu zutenak, eta eztek erremediyorik; edo gezurti andiyak dituk, edo esango ditek gu bezela katolikoak zirala. Orduban, esantzak, Mañubel, zein dek erreligiyo zarragoa, *Luteroren* erreligiyoa, ero⁽⁸⁸⁾ *san Atanasio*, *san Agustin*, *san Antonio* eta beste santu guztiyen erreligiyoa? Esaten dik eman ditek libru orrek ere katolikoak pagatzen dizkioleta apaizeri deretxoak batiuarengatik eta ezkontzarengatik eta entierruarengatik. Bañon, *Patxiku*⁽⁸⁹⁾, nola bestela apaizak biziko dituk? Aiziarekiñ? Aitu nazak pixka bat eta jakingo dek, herejiak beren apaizeri zer pagatzen dioten. Libru errepartitzalle oyek eztek esango, zergatik gizaseme eta andre falsoak dituk, bañon ni ire lengusuba eta bizilaguna nak eta esango diat. *Ingelatierran* dituk *hereje* asko eta pagatzen dizkitek bere apaizeri (eta eztekala uste herejiak bakarrik bañon baita ere katoliko gizagajoak) amarrenak, eta primiziyak eta oblaziyoak, eta gañera batiuen eta ezkontzaren eta entierroren deretxoak, eta gañera dizkitek berentzat baserri izugarri askoren errentak, *eta pagatzen eztiokatenak eramaten dizkitek karzelara*. Gure apaizen ondoan beste moduz bizi dituk herejien apaizak, beren emazte arroekiñ, eta beren alabentzat eta semientzat, dirua alde guztiyetatik bil-

⁽⁸⁷⁾ Bataiatu. Aurreraxeago *batiu* darabil bataioa adierazteko. OEHK adibideetan jasotzen du aldaera hori.

⁽⁸⁸⁾ Edo.

⁽⁸⁹⁾ Mañubel behar luke.

tzen dutela, pobrieri iñoiz kasorikan egin gabe. Badituk Ingelatierran hereje apaizak dituztenak *eun milla errial errenta eta geyago, urtero*, eta juaten balin badek gizaseme edo andre pobre bat beren etxietara, limosna bat eskatzera, botatzen ditek beren mirabeak, ostikoka. Esantzak Mañubel. Gure apaizak egiten al ditek ori pobriekiñ?

Eta, zer esango diat Obispuen gañean? Arkitzen dituk herejien Obispuen artean dituztenak *urtero bi milloi errialen errenta*; eta eztekala uste gure Obispo katolikoak bezala bizi ditukala. Gure Obispuen artean asko dituk jaten eztutenak baizikanta eltze miserable bat, ik eta nik bezela, diru sobrante guztiya ematen ditek pobrieri. Oraiñ ere, ez al dizkitek makiña bat Obispo katolikoak beren kotxe zarrak eta beren etxietako mayak eta sillak saldu, Kastillako pobriak sokorritzeko? Bañon *Obispo herejiak* dituk ezkundubak eta jaten dizkitek mokadu garestiyenak eta eraten dizkitek ardo Españiako eta Franziyako ederrenak eta badakik zer esaten dioten pobrieri? «*Zuberi etzaitzute eman biar limosna, zergatik limosnarekiñ lotsa galtzen dezute*». Ingelatierran maiz gertatzen dek arkitzia pobriak, beren etxe miserablietan, iñork kasorik egin gabe; gosiak illak. *Pobriak* dituk gure Obispuen semeak eta alabak, bañon Obispo herejiak badizkitek *beren emazteak eta beren semeak eta alabak*, eta eztituk pobrietaz akordatzen, ezetaere kasorikan egiten, baizikanta despreziatzeko.

Lenago esan diat gure apaizak *aiziarekiñ* ezittekala jango eta eztitukala jantziko. Ez balin badiagu nai bizi eta ill zakurrak bezela, errelegiyo bat biar dek, eta balin badek errelegiyoa, biar dituk apaizak, eta abek eztituk biziko milagroa, jan gabe eta eran gabe, eta jantzi gabe eta etxerikan gabe. Gure apaizak eztituk aberatsak herejienak bezela. Ikusi al dituk iñon gure apaizen palaziyoak, eta kotxiak eta maiorazgoak? Ezta nik ere, eztizkiat ikusi. Nik dakitana dek orantxe bertan, apaiza zar bat ziagokala emen, *Donostiako mixerikordiyen* sartuta. Eta apaiza orrek bazikan bere patrimoniyoa, bañon pobrien adiskidia uben, eta pobrien etxera obligatuba ikusi dek juatera. Ezagutzen dizkiat Donostiyen apaizak, eztutenian dirurik, pobrieri beren zapatak

ematen diozkatena, eta au eztek gezurra. Ik berak ezagutzen dituk. Gañera, apaizak dituk gure semeak. Eun apaizetatikan, larogei eta emeretzi dituk nekazarien eta baserritarren semeak. Balin badek seme bat eskolarekiñ, zintzua eta jakintsua, bigaltzak⁽⁹⁰⁾ Madrilia eta dijuala, ango agintarieri zerbait eskatzera. Ikusiko dek nola ematen diyoten atarekiñ muturrian. Bañon ire seme orrek balin badik Elizarako bokaziyoa, dijuala Obispo batengana, eta zenbat eta pobriago, obeto errezibituko dik. Mañubel! apaizetatik eta baita ere Obispoetatikan, geyenak dituk nekazarien eta baserritarren semeak. Katolikoan Elizaren atea beti irikiyak dakazkik gu bezelako pobrientzat.

Mañubel.— Arrazoya dek, Patxiku. Apaizetatikan geyenak ditek gure odola. Agintarien palazioak itxiyak egoten dituk gu bezelakoentzat, bañon Katolikoan erreligiyoaren atea ziaudek beti zabalak eta irikiyak. Ala ere, gutxi baño badituk nekazari eta baserritar batzuben eztitenak ezagutzen apaizen kontra dijuaztenian, beren odolari gerra egiten diotela, eta oyek asta putz andiyak dituk.

Patxiku.— Bai, Mañubel. Asto putzak, eta andiyenetakoak; eta arritzekoa dek nola gure artean ere ditukan iñoxente batzuben xiñisten ditena *Luteroan* erreligiyoa sartzen balin badek eskaldunen mendiyetan, orduban txorixo pregitoak eta txardiñ berri fresko erriak, librako ogi bero beroekiñ eta sagardo gozo pitxarrekiñ arkituko dizkiagula arboletatikan zinzilik. Eztakigu, Mañubel, orduban zer gertatuko litzaken, bañon nik aspalditik aitu diatana dek, iñon eztekala herejien artean aiñ beste pobre, gosiak iltzen ditukanak. Ingelatierran juaten dituk negubetan gizaseme eta andre zarrak eta ama alargunak, eundaka eta millaka, erdi larrugorriyan, beren semiekiñ eta alabekiñ, lau legua eta bide geyago ibiltzen dutela, eskubetan eltziekiñ, zopa pixka baten billa, ez gosiak il-

⁽⁹⁰⁾ Bidal ezak.

tzeko; eta zopa ura izaten dek ezurrekiñ bakarrik egiña eta Kayenako piperrez betea, indarra emateko, eta piper ura izugarrizko fuertea dek. *Mañubel.*— Eztarriyak, Patxiku, botako dizkik txingarrak piperdun zopa arrekiñ, eta herejiak seguro emango ziotek beren pobrieri ardo trago batzubek. Ematen al ziotek, Patxiku?

Patxiku.— Adarra emango ziotek, Mañubel. *Herejien* artean, pobriak ezti-tek iñoiz, ezta nekazariak eta baserritarrak ardorik eraten. Ardua herejien artean eraten ditek bakarrik aberatsak, eta ayen Obispoen eta apaizen mayetan zerbitzen dizkitek ardo garestiyenak, berrogei errial eta geyago botella bakoitza baliyo dutenak... Gañera, Mañubel, katolikoak ez gaituk izango santoak. Ala ere, gure artean arkitzen al dituk senarrak, beren emazteak, soka lepora botata, eramaten dizkitenak plazan beste gizoneri saltzera, beyak balirake bezala? Ikusten dituk bada orlako kasoak Ingeles herejien artean. Bañon emen bertan, Donostiyan ez al dizkiagu ikusi andre Ingeles herejiak beren aurrak, erari pixka batengatikan, saltzen, juan dan gerratian, tabernetan? Oroitzen al aiz, Mañubel?

Mañubel.— Bai, Patxiku. Enak bada oroituko? Orduban izandu genizkikan Eskaldunak, herejien muestra pollitak, gure artean. Bañon esantzak, Patxiku. Jakindu al dek *Lutero*, galtxagorriren adiskide arrek zer erio-tza izandu zikan?

Patxiku.— Bai, Mañubel. Izugarriya izandu zikan, eta esango diat. Bere azkeneko momentuetan, damutu uben katolikoek kontra eskribitu zizkikan pikardiyetaz, eta eskatzentzikan arren eta arren apaiz Katoliko bat onen besuetan eta onen absoluzioarekiñ iltzeko; bañon, alferrik eskatu zikan, zergatik *hereje* arren⁽⁹¹⁾ dizipuloak etzitukan ez egunaz eta ez gabez bere maisubaren oyaren ondotik separatzen, eta esantziotekan

⁽⁹¹⁾ Haren.

«*Maisuba! zuk erakutsi gaituzu herejien erreligiyoa, eta obligatuba zaude erakutsi gaituzun bezela, apaizikan gabe, iltzera; eta erdi amorratuba juan uben beste mundora.*»
Mañubel.— Arrituba utzi nak Patxiku. Nondik jakindu dituk gauza oyek guztiyak?


Patxiku.— Katoliko Euskaldun, eskola ona dikan batek, eta herejien artean urte asko bizitu dekan batek notizia oyek eman zizkiak; eta gizaseme ori dek pobrien eta nekazarien eta baserritarren adiskidea. Euskaldun katoliko orrek berak kontatu zizkiak beste gauza franko herejien gañean. Enak guztiyeta akordatzen, bañon bat oraindikan memoriyan ziaikat, eta jakiten dekanian, konprendituko dek herejien maisubak agertu ziranian, zer fede zitekan bere erreligiyoetan. *Melanton* omen uben gizaseme bat, *Luteroren* dizipuloen artean jakintsubena, eta ama bereak galdetu zionian zer erreligiyo konbeni zizayon segitzia, edo herejiena edo katolikoena, bere anima salbatzeko, badakik zer errespuesta emantziyon *Melantonek* bere amari? *Geldi zaitte, ama maitea, oraiñ arte segitu dezun erreligiyoan, gure erreligiyo berri abetaz kasorikan egiñ gabe, eta etzazula izan kuidadorik, zergatik Katoliko onak zerura txuzen txuzen juango dira.* Oraiñ bada esan nazak, *Mañubel*, fede andiya izango ote zikan *Melanton* arrek *Luteroren* erreligiyoan, konseju ori ematen zionian bere amari? Abek eta beste notiziya asko emanta, Katoliko eskaldun gizaseme arrek esantziak azkeneko. Bota zazu, *Patxiku*, surtara libru ori eta baita herejiak oraindik emango dizkizuten beste libru guztiyak; zergatikan libru oyek eta peseta falsoak dituzu igualak, eta izantzaitte oraiñ arte bezela, Katoliko ona. Herejiak aspalditik ari dira al duten guztiya egiten gure erreligiyo santoaren kontra. Bañon alferrik dabil-tza. Egunero herejien artetikan gizaseme jakintsubenak eta aberatse-nak, itzuli egiten dute beren elizetatik eta sartzen dira gure erreligiyoan. Oraiñ ogei eta amar urte, etzenituben eun gizaseme eta andre Katolikoak arkitzen Ingelatierrako erri andi batzubetan, eta gaur, millaka eta millaka arkitzen dituzu, beren Katedral andiyekiñ, eta beren Eliza ederrekiñ Españiyan eta Franzian bezela. Katolikoak dijuaz alde guztiyeta aurreraka, eta orregatikan, ezta arritzeko gauza,

herejiak etorri balin badira Españiyako gendea engañatzera. Etzazula, Patxiku⁽⁹²⁾ iñoiz aztu katolikoen erreligiyoa dala Jesu-Kristorena, eta **Jesu-Kristo gure Jaungoikoak** esan ziola san Pedrori, *inpernuko diabru guztiyen indarrak etzutela bere erreligiyoaren* eliza lurrera botako.

Bayonne, impr de veuve Lamaignère.

⁽⁹²⁾ Mañubel behar luke.

HEREJIEEN ETA BESTE GAUZA BATZUBEN GAÑEAN
PATXIKUREN ETA MAÑUBELÉN
BIGARREN BERRIKETA⁽⁹³⁾



MAÑUBELÉN ETA PATXIKUREN
BIGARREN BERRIKETA

Mañubel.— Joxepa Antoni! An dijuan ura ez al da Patxiku?

Joxepa Antoni.— Bai nere ustez, Mañubel. Arren antza beñepen badu.

Mañubel.— Aizak, aizak! Gortu al aiz, Patxiku? Ire atzetik, Antigoatik oneraño korrika eta ojuka niatork. Zer modu gizon? Nola ibilli aiz kanpoan eta noiztikan ago Donostian?⁽⁹⁴⁾ Gure artean esan zitekan, loterian suerte on bat eteratu⁽⁹⁵⁾, eta Franziaara jua intzala seme bat an uztera, ikasi zezan zapatariaren ofizioa.

Patxiku.— Ez, Mañubel. Enikan loterian suerte onik eteratu. Enak orren iñoxentea... Loterian irabazten badik batek, galtzen ditena milla eta milla dituk. Loteriako eta Ameriketako suerteak gutxi gora bera or ziabiltzak... Ameriketara ere juaten dituk urtero gure artetik gizaseme eta emakume txoro franko, eta ayetatikan etortzen balin badek noizian beñ pare bat, bere txapel andia buruan dikala edo bere buruko illeak arrotuta, an uzten dizkitek beste guztiak edo geyenak bere

⁽⁹³⁾ Azalean “Pachicuren eta Mañubelen” eta testuaren hasieran “Mañubelen eta Pachicuren”.

⁽⁹⁴⁾ Sarreran adierazi bezala, bustidura ez da finkoa. Berriketa honetan gutxiagotan egin du aurrekoan baino.

⁽⁹⁵⁾ Atera.

larruak, edo gelditzen dituk miserian, eta Euskaldunen mendietaz oroitzen ditukala, eziñ diru faltaz atzera etorririk.

Mañubel.— Egia dek, Patxiku. Orain bi urte, nere seme zarrena ere arrotu zikan ontzi Kapitan batek eta an jua uben Amerika aytara... Ordu-tikan eztiat desio faltarik matralleko pare bat emateko Kapitan oye-tako bati, zergatik geyenak gizatxar batzuek dituk.

Patxiku.— Zer esan dek, Mañubel? Kapitan geyenak ditukala gizatxarrak? Eztiat inoiz ire abotik orlako erokeririkan aitu... Zer egiteko dik Kapitan baten gizatxarkeriak beste Kapitan geyenekiñ? Nik ezagutzen dizkian Kapitan geyenak dituk gizaseme prestoak... Ez uke, ire pentsatzeko moduarekiñ, gizaseme prestu bat mundoan izango... Orixen bera esaten ditek herejiak eta aben adiskideak gure apaizen gañean... Aben artetik batek egiten badik Espania guztian gizatxarkeri bat, asten dituk ariazten⁽⁹⁶⁾ ojuka, guztiak edo geyenak ditukala gaxtoak... Arrantzale batek edo arotz batek edo igeltzero batek edo batzuek egin ditekanean lapurkeri bat, ariazten balitekek Gazetero lotsagabe batzuek, arrantzale edo arotz edo igeltzero guztiak edo geyenak ditukala lapurrak, gure artean ezagutzen dizkiat makiña bat gizaseme apaizen gañean berriketa franko egiten dizkitenak, eta ala ere Gazetero ayeri lepoak al balitekek, eta arrazoyarekiñ, okertuko liotekenak... Orain bada, Mañubel. Gizaseme askotatik batek edo batzuek egin ditekanean gaxtakeri bat, ariaztea gizatxarrak ditukala gizaseme ayek guztiak edo geyenak, izango dek eroen edo diabruen estiloa, bañon eztek inoiz izandu kristau onena.

Mañubel.— Arrazoya dek, Patxiku. Astopilkeri⁽⁹⁷⁾ andi bat esan diat. Bañon arritua utzi nak, zergatik orain erretore batek bezeiñ ondo itza egiten dek... I, seguro, eskolatik eskolara ibildu aiz iru illabete abetan.

⁽⁹⁶⁾ Adierazi.

⁽⁹⁷⁾ Astakeria?

Patxiku.— Ezta, Mañubel. Enak izandu eskola batean. Zartxuak gaituk ortarako, eta gure memoria, aspalditik ziagok, gure bizkarreko ezurra bezein gogorra.

Mañubel.— Orduban, Patxiku, milagroren bat gertatu dek irekiñ. Eztek bestela errex konprenditzea, nola egiten dekan itza, abade batek edo letradu batek bezeiñ ondo.

Patxiku.— Egon ari⁽⁹⁸⁾, Mañubel, al balin badek, pixka bat ixilik; eta laster jakingo dek nola izan liteken, eziñ konprenditu dekana.

Mañubel.— Egongo nak bada, Patxiku.

Patxiku.— Ago bada, Mañubel. Bañon ori izango eztek gauza errexa, zergatik gaur jai eguna dek, eta nere ustez, estazio luzetxoren bat egiñ dek sagardotegian... Jakingo dek bada nola, oraiñ iru illabete, igo uben nere etxera, Euskaldun, bizimodu ona dikan gizaseme bat. Eztek aztu nola egun ayetan izandu nikan konbersazio luze bat Eskaldun katoliko gizaseme batekiñ? Uraxe bera.

Mañubel.— Zer Patxiku? Gizaseme aberats ura igo uben ire etxera, bostgarrren bizitza artara?

Patxiku.— Bai, Mañubel, nere etxera, eta ez ayela ortaz arritu. Herejiak eztituk igotzen bere pobrien etxietara, zergatik Luteroren erreligioak erakusten dik eztikala Jaungoikoaren begietan meriturik gu bezelako pobriak bere etxietan, gaxo daudenian edo beste edozeiñ motiborekiñ, bisitatzen dizkikanak; eta orregatik herejiak ematen baziotek pobrieri ogi puska bat, ez deizten ill gosiak etziotek zakurreri baño geyago arpegira begiratuko. Bañon, Katolikoaren erreligioak erakusten dik pobrieri zer bait ematen dionari, Jaungoikoak zeruban, eta baita ere askotan mundo ontan bertan, emango ziokala eun bider geyago, eta pobriak bere etxietan eta presoak karzeletan bisitatzen dizkitekana, Jaungoikoa bera bisitatzen ditekala. Orregatikan, Donostian

⁽⁹⁸⁾ Hadi.

ditue gizaseme eta señora aberats makiña bat, gusto andienarekiñ gure etxietara igotzen ditukanak; eta eztituk oyek damutuko, zergatik norbait mundo onetan pobrietaz lotsatu badek, Jaungoikoa ere noizbait gizaseme arretaz lotsatuko dek zeruban.

Mañubel.— Lenago baño arritubago niagok. Ire oraingo konbersazioak sermoiak iruri⁽⁹⁹⁾ ditek, Patxiku.

Patxiku.— Arritu ari, nai balin badek, Mañubel, eta utzi nazak itza egiten. Gaur ire mingaña ziablek, sagardoaren medioz, dar, dar, dar, eta eziñ aboan geldi iruki⁽¹⁰⁰⁾ dek. Esate nikan bada nola Eskaldun katoliko gizaseme ura igo uben nere etxera eta esantziakan, Patxiku! biage luze bat egiteko asmua det eta mutill baten biarra det. Nai badezu nerekiñ etorri, etzaizu ezer ere faltako, ezta ere zure familiari.

Mañubel.— Orain konprenditzen diat, Patxiku, guztia. Gizaseme katoliko arrekiñ jua intzan. Eztek ala, Patxiku? Orixe bai dekala suertea! Burnizko bidietan ibilli eta ostatu ederretan jan eta eran eta lo egiñ! Jakiten badek beste gizaseme batek biar dikala bere biagietarako mutill bat, egin nazak mesede nitzaz oroitzea.

Patxiku.— Ondo ziaok, Mañubel, eta ik ere egiñgo nak orain mesede mingaña eztarrian sartzea: bestela, eztiat esango itz bat geyago. Nere burubak iruri dik, ire berriketekiñ, erlien kayola. . . Jakingo dek bada nola eteratu gindukan Donostiatik eta jua gindukan txuzen Ingelatierrara.

Mañubel.— Ingelatierrara! Emango nizkikek, Patxiku, nere eskubetako iru biatz, juatiagatik Ingelatierrara! Ikusiko ituben seguro hereje *kukurruku* ayek Ingelatierran!... Emango nitek mingañaren punta ere gizaseme eta andre *kukurruku* ayek, beren tenploetan ikusteagatik. Ikusi al dituk, Patxiku?

⁽⁹⁹⁾ Irudi.

⁽¹⁰⁰⁾ Eduki.

Patxiku.— Bai, Mañubel. Ikusi dizkiat *kuakaroak*, eta ez *kukurrukubak*, ik deitzen ditukan bezela. Ik uste dek seguro *kuakaroak* ditukala *ollarrak*. Ala ere, enak arritzen, zergatik, oraiñ iru illabete uste uben *mormonak* zirala *amonak*. Bañon oyek dituk sagardoaren milagroak, eta nere ustez, gaur eran dituk gutxienaz dozena erdi bat pitxar.

Mañubel.— Barka zak, Patxiku. Aste guztian lanean egon dekan gizasemeak, ezta arritzeko gauza eraten badizkik pitxar pare bat sagardo, igandean. Barka zazkik bada arren, Patxiku, nere berriketak, eta esplika nazak zer erreligio genero dekan kuakaro oyena.

Patxiku.— *Kuakaroak* ez titek kasikan ezer ere xiñisten katolikoan eta eztae-re beste makiña bat herejien doktrinetatikan; bañon hereje guztiak balin badizkitek gauza farragarriak, ayek ditek bat algaraz lertzekoa. Gerriak lotu eta aitu nazak... *Kuakaroak* xiñisten ez titek gure **Aita santoak** katolikoeri zerbeit erakusten dikanian edo agintzen dikanian, **Espiritu santoak** itza egiten dikala arren abotik. Ala ere, hereje ayek xiñisten ditek, daudenian makiña bat gizaseme edo emakume alkarrekiñ, beren tenplo batean, igotzen balin badek edozein gizaseme edo emakume beren artetikan pulpitora, eta asten dekanian sermoi bat botatzen, **Espiritu santoa** burutik sartu zaiola, apostoloeri bezela, gizaseme edo emakume *kuakaro* arri⁽¹⁰¹⁾, eta **Espiritu santoak** itza egiten dikala arren abotik.

Mañubel.— Orduban, *kuakaroen* artean, guztiak, gizasemeak eta emakumeak, izango dituk **Aita santoak**. Orixe bai dekala, Patxiku, konbenienzia! Gure pelota jokalariaik, asko biltzen ditukanian plaza batean, esaten ditek *txandaka blia*⁽¹⁰²⁾; eta *kuakaroak* ere arrazoyarekin esango

(101) Hari.

(102) OEH: **ple**. 1. (H), **ble** (Hb, H), **blei**. “Jeu de bled, espèce de jeu de paume qui se fait contre un mur” Hb. “*Plea, blea*, sorte de jeu de paume” H. Cf. *VocNav* s.v. *plé*. // 2. (L, BN ap. A ; Dv, H), **ble** (H). // “Chaque point qui se fait à ce jeu. *Plé, ble bat ederra*, un beau blé, un point bien joué, bien disputé” H. “Cada tanto de juego de pelota a blé” A.

ditek, pelota jokalaria bezela, *gure artean txandaka Aita santoak*. Donostian arkitzen dituk, Patxiku, emakume franko, balirake kuakaroak, iñoiz elitukenak geldituko **Espiritu santoari** itxogoten, sermoyak botatzeko. Zer uste dek, Patxiku? Bañon duda bat gelditzen ziaidak. Makiña bat emakume kuakarori sartzen baziotek Espiritu santoa batean burutik, zer egiten ditek? eta au galdetzen diat, Patxiku, zergatik nere emazteari beñepen, etortzen baziayok zerbait mingañaren puntara, ezтик iñoiz bere txandari itxogoten, jardunean asteko. Au bera egiten baditek kuakaroen emazteak, eta asten badituk dozena erdi bat beren sermoyak batean botatzen, orduban bai eztekala faltako berriketa, eta ura bai izango dekala xoxuen eta birigarroen, eta karnaben eta bordoyen kayola. —Aitzekoak eta ikustekoak izango dituk emakume ayek karrazkika⁽¹⁰³⁾ eta alkarrekiñ atxaparka. Zer uste dek, Patxiku?

Patxiku.— Nik uste diat, Patxiku⁽¹⁰⁴⁾, ik oraiñ zartuta, gazte denboran bezela, gauza guztiak artzen ditukala farraren aldetik. Donostian badituk seguro beste errietan bezela, emakume berritxoak⁽¹⁰⁵⁾ eta mingañak dizkitenak luxetxoak; bañon, ala ere guztiak dituk katoliko onak eta **Ama santisimaren eta aita santoaren kontra** ez juatigatik, galduko lizkitek bere larruak. Gañera, gure emakumeak eztituk txoroak, zergatik txoroa eta ez txikietakoa izan biar dik emakume batek, **Aita santoari, san Pedroren suzesiorari** ukatzeko **Espiritu santoaren** grazia, eta ala ere ez ukatzeko bere buruari.

Mañubel.— Arrazoya dek, Patxiku. Bañon ez ayela nerekiñ asarratu. Eronek⁽¹⁰⁶⁾ berak esan nak gerriak lotzeko, kuakaroen kontu oyek konstatzen asi aizanian. Gañera, oroituko aiz Ingeles hereje pobre ayen notiziak eman nizkikianian oraiñ iru illabete, nere begiak ziaudekala

⁽¹⁰³⁾ Garrasika.

⁽¹⁰⁴⁾ Mañubel behar luke.

⁽¹⁰⁵⁾ Berritsu.

⁽¹⁰⁶⁾ Herorrek, heronek.

malkoz beterik; bañon, *mormonen* eta *kuakaroen* kostunbre oyekiñ, lertzeko farra etortzen ziaidak gerrietatikan matralletaraño.

Patxiku.— Enak asarratu, Mañubel. Neronek ere farra egiteko kutizia banikan, kuakaroen tenplora juan gindukanian, bañon nere nausia nere atzean ziaigokan eta eteratu gindukanian parage artatikan esan ziaikan «Ikusi dituzu, Patxiku, kuakaroak. Hereje oyek ordu asko galtzen dituzte astero, Jaungoikoaren libru zarrak eta berriak letzen; bañon bere begiak daude itxutubak, zergatik ala ez baledeuke, nola jakingo eluteke **Jesu-Kristok**, zerura igo baño lenago mundoan utzi zubela bere bikarioa?

Jesu-Kristo gure **Jaungoikoa** etorri zan mundora *erreligio bat bakarra* uztera; eta berak egintako gizasemeak eta andreak ez al zituben ezagutuko? Ez al zekien Jesu-Kristok, bera igo ezkeru zerura, gendekak kanbiatuko zutela eta porrokatuko⁽¹⁰⁷⁾ zutela apostoeleri utzi zuben doktrina, eta konprendituko zuela bakoitzak bere moduz, ez bazuben betiko atzean uzten norbait doktrina arren difikultadeari argitasuna emateko? Eta au ala izan biar zuela, nori etzayo begietara eroriko? Ikusi zazu ortarako *Luteroren* erreligioarekiñ zer gertatu zan. Au izandu zan katolikoaren erreligio santoaren arbolatik erori zan lendarbiziko adarra, eta adar ura, arbola santu arren alimentoaren faltan, xigortu⁽¹⁰⁸⁾ eta, andikan pixka batera, egintzan iru edo lau puska eta puska bakoitz abetatikan erori ziran sei edo zazpi dozena puska geyago, eta gaur badira, gutxienaz larogei puska; eta puska oyetatikan dituzu oraiñ iru illabete mentatu nizkitzutan larogei erreligio falso txiki *Luteranoenak, Kalbinistenak, Trinitarioenak, Unitarioenak, Anglikanoenak, Episkopalenak, Presbiteriano, Ortodoxoenak, Anabaptistenak, Metodistenak, Independienteenak, Kuakaroenak, Iluminatoenak, eta Mormonenak.*

(107) Borrokatu.

(108) Zimeldu.

Bañon nola etzan ori gertatuko? Mundu onetan, pentsatzeko modua dezu arpegiak bezela, eta nola eztiran gizonen eta emakumeen artean arkitzen bi arpegi entero alkarren antzakoak, ala ere eztira arkitzen bi gizaseme edo bi emakume bere pentsatzeko moduan, gauza guztietan, entero antza dutenak. Orain bada, jarri zazkitzu, herejiak jarri zituzten bezela, Jaungoikoaren liburu zarrak eta berriak gende guztien eskuetan, eta esantzaiozu, ayek esantzioten bezela, «*Letu zazkitzute liburu oyek eta zubetako bakoitzak konprendi ditzala eta explika ditzala al duen eta nai duen moduan*. Eman zazkitzu, Patxiku, *amabi edo amalau urteko mutilleri eta nexkeri*, liburu, gizaseme jakintsoenak eta santoenak, san Agustin, san Ambrosio eta san Atanasio bezelakoak, beldurrez eta errespetoz beterik letu zituztenak, zergatik liburu oyek dira Jaungoikoak berak bere profeta santoeri eta bere apostoloeri erakutsiak. Gañera, artzazu kontuan, *herejiak liburu oyetatik eteratu zutela edo oyetan eskribitu zutela konbeni zayotena*; eta esango nazu arritzeko gauza dan ayen artean sartu dan barulloa, eta nola *hereje mormonak* artu dituzten moroen kostunbreak, berentzat.

Beste probaren faltan, herejien barullo ori eta bere artean dituzten gorroto izugarriak sobrako lirake xiñisteko **Jesu-Kristok**, igo zanian zerura, utzi zubela munduan *maisua bat* bere liburu santoak erakusteko eta explikatzeko. Bai, Mañubel. **Jesu-Kristo** gure **Jaungoikoak** utzi zuen **maisua** mundoan, eta lendabizikoa izandu zan **San Pedro**; eta eztezu oraindik jakingo **Jesu-Kristok** artu zuenian san Pedro bere apostoloen artean, onen izena zala Simon, eta izen ori kanbiatu eta esan ziola andikan aurrera deituko zala *Pedro*, eta denbora ayetako languagean, *arriari* deitzen ziotela *Pedro*, eta geroago ikusi zan **Jesu-Kristoren** intenzioa, Simon bere apostoloari jarri zionian izen ura. Simon apostoloak izan biar zuen **Jesu-Kristoren** erreligioaren arria, eta orain konprendituko dezu zergatik deitu zuen *Pedro* edo *arria*. Ala esan zion egun batean bere apostolo oni. *I aiz arria eta arri orren gañean altxatuko diat Nere Eliza eta inpernuko diabru guztien indarrak eztitek Eliza ura lurrera botako*, eta beste egun batean *Pedro! konfirma zazkik ire anayak*; eta beste batean *Pedro! eraman zazkik soroetara nere*

ardiak, eraman zazkik soroetara nere bildotxak. Eta gauza abek egiak badira, eta egiak dira zergatik **Jesu-Kristoren** libru berrietan eskribituak daude. Nork eztu xiñistuko Jesu-Kristok eman ziola preferenzia, bere apostolo guztien artean, san Pedrori? Nork eztu xiñistuko san Pedrori utzi ziola bere libruetako doktrina explikatzeo fakultadea. Nork ukatuko du Jesu-Kristok utzi zuela san Pedro bere apostoloa, beste apostoloen eta munduko kristau guztien agintari?

Bai, Patxiku, gure **Aita santoa** da **san Pedroren** suzesorea, **Jesu-Kristoren** bikarioa, eta gure **Jaungoikoaren** libruen interpretea. **San Pedro** izandu zan eta arren atzetik Aita santoa izandu dira batetik bestera, **Jesu-Kristoren** Elizako *arriak*. **Aita santoa** izandu dira eta izango dira, Jaungoikoaren azkeneko juizioa berifikatzen dan arte, munduko katoliko ardi guztien artzayen agintariak eta maisuak. **Aita santoen** Elizan dago Jesu-Kristoren arbola santoa, eta herejien eliza txiki oyek eztira baizikanta adarrak, arbola artatikan eroriak; eta nola arboletatikan erortzen diran adarrak xigortzen dira eta eramaten dira surtara, ala ere eliza txiki falso oyetako gendeak galduak dira, ezpadute noizbait, begiak iriki, eta laztan ematen gure Eliza santorearen arbolari.»

Mañubel.— Katoliko gizaseme arrek esan zizkikan, Patxiku, egiya andiak. Nik beñepen, makiña bat urte abetan aitzen diat, herejiak eta herejien adiskideak ari ditukala nondik **Aita santoa** botako ditekan lurrera; eta ala ere, **Aita santoa** beti zia gok txutik eta txutik egongo dek; zergatik inpernuko diabruen erramientak eteratzen baditek pusken bat arri artatik, Jaungoikoari sobratuko zia yok morteroa eta arriya, zulo ura konpontzeko. Zer uste dek Patxiku?

Patxiku.— Arrazoya dek, Mañubel, Jaungoikoak eztik bere itza kunplitu gabe utziko. Berak esantzikan san Pedrori, katolikoan «Eliza ez ubela iñoiz lurrera» eroriko, eta txutik zia gok milla eta zortzi eun urte abetan eta txutik egongo dek, emendikan aurrera.

Mañubel.— Orain bada, esan nazak, Patxiku, Ingelatierratik nora jua n-tzan.

Patxiku.— Ingelatierratik jua gindukan Irlandara, eta an ikusi genizkikan gauzak eztatuk xiñistatzeoak; eta kontatuko dizkiat oraiñ bezela egoten baaiz ixilik.

Mañubel.— Etzakala, Patxiku, izan kuidadorik. Gaurko sagardoa jua ziaidak burutikan zankoetako azkazaletaraño, eta arrai gorri edo korkoi bat bezeiñ mutuba egongo nak.

Patxiku.— Ondo egingo dek ala egotea, zergatik bestela, eztiat itz bat geyago esango... Irlanda dek bada Ingelatierrako probinzia izugarri andi bat. Badizkik bost edo sei milloi habitante, eta geyenak dituk gu bezela katolikoak. Amar gizaseme eta emakumeetatikan bat bakarra dek herejia. Orain bada erri asko dituk hereje grano⁽¹⁰⁹⁾ bat arkitzen eztekana, bañon nola *Ingelatierrako* agintariak dituk herejiak, *Irlandako* erri guzti ayetan jarria zekatek hereje apaiz bat, eta oraiñ esango diatana izugarria dek, aitu zak eta arritu ari. Katoliko guztiak obligatoak ziaudek, ezpaditek nai jua karzelara, eramatera amarrenak eta primiziak eta oblazioak apaiz hereje arri, eta au bizi dek gozo gozo, bere emazte fanfarrak buruko txapela plumaz betetzen dikala, Donostiko plazan *Luteroren* libruak errepertitzen ikusi uben Ingeles emakume ura bezela, eta bere seme eta alabekiñ kotxean egunero paseatzen dekala, ezer ere egiñ gabe. Badek hereje apaiz ayetatik, katoliko gizagajoen boltxilluetatikan biltzen dizkitenak urtero *bost edo sei milla ezkutu lodí*⁽¹¹⁰⁾, eta au eztek gezurra. Gauza abek nik bezeiñ ondo bazekizkitek abotik herejiak eta oyen doktrinak euskalduneri sartu nai dizkiten gizasemeak; eta oraiñ konprendituko dek, Mañubel, zer arrazoi gutxirekiñ abek egunero ari ditukan gure apaiz gizagajoeri sesioa billatzen.

Mañubel.— Bañon, aizak Patxiku! Irlandako erri ayetan, katolikoak hereje apaizen elizetara juaten al dituk?

(109) Pixar, aletxo.

(110) Ezkutu lodía, txanpona.

Patxiku.— Zotza juango dituk. Irlandako katolikoak utziko litekek bere buruak milla bider urkatzen, herejien elizetara juan baño lenago. Katolikoak dizkitek beren apaiz pobreak, eta aben elizetara juaten dituk.

Mañubel.— Orduban, zertako dituk hereje apaizak Irlandako erri ayetan, iñor ez balin badek juaten bere elizetara?

Patxiku.— Zertako, Mañubel? Hereje apaizak gozo gozo bere emazteekiñ eta bere seme eta alabekiñ bizi deizten, katolikoek bizkarretik, aben apaizak mixerian daudela.

Mañubel.— Orain nere ustez konprenditzen diat guztia. *Piperra eta cultusek* Irlandan jarritako uso kostunbreak izango dituk oyeke. Ala al dituk, Patxiku?

Patxiku.— Zer esan dek, Mañubel? Eztiat mentatu hereje apaizak jaten edo ez titekan piperririk?

Mañubel.— Zer dek bada Jaungoiko txiki txantxetako berriak ekartzeko enkargua dikan gizaseme ura?

Patxiku.— Bazekiat orain zer esan nai dekan. *Libertad de cultos* nai dek esan. Eztek ala, Mañubel? eta itz oyeke porrokatzeko sobra izandu dek arrazoya, zergatik *libertad de cultos* ezti baño goxoagoa balin badek herejientzat, ezti piperraren faltarik katolikoentzat... Nai dek, Mañubel, jakiñ zer dekan *libertad de cultos*? Ez al dek iñoiz aitu konstatzen ire gazte denboran, nola illunabar batean, *Elgetako* baserri bateko atarian agertu uben gizaseme pobre kuitado bat eta eskatu zikan arren eta arren eta Jaungoikoaren izenean arrats artako ostatua emateko, eta nola baserri artako gende gaixoak eman ziotekan. Orain bada, kuitado bat uste zitekan gizaseme arrek, ikusi zizkanian baserri artako mirabe guztiak bere oyetan, eteratu ixillik sukaldetikan, eta asi uben bere ongilleen buruak axkora batekiñ porrokatzen. Auxe bera gertatu uben Irlandan. Ingelatierrako herejiak an sartzeko kutizia zitekanian, esaten zitekan nai zizkitekala lege igualak berentzat eta katolikoentzat; bañon barrena sartu ziranetik, asi ituben katolikoak porrokatzen eta badek au gertatu zala iru eun urte gutxi gora bera, eta ordu ezkerotik gaurko egunetaraño, Irlandako katolikoak

governatu dizkitek *esklabo beltzak bezela*, eta herejiak jua dan urtietan ixuri ditek an katolikoan odola, errio⁽¹¹¹⁾ bat betetzeko diña. Katoliko gizaseme iñoxente askok etzekizkitek gauza abek, zergatik aitzen eta letzen badituk herejien eta aben adiskidien libruak, hereje guztiak dituk ogi benedikatoa bezeiñ onak; bañon mundoa korritu dikanak eta libru guztietatik letu dikanak, bazekik herejien mingañak balin badituk ezta bezeiñ goxoak, beren biotzetan eztekala arkitzen baizikanta piperra eta gorroto izugarria katolikoentzat.

Mañubel.— Arritua utzi nak, Patxiku. Bañon, esan nazak. Gizaseme eta emakume geyenak balin badituk Irlandan, katolikoak, justu al dek herejien apaizak ezer ere egiñ gabe, katolikoan bizkarretik guapoki bizitzea?

Patxiku.— Nola izango dek ori gauza justoa; bañon, abek dituk herejien estiloak, edo ik esan dekan bezela *Piperra eta cultusen* uso kostunbreak. Herejiak ire etxeko atarian ziaudekanian, beti ari dituk predikatzen, begietan malkoekiñ, kana batekiñ neurri biar ditukala berak eta katolikoak; bañon ire etxean zankoa sartzen diteneko, jabe egiten dituk, eta eteratu faltrikera batetik kana txiki bat eta ezkerreko faltrikeratik beste luze bat, eta esango ditek, «**kana luze au gu neurritzeko eta laburra zubez neurritzeko**». Ala esaten ditek, kana laburra eskubetan ditekala, katoliko guztiak ditukala pikaroak, zergatik erre zizkitek makiña bat hereje, abek mundua trastornatzen asi zitukanian; eta esaten badiotek, herejiak katolikoeri millaka eta millaka lepoak bota ziozkatekala axkorekiñ lurrera, eta tripak pikatu ziozkatekala bizirik kutxilloekiñ, eta erre zizkitekala zerriak bezela; eta katolikoak ixuri bazitekan herejien odol tanto bat, abek ixuri zitekala, pinta-ka katolikoan odola, orduban, kana luzea bere buruak neurritzeko eskubetan ditekala, esango ditek, abek txantxetako gauzak zitukala,

⁽¹¹¹⁾ Erreka, ibaia.

eta etzitekala izan baizikanta pixka bat jostatzeko eta katolikoan lepoak eta tripak axkorekiñ eta kutxilloekiñ kilimikatzeko, intenzioa.

Mañubel.— Oraintxe konprenditzen dizkiat gaurko egun abetan ikusten ditukan gauza franko; eta kana motx eta luze oyen sermoya eztiat aztuko, eta gaur bertan kontatuko zioak nere emazteari; zergatik Terexak iruri dik batzubetan ikasi dizkikala herejien kostunbre oyek.

Patxiku.— Zer, Mañubel? Terexak? Etzakala orlako gauzik esan. Emakume gutxi dituk ire emaztea bezeiñ katoliko onak.

Mañubel.— Bai, Patxiku. Ala dek Terexa. Katoliko ona eta emazte onenatan onenetakoa; bañon juaten nakanian egun batzubetan, amabietan, etxera, itz bat esaten badiat, bazkaria gobernatua arkitzen eztiakanian, asten dek ojuka eta eskandaloan eta esaten ziak kulluska bota dikala suaren ondoan, txurruta artuta, eta au artu dikala gibela gozatzeko eta madrekoa iltzeko; eta ondo egin dikala eta berriz ere egingo dikala. Orain bada, ni juaten banak igande arrats batzubetan etxera, gorputza pixka bat alde batera edo bestera okertuta, esaten niok, atetikan barrena muturra agertu ezkerro, sagardo pitxartxo bat geyago artu diatala, birrikako ospelak goxatzeko; eta Terexak esaten ziak ojuka, mozkor zar bat nakala, eta ala baniak, ondatuko diatala etxea. Ikusten dek bada, Patxiku. Nere emazteak dizkik bi kana herejeak bezela, bat luzea bere txurrutak eta bestea laburra nereak neurritzeko; eta biar bada, Irlandako herejien kana ayen historia kontatu eta neurrituko lizkikek, kana batekiñ, bere txurrutak eta nereak.

Patxiku.— Nik uste diat, Mañubel, obeto egingo dekala ejenplo ona ire emazteari ematea: orduban biar bada, txurrutikan gabe, sendatuko ziaioek gibela eta madrekoa, eta eztek ire etxean biarko ez kana luze-rik, ez eta ere laburrik, txurrutak neurritzeko, eta ori izango dek obena.

Mañubel.— Ala egingo diat, Patxiku. Bañon segi zak ire historia. Irlandatik nora jua intzan?

Patxiku.— Irlandatik jua gindukan itxasoz Marsellara, eta au dek Franziako portu eder bat, beti ontziz betea eta an ikusi ginezkikan gauza

asko, bañon gauza guzti ayen artean batek nere begietara ekarri zizkikan malkoak, eta kontatuko diat sartzen balin badek ire mingaña kokotean.

Mañubel.— Sartuko diat nai balin badek sabeleraño, ire biageetako historia oyek jakiteakatik, ara begira nazak! Ementxe niagok ire aurrean, aboa zabaldurik.

Patxiku.— Orixe nai diat, Mañubel, eta jarri nazak al dekan atenzio guztia. Jakingo dek bada nola, Marsellan egon gindukan egun ayetako batean, zijuakan Afrikara *Katolikoan misio bat*, eta misio arrek zizkikan sei apaiz eta abetan uben abade zar bat eta beste bostak, gazteak. Orain bada, sei abade ayek jua ituben ontzira prozesioan, erri andi artako apaiza guztiekin eta beste gende askorekiñ, arzobispoak prozesio ura itxitzen zikala; eta, ontzia ibiltzen asi baño pixka bat lenago, sei apaiz ayek, belauniko jarriarik, errebitu zitekan, Arzobispoaren bendizioa, eta gende guztia ziagokan ontzian eta kayean, negarrez. Eta eztekala uste gende ayek etzitekala motiborik negar egiteko, zergatik, orduban urte bete justu justu, sei abade ayek zijozten Nazioan, salbage beltzak eteratu ziotekan, bizirik larrubak, beste dozena bat apaizeri eta jantzizkitekan bere gorputzak. Ah Mañubel! Gauza abek ikusi dizkikanak, badik motibo franko gure erreligio santoa maitatzeko... Sei apaiz ayek bazekitekan gutxi gora bera beren suertea, eta ala ere ikusten genizkikan poxaz beterik, beste gende guztia ziagonian negarrez eta begietan pañoeloak jarriarik. Orain bada, txistoa jo zitekan ontzian eta au ibiltzen asi ubenian, gende guztiak eman ziotekan despedida, bere pañoeloak aidean ibilliz, apaiza santo ayeri, eta jua gindukan ostatura, eta bazkariari itxogoten geundenian, nere nausiak esantziakan. «Ikusi dituzu, Patxiku, sei apaiz katoliko oyek, bañon eztakizu Afrikara allegatzen diranian, zer egingo duten, eta nik esango dizut. Apaiz oyek salbage beltzen lurrian ikusten diranean, egun artan bertan, alkarri laztan bat eman, eta bidean jarriko dira bakoitza bere aldetik eta bakarrik, beren makilla eskuan dutela, eta errezuko librua besopean eta santo

Kristo bat beste eskuban, eta juango dira salbage beltzen billa, aberi **Jesu-Kristo gure Jaungoikoaren** erreligioa erakustera; eta andikan aurrera, apaiza santo ayen oya izango da lurra eta baita ere askotan arroka, eta janari guztirako izango dute arto iriñ pixka bat urarekiñ egosia, eta pasatuko dituzte erriok igari, eta askotan ikusiko dira, arratsetan, arbolen gañera igotzeko bearrean, ezpadute nai tigreak eta leoyak eta beste animala izugarriak porrokatzea eta jatea beren gorputzak. Orra, Patxiku, ikusi dituzun abade oyen bizia eta suertea. Orain bada, *herejiak* ere badituzte beren misioneroak, bañon zer diferentzia aben artean eta katolikoan artean! Ikusi zenituben, Patxiku, Londresen egun batean, bi gizaseme beltzez jantziak, beren emaztiekiñ eta bakoitza, makiña bat seme eta alabekiñ, nola sartu ziran bafore⁽¹¹²⁾ batean, gu kayean geundenian erregeren ontzi andi ura ikusten. Ikusi zenituben ere gizaseme ayen kutxak eta kofreak baforera eramaten eta nola zeuden biyak, beren paperak eskuetan zituztela, ikusten nola ontzi arretan bertan sartzen zituzten kaja asko; eta orduban esan nizun kaja ayek zirala komerzioko generoz beteak. Esan nizun ere orduban bi gizaseme ayek zirala *hereje apaizak*, *Txinako misioneroak*, bañon orduban esan enizun zer egingo zuten allegatzen ziranian zijoazten portura; eta orain jakingo dezu nola ara allegatzen diranian, arkituko dituzte bere etxe ederrak, ondo bizitzeko gauza guztiez beteak, eta irikiko dituzte beren komerzioko dendak eta eskritorioak, eta eztira portu artatik inora juango, zergatik portu ura egongo da soldaduz betea, eta an egongo dira seguru eta batere ere bildurrikan gabe bere familiekiñ; eta hereje apaiz ayek eztute beste obligaziorik izango, baizikanta arkitu Txinon artean gizaseme batzubek libruak errepartitzeko, berak gozo gozo daudela beren emaztiekiñ eta beren komerzioan okupatuak, al duten diru guztia biltzen.

⁽¹¹²⁾ Bapore.

Eta, eztezula uste, Patxiku, gauza abek norbaitengatikan jakindu ditudala. Ez, Patxiku, neronek ikusi ditut, zergatik ni ere Txinan izandua naiz. Antxe neuen⁽¹¹³⁾ orain ogei eta amar urte eta geyago, *Kotxintxinoak* eman ziotenian, *batean*, eriotz izugarria, *irurogei Misionero katolikoeri*, eta misionero ayetan ziran iru edo lau Obispo eta besteak ziran fraile Franziskanoak eta Dominikoak eta Agustinoak *guztiak Españolak*, eta baita ere bi edo iru apaiz Txinoak; eta jakindu zutenian bere suertea, jantzi ziran bere elizako ornamentoekiñ eta joan ziran prozesioan Ama Santisimaren letaniak kantari, plazara, eta an, alkarri laztan eman, eta bota ziozkaten axkorekiñ burubak lurrera. Eta oraiñ esango dizut ze andia eta santoa dan *katolikoan* fedea bere erreligioan. Irurogei katoliko misionero oyen eriotz izugarria gertatu zan probinzia deitzen zan *Tunkiñ*, eta ango makiña bat kristau katolikok jakindu zutenian beren misioneroen suertea, juan ziran ango agintariengana eta esan zioten *Gu ere gera kristabak eta nai degu ill gure apaizekiñ*, eta guztieri bota ziozkaten buruak lurrera.

Gauza abek jakiñ eta enintzan batere arritu *hereje ingeles batek* esantztanian egun batean, izketan ari giñala katolikoan eta herejien misioneroen gañean. *Nik eztet Jaungoikoan xiñisten, bañon xinisten banuke katolikoa izango nintzake. Ortarako enuke bearko baizikanta ikusi zer gertatzen dan zuben misioneroekiñ eta guriekiñ. Herejiak etortzen dira onera misioen pretexto-arekiñ, ondo bizi, eta dirua biltzera; eta katolikoak, Txinoen eta salbagien artean gosiak eta mixerian bizi, eta geyenak eriotz izugarria arkitzera. Bai, Patxiku. Ingeles hereje arrek arrazoya zuben. Makiña bat urte juan diranian, *Misionero herejiak* etortzen dira guapoak eta freskoak, aberasturik, bere familiekiñ, *bañon misionero katolikoetatikan* bere larruak utzi eztituztenak Txinoen edo salbagien artean, zer ekartzen dute? Bere gorputzak gosiak eta miseriaz flakaturik eta zaturik; eta askotan, bere arpegiak*

⁽¹¹³⁾ Nengoan.

eta eskuak eta zankoak eta gorputz guztiak martirioaren markaz beteak. Orain bada esan nazazu, Patxiku. Zeñek du **Jesu-Kristoren** apostoloen antza geyago? *Hereje misionero* gelditzen dana, bere familia-rekiñ portu seguroan soldaduen artean, gozo gozo bizi eta bere komerzioarekiñ dirua biltzen; edo *Katoliko misioneroa*, errezuetao librua besopean, makilla esku batean eta bestean santo kristoarekiñ sartzen dana, mendietatik mendietara, Txinoen, beltzen eta beste salbagien artean, gosiak eta egarriak eta mixeri andienean bizi, eta azkeneko eriotz izugarria, geyenetan, arkitzera?»

Mañubel.— Nere begiak, Patxiku, malkoz beteak ziaudek, eta banekikek noiz sei apaiz misionero ayek bueltatzen ditukan Afrikatikan, juango nindukek makiña bat bide bere zankoetan musu bana ematera, zergatik alako gizasemeak izan biar ditek Jaungoikoaren adiskideak.

Patxiku.— Bai, Mañubel, gizaseme ayek dituk santoak, eta frutoetatikan ezagutzen badek arbola, alako frutoak ematen dikan erreligioa, izan biar dik santoa; eta lenago juaten bagindukan astean beiñ elizara, emendik aurrera juan bear diagu gutxienaz bi bider, Jaungoikoari eskatzera ez deizan utzi herejien erreligio falso oyek gure mendietan txertatzen, eta katolikoen erreligio santoa geldi deyen eta izan deyen Euskaldunen artean, bakarra.

Mañubel.— Ni beñepen juango nak iru bider ere, astean, elizara; eta ik bezela eskatuko zioat Jaungoikoari eta Ama santisimari eta zeruko aingeru eta santu guztieri.

Patxiku.— Ondo egingo dek, Mañubel. Orain arte, Euskaldun gendeak eta aben bizimoduak gaztelaberi⁽¹¹⁴⁾ eta baita ere beste nazioeri eman ziotek enbidiya. Guztiak esaten ditek iñon eztekala Euskaldunak bezeiñ ondo bizi denik; eta Jaungoikoak bakarrik zekik zer gertatuko litzaken *Luteroren* erreligio falso oyek sartzen balituzteke gure arte-

⁽¹¹⁴⁾ Gaztelau, gaztelar.

an. Doktrina oyetan arkituko genikek gure animen kaltea eta baita, nere ustez, gure gorputzena. Ala benepen arkitu ditek Andaluziako gendeak.

Mañubel.— Zer? Izandu aiz Andaluziyan ere, Patxiku?

Patxiku.— Bai, Mañubel. Ara jua gindukan Franziatik, eta nere nausiak esan ziaukan Andaluziako probinzietan ibilli ditukala herejiak bere libruak eta bere doktrinak nekazarien eta baserritarren artean sartzen eta badakik zer gertatu dekan? Probinzia ayetan eztek aitzen baizikanta lapurkeriak eta, dozena erdi bat ezkuturengatikan, edozeñi eriotza edo etxieri suba ematen ziotek; eta gende ondraduak⁽¹¹⁵⁾ bizi dituk, eskopeta ondoan edo pistola boltxilluan daramakatela.

Mañubel.— Gizona! Gauza izugarria dek, Patxiku, bizi modu ori!

Patxiku.— Seguro, Mañubel. Bañon, zer nai dek gertatzea? *Jaungoiko txiki txantxetako kontu oye kiñ* gende ayetatikan askok aztu ditek **egiazko Jaungoikoaren** bildurra; eta gende onak galdu ditekana doktrina oye kiñ, irabazi ditek lapurrak eta asesinoak eta etxe erretzaliak.

Mañubel.— Badakik, Patxiku, aboa zabaldua utzi nakala ire konbersazioarekiñ. Eskolara ire bizi guztian juanta, ez uben ainbeste ikasiko, nola iru illabete abetan gizaseme katoliko arrekiñ... Ire suertea izateagatikan, emango nitek sudurraren punta.

Patxiku.— Enak orretaz arritzen, Mañubel, zergatik luxetxea dek ire sudurra, eta erdia largatuta ere sobra geldituko lizaikek... Guazen, Mañubel. Arratsa ziatok⁽¹¹⁶⁾, bigar lan eguna dek eta etxera niak.

Mañubel.— Juango gaituk, Patxiku; bañon eztek oraindik akabatu. Enak esan Andaluziatik nora jua intzan.

Patxiku.— Andaluziatik jua gindukan Madrilla eta an arrats bat bakarra egon, eta etorri gindukan Donostiara.

Mañubel.— Eta ez al zikan ire nausiak ezer ere geyago esan, bidean?

⁽¹¹⁵⁾ "hondradu" ere bai.

⁽¹¹⁶⁾ Zetorrek.

Patxiku.— Bai, Mañubel. Ikusten genizkikan gauzetaz eta toki guztietaz bazekikan nere nausiak zer edo zer esan, bañon aztu dizkiat. Ala ere, Tolosatik onerañoko bidean eman zizkiakan konseju batzuek eta ayetatikan bat eztiat nere bizian aztuko. *Lenago*, esan ziakan, *zenuben Espanian ibai izugarri bat zubirikan gabe, eta alde batean zeuden Jaungoikoaren adiskideak eta beste aldean Jaungoikoaren kontrarioak; bañon oraiñ herejiak bota dute bere libruekiñ eta bere doktrinekiñ ibai ortan zubi bat, eta zubi ori dago aldapa bera eta betiko galduba da zubi orretan zanko bat sartzen duena, zergatik aldapa artatikan txilipurdika juango da Jaungoikoaren kontrarioen artera.*

Mañubel.— Nik beñepen utziko diat nere burua urkatzen, zubi ortan biatz bat sartu baño lenago. Eztiat, txilipurdika bizkarreko ezurrak porrokatu, eta Jaungoikoaren kontrarioen artean arkitzeko gogorik.

Patxiku.— Ondo egingo dek bizkarreko ezurra guardatzea, zergatik orrela ere guardatuko dek ire animarena. . . Oraiñ bada, illundu dik, Mañubel, eta gabon.

Mañubel.— Baita iri ere, Patxiku. Bigar arte.

Bayonne, impr de veuve Lamaignère.

TEREXAREN SUKALDEA

PATXIKU, MAÑUBEL, TEREXA, Dn PABLO eta JOXE
DOMINGO, alkarrekin berriketan.

=====

TEREXAREN SUKALDEA
MAÑUBEL, PATXIKU eta TEREXA

Terexa.— Gizonak! Egin nazazute toki pixka bat. Eziñ bestela gobernatu-ko dizutet afaria... Orra! orra! Nere Ama santisima! kaxuelaren tapa bota du gatuak...

Patxiku.— Ohi Terexa! Bixigua! Mokadu fiñak jaten dituzute etxe onetan! Gaur bai oyera jua baño lenago kantatuko diotala Ana Batistari, gure gazte denborako koplak abek. «*Eztira konpitiak*⁽¹¹⁷⁾ *astoarentzat abi, abi, abi, ezta eperrak ere (esango diot bixigoak) Patxikurentzat.*»

Terexa.— Zer uste zenuen bada, Patxiku? Gure etxera Mañubellek ekarri zinduela baratxuri zopekiñ afaltzera?

Patxiku.— Bañon, aizak, Mañubel! Arrantzale jarri al aiz, eta bestela nola bostgarren bizitza onetara bixigu au igo dek? Balio dik gutxiena bi peze-ta, denbora izugarri onekiñ, eta seguru, ori eztek igari ire etxera etorri!

Terexa.— Ara, ara, nola atxaparrekiñ berriz tapa bota duen gatuak! Asto-pill⁽¹¹⁸⁾ batzubek zerate biak. Begira zazute pixka bat kaxuelari. Bestela, zuben gaurko afaria tellatuetara juango zaizute.

Patxiku.— Lepotik artu, Terexa! eta sartzazu ori ikatz tokian, zergatik, nere ustez, abo goxoa da zuben gatuak, eta seguru eztago kaxuela.

(117) Konfite.

(118) Astakilo.

Terexa.— Bestelakoak zaudezte ziraka eta zirika zuben pipa motz oyekiñ. Eziñ asnasea arturik uzten nazute. Esan diot makiña bat bider Mañubeli, jakiñ izan banuen orlako kutizia zubenik pipari, emazte-tzaz enindubela izango.

Mañubel.— Ikusten ninduzun bada Terexa, ezkongaya ziñanean, pipa motza aboan nuela, eta orduban, exkax zabiltzanean cuartoak, zero-nek ekartzen ninduzun belarra.

Terexa.— Bai, seguro. Arrazoya dezu. Bañon ezkongai denborak eztira ezkondu-takoak, eta gañera, enekien orduban ainbeste pipa egunero artzen zenubenik. Bestela etzenuben ez belar asko eta ez gutxi nere eskuetatik artuko.

Patxiku.— Bañon Terexa! Oraindik esan eztezu, nola etxean sartu zaizuten bixigu ori.

Terexa.— Bestelakoa zaude zure bixigoarekiñ! Ixillik zaude eta jakingo dezu... Gaur goizean, libra bat gatu arrai merkatzen⁽¹¹⁹⁾ negoela arrandegian, agertu zan Dⁿ Pablo, gizaseme katoliko zurekiñ Ingelatierrara juantzana ura, eta nola ezagutu ninduen, oraiñ amabost egun, zure etxean sartu nintzanean ikatz pixka baten billa, esantzion pixo-nera⁽¹²⁰⁾ bati neri emateko bere zestoan zekan bixigu andiena eta emantzitan, eta orra bixigu orren historia non dezun.

Mañubel.— Suerte ona izan dezu Terexa arrandegian Dⁿ Pablo arkitzea. Ori beñepen gu bezelakoentzat ondo gizaseme ona dezu. Jakiten dueneko non dagoen nekazarien bat gaxo, an dijoa onen etxera, erre-gea balitzake baño gusto geyagorekiñ, eta sartzen dan etxea, ezta iñoiz gelditzen utsa, zergatik zer edo zer beti uzten du.

Patxiku.— Bai, Mañubel. Askok oraiñ farra egiten ditek egunero Elizara juaten ditukan gizasemeeri, bañon egia esateko, oyek igotzen dituk gure etxe pobrietara. Ayetatikan dek Dⁿ Pablo ere, eta emango liokek

⁽¹¹⁹⁾ **merkatatu**.1. (H + (-kh-)), merkatiatu (Dv). Ajustar un precio; regatear. “Marchander” (OEH).

⁽¹²⁰⁾ Arrainketaria, arrain-saltzailea. <https://ahotsak.eus/donostia/pasarteak/don-054-029/>

edozeiñ nekazariri bere biotza. Jakiten dikaneko non dagon nekazari langille eta hondradu bat mixerian, au bere semea balitzake bezela begiratzeko dik; eta Ingelatierran geundenian, kontatu zikan alako historia pollita limosnaren gañean, eta historia ori aitzen dikanak, seguro maitatuko dizkik gu bezelako pobreak; eta nai badik Terexak aitu, kontatuko diat.

Terexa.— Eztet bada naiko, Patxiku? Dⁿ Pabloren historia guztiak pobrien aldera dituzu, eta gusto guztiarekiñ aituko dizut. Asi zaitte bada eta ementxe nakazu aboa zabaldua.

Dn Pabloren historia pollita.

Patxiku.— Ingelatierran geundela esantzitan bada Dⁿ Pablok egun batean mundoan izan zala gizaseme bat eta au bizitu zala arinki eta bere azkeneko ordua etorri zan arte. Jaungoikoaren mandamentoetaz kaso askorik egin gabe: Ala ere gizaseme ura izantzala pobreentzat biotz onekoa eta egun batean, bere etxeko atean arkitu emakume alargun pobre bat eta bere eskuekiñ eman ziola lau libako ogi bat. Orain bada, ill omen zan gizaseme ura eta beste mundoan zegoela, Jaungoikoaren tronoaren azpian, bere juizioari eta sentenziari itxogoten, etorri zan aingeru bat, pixu bat eskuetan zuela, eta jarri zuen gizaseme ura pixu artako eskuñeko⁽¹²¹⁾ platilloan, bere pekatuekiñ, eta jarri zituen ere arren obra onak exkerreko⁽¹²²⁾ platilloan, eta zijoan pekatotez kargatutako platilloa bera eta bera eta bera, eta gizaseme arrek iruri zuen eternidade guztirako galdua; bañon onetan, bere guardako Aingerua agertu zan eta jarri zuen gizaseme gizagajo arren obra onak zeuden platilloan, berak emakume alargun arri emantako lau libako ogia: eta ordu ezkerotik, asi zan pekatotez kargatutako platilloa gora

(121) “escuyego”.

(122) “eschquerreco”.

eta gora igotzen, eta au egontzarian Jaungoikoaren ondoan, san Pedrok eta Ama santisimak artu zuten gizaseme ura bakoitzak esku batetik eta sartu zuten zeruan.

Terexa.— Arrazoya zenuben esateko kontu pollita zala. Bai, Patxiku: pobrien adiskidea izan bear du, orlako kontuak dakizkienak, eta pobrien adiskideetan da Dⁿ Pablo onenetakoa; eta au xiñisten eztabenak galde zaiola Mari Krutxi, gure auzo lagun alargun orri, nork eramán ziozkan juan dan neguan, gosiak eta otxak zegonian bere seme alabekiñ, bi manta gozo gozoak, eta babarrun dozena bat lakari eta urdai arrua erdi bat. Elizara muturrak agertzen eztituzten gizaseme batzuben esaten dute, or daudela irikiak hospitala eta mixerikordia nekazarietzat; bañon, Dⁿ Pablo ori eta beste katoliko on batzuben bezela gure etxe pobrietara igotzen ez tiranak, ez tute ezagutzen gure mixeria, miñ bat gure gizoneri sartzen zayotenian, ez eta ere zer pena duen nekazari hondradu eta langille batek hospitalera eta mixerikordiara juateko; eta gañera, askotan, nai badu joan ere, ez bada erriko semea, etxe artan errezibitzen ez tute; eta kaso oyetako, nekazarien etxietara igotzen diran kaballero eta señora ongille oyek, pobrien aingeroak dituzu. Bañon, erreparatu al dezute lenago bezela ez tirala oraiñ biñaka ibiltzen kofradiako kaballero ayek, astero, eta etxetik etxera, pobriak bisitatzen? Jakindu al dezu, Patxiku, zer gertatu zayoten kaballero ayeri?

Mañubel.— Esan nizun bada, Terexa, oraiñ iru illabete, nola *Piperra eta Cultus* Espaniara ekartzeko asmoa zuten, eta nola Ingeles gizaseme hereje *Piperra eta Cultus* orrek Jaungoiko txiki falsoak ekartzeko enkargua zuen, eta nola ere Jaungoiko txiki ayek ziran kaballero oyen eta gure Jaungoiko egiazkoaren kontrarioak, eta nola herejiak beren pobreak iñoiz bisitatzen ez tituzten; eta nola *Piperra eta Cultus* arren medioz kaballero ayen kofradia akabatu zuten.

Terexa.— Ez titut oyek aztu. Oraiñ bada, gizaseme *Piperra eta Cultus* pobrien kontrario orrekiñ, abek zer bentaja arkituko dute, Patxiku?

Patxiku.— Katolikoek kontrarioak esaten dute etortzen danian gizaseme

Mañubelek *Piperra eta Cultus* deitzen duen ori, ezkonduko dirala nai dutenak *elizatik kanpoan*, eta izango dirala ezkontza oyek merkeagoak. *Terexa.*— Zer esan dezun, Patxiku? Elizatik kanpoko ezkontzak? Zeñek jarriko ditu lege lotsa gabe zikiñ oyek? Piperra eta Cultusek? Bere ezkontza merkeekiñ Ingeles gizaseme mozkor ori jua liteke a la M... Zakurrak bezela ezkondu kristabak! Eta gañera aurrerago, elizakorikan gabe seguro zakurrak bezela iltzeko! Ez genuen oraindik orrelakoxe gauzik aitu... Arrautz ustelen eta arrautz freskoen artean, naiz abek garestiago izan, venga, venga arrautz freskoak... Jaungoikoaren ezkontzak biar ditugu Euskaldunak eta ez galtxagorrirenak: eta bere sasiezkontzekiñ dijua gizaseme hereje urde ori Ingelatierarra.

Patxiku.— Asarratu zera Terexa, eta enaiz arritzen, zergatik gaurko egunetan ikusten diran gauza asko, eztira inoiz aitu eta ikusi.

Terexa.— Ezta bada Kristau bat gauza oyeekiñ arrituko? Pentzazu, Patxiku, balitzake posible noizbait nere Mari Inaxi, gure alaba maitea ikustea zakurren lege oyeekiñ ezkondu, eta gure etxea sasikumez betetzen duela! Nere Ama santisima! Naiago nuke, nik beñepen, orlako gauzik ikusi baño, lenago nire bizia Jaungoikoak milla bider eramatea!

Mañubel.— Terexa! Bixiguari emantzaiozu buelta bat, bestela alde batetik geyegi erreko da.

Terexa.— Sasiezkontza oyeekiñ aztu nuen zuben afaria. Ea! Bixigua laster egongo da bere puntuan, eta nai balin badezute, errosarioa erreztzen asiko gera.

Patxiku eta Mañubel.— Bai, Terexa. Ama santisima gurekiñ egon deien, erreza zagun errosarioa.

Terexa.— Guk beñepen, Patxiku, arratsero erreztatzen degu, eta kalterik egiten eztigu. Orla gure seme alabekiñ bizi gera pakean. Orain bada, badakizute Martxial gaxua loak artu duela, eta erreza zazute ixiltxo.

Asten dira errosarioa erreztatzen eta norbaitek jotzen du bizitzako atea.

Terexa.— Ez al dezute aitu jotzen atea?

Patxiku.— Bai nire ustez, Terexa.

Terexa.— Zuaz, Mañubel, zein dan ikustera.

Atea irikitzen du Mañubelek eta agertzen da Dn Pablo.

Mañubel.— Ondo etorria deilla Dⁿ Pablo bedorren⁽¹²³⁾ mesedea. Nola igo da eskallera illun oyen barrena? Zergatik jo eztu atea?

Terexa.— Jesus Maria eta Jose! Dⁿ Pablo! Non dabill ordu abetan eta denbora izugarri onekiñ?

Dⁿ Pablo.— Gaur arratsaldean jakin det Martxial makiña bat egun iruki dezutela, miñez, oyea; etorri naiz bada nola dijoan galdetzera, eta batean iru libra txokolate abek ekartzera, eta ona bost pezetako bat, artzezan⁽¹²⁴⁾ salda ona gizagajoak, jaikitzen danean. Bañon ixiri⁽¹²⁵⁾ zaitzete, nere adiskideak: eskalleretatikan gora netorreanean, aitu zaitzitet errezatzen errosarioa, eta nik ere zubekiñ errezatuko det:

Errezatzen dute alkarrekiñ errosarioa.

Dⁿ Pablo.— Kutizi⁽¹²⁶⁾ andiarekiñ ikusi det errezatzen dezutela errosarioa.

Terexa.— Bai, Dⁿ Pablo. Gure etxean ezta iñoiz uzten errosarioa. Martxialekiñ eta Mari Iñaxirekiñ arratsero errezatzen degu.

Mañubel.— Zer nai du, Dⁿ Pablo? Kostunbre ori bera ezagutu genuben Terexak eta nik gure gurasoen etxeetan, eta kostunbre ori bera segitzen degu.

Patxiku.— Baita guk ere, Dⁿ Pablo. Frankok far egingo liguteke gaurko denboretan, bañon, egin dezala bakoitzak bere etxean bere goba-

(123) Berorren.

(124) Har zezan.

(125) Eseri.

(126) Desio.

ra⁽¹²⁷⁾. Sagardotegiak askotan galtzen du etxeko pakea, eta errosarioa, iñoiz. Orregatikan, jauna, gu azi ginduzten bezela, gure semeak aziko ditugu.

Dⁿ Pablo.— Ondo egiten dezute, nere adiskideak. Kristabak bezeiñ zarra da Ama santisimaren debozioa; eta nola elitzake izango ala? **Jesu-Kristo** gure Jaungoikoak berak, gurutzean zegoela, ikusi zubenean, alde batean bere ama, eta beste aldean, san Juan bere apostolo maitea, esantzion arri «*Orra zure semea,*» eta oni «*orra zure ama,*» eta ordutikan onera, bere ama izan bazan bezela, Kristau Katoliko guztiak begiratu dute **Ama santisima**. Ama santisima izandu da, zerura aingeroak eramán zutenetik, eta azkeneko juizioa gertatzen dan arte izango da, Kristau Katoliko guztien defensora; eta au errex konprendituko dezute, zergatik, zeñi, bere amari baño kaso geyago egiten dio seme on batek? Eta mundoan au ikusten bada eta esaten badegu egunero, pikaro andi bat dala bere ama despreziatzen duben semea. Nola eztegu Katolikoak xiñistuko Ama santisima dala gure Jaungoikoarentzat enpeño onena? eta zenbat eta zenbat kasoetan ikusi da eta egunero Ama santisimaren baliotasun ori ikusten da? Bañon, afaltzazute, eta nai badezute kontatuko dizutet nire ezagun baten, Ama santisimaren medioz, salbazio milagrosoa.

Mañubel, Patxiku eta Terexa.— Bai, jauna: konta beza. Orra afaltzera guaz, eta historia ori gusto andiarekiñ aituko degu.

Mañubel, Patxiku eta Terexa ixiri eta asten dira afaltzen.

Dⁿ Pablo.— Orra bada, oraiñ amabi urte gutxi gora bera zetorren Ameriketatik ontzi andi bat pasageroz betea, eta pasagero ayen artean arkitzen zan nere ezagun bat, Andaluziako semea, *Dⁿ Antonio Menendez* deitzen zana. Ibilli zuben bada amabost egunen bidea ontzi arrek,

⁽¹²⁷⁾ Bokata, lixiba, arropa garbiketa.

eta portura laster allegatzeko esperantza zuten pasageroak, bañon, arrats batean, aitzen dira mariñelen artean ojuak «*suba, suba*» eta oju izugarri oyek pasageroak aitu zituztenean, igo ziran guztiak korrika, bere oyak utzi eta, ontziaren gañera. Ah! eta nork ontzi artako gendearen negarrak eta ojuak eta lamentoak eskribituko ditu, ikusi zutenean subaren garrak paloen kofetaraño⁽¹²⁸⁾ igotzen zirala! Galduak zirala konprenditu zuenian kapitanak, agintzen du barrika urez bete batzubek eta galleta zakuak txalupetan eta botietan jartzeko, eta abek itxasora botatzeko, eta bota zituzteneko, mariñelez eta aurrez eta emakumez eta gizonez bete ziran eta asi ziran arraunekiñ bogatzen, subaren bildurraz, eta urruti zeuden, Dⁿ Antonio Menendez, lenago esan dizutetan nere ezagun ura igo zanean ontziaren gañera; zergatik au zeguen gaxo, eta makiña bat egun bazan oyetik jaikitzen etzala. Orain bada, nola geldituko zan gizaseme ura, ontzi geyena garretan ikusi zubenean, eta mutill txiki amabi urteko bat, ontzi artan gelditua, etorri zizayonian, arren eta arren berekiñ eramateko, eta bere bizia guardatzeko!

Esan dizutet mariñelak eta pasageroak eraman zituztela txalupa eta bote guztiak. Ikusi zuen bada Dⁿ Antonio Menendez nere ezagunak, etzegola salbaziorik ontzian, ez beretzat, ez eta ere mutill txiki arrentzat. Bañon, zer egiten du? Barrika andi bat urez betea, ontzi oyen gañean, taparikan gabe, beti irukitzen dute pasageroentzat eta mariñelentzat. Libratzen du bada urez, barrika ura, amarratzen du, au eginta txalupak itxasoan jartzeko mariñelak jarri zituzten sokeri, botatzen du barrika ura itxasora, eta arren barrenen mutill txikiarekiñ sartzen da. Au egin zubenetik etzan ordu laurden bat juango, eta ontzi arren garrak eramaten zuten legua erdi batera argitasuna, eta, andikan ordu bat exkax pasata, tragatu zuen itxasoak eta gelditu zan Dⁿ Pablo⁽¹²⁹⁾ illuntasun izugarrian, barrikan, bere ondoan zuela mutill txikia.

(128) Kopa, goiko muturra.

(129) Don Antonio beharko luke.

Orla zegoela bada, agertu zan eguna eta nola geldituko zan gizaseme gizagajo ura, ikusi zituenian barrika arren aldamenean zebiltzala, alde guztietatik igari, *tiburuyoak* eta beste arrai andi izugarriak itxogoten, noiz barrikari buelta ematen zion itxasoaren golpe batek, bere gorputza eta mutill txikiarena porrokatu eta tragatzeko?

Orla jua zitzayon egun ura, gosiak eta egarriak eta mutill txikiaren negarrak bere biotza partitzen zutela. Ikusi zituen bi edo iru ontzi, bañon urruti; eta gañera, etzuen ez makill bat ezta ezer ere, bere pañoeloa puntan amarratu, eta señalear egiteko. Ontan, sartu zan gaba, eta aitu zuen mutill txiki, bere barrikako lagunak, esaten zuela negarrez, «*Ama santissima, nere Ama santissima maitea!*» Orain bada, aspalditik zeguen Dⁿ Antonio Menendez Jaungoikoaz eta Ama santisimaz aztuba. Berak histori au kontatu zitanean, esantzitan bazirala amalau urte zankoak eliza batean sartu etzituela; bañon, Ama santissima deitzen aitu zuenian bere lagun gaztea, errosarioaz oroitu zan, eta asi ziran biak au errezatzen; eta letaniaren erdian zeudenean, sentitu zuen Dⁿ Antoniok, barrika zerbeitek bultzatzen zuela. Lendabizikoan uste zuen gizagajoak, tiburoi izugarri ayek bultzatzen zutela, eta zer gertatuko zitzayon gizaseme arri, eskuekiñ illuntasun artan, ezagutu zuenian ontzi bat zala barrika bultzatzen zuen gauza ura? Asi zan bada eta mutill txikia ere baita ojuka eta ojuka, eta andikan pixka batera argi bat agertu zan, eta bota zioten soka bat ontziko gendeak, eta igo zituzten ontzi artara. Orain bada, naiko dezute jakiñ zer gertatu zan, txalupetan eta botietan juantziran beste ontzi erre artako pasagero eta mariñelekin, eta Dⁿ Antonio Menendezek esantzitan iñork etzubela jakindu ayen suertea.

Aitu dezute, nere adiskideak, Dⁿ Antonio Menendezen salbazio milagrosoa, eta kaso orretan izango al da iñor ikusiko eztuena Ama santisimaren baliotasuna? Dⁿ Antonio Menendez eta beste mutill txikia salbatzeko, beartzan ontzi portuges ura, zergatik portugesana zan, zeuden sartuta barrika ura jotzeraño etortzea: bestela, naiz emendikan santa Mariako eliza baño alderago pasatu bazan, gau

illun izugarri arreakiñ etzuten ikusiko, eta galduak ziran gizagajoak, betiko: bañon, pobrien eta peligro andienetan dauden letradoa eta interzesorea da gure Ama santisima, eta Dⁿ Pablo Menendezen⁽¹³⁰⁾ eta mutill txiki arren errezoak aitu zituen eta ontzi ura bigaldu zuen bere guardarako. Eta zenbat eta zenbat kaso orrelako mundo onetan ikusten dira, egunero! Ni bera, oraiñ ogei eta amar urte Indietara nijoala, gure ontzia zegonian Afrikako lurraren aurrean, etorri zizai-gun denbora izugarria. Galdu genituben bi palo, eta ontziari sartzentzizayon alde guztietatik itxaso, eta aize izugarri arrek bultzatzen ginduben kostara. Oraiñ bada, kristau jantzaleak ziran kostartako gendeak, eta tranze artan, ikusi zitubenean kapitanak indarririk gabe ontziko mariñelak, eta pasagero guztiak, zergatik baziran bost egun ez genuela ez mariñelak ez eta ere pasageroak deus jaten baizikanta galleta pixka bat, eta au ere itxasoko urez bustia, esantzigun. «*Nere anayak, egin degu altzan guztia. Ez bada emendik ordu erdi baterako aizea gelditzen, edo kanbiatzen beste aldera, kostara guaz eta an galduak gera Jaungoikoaren eta bere Ama santisimaren eskuetan bakarrik daude gure biziak.*» Au aitu eta erori giñan guztiak belauniko eta asi giñan erreztatzen letaniak eta Jaungoikoak eta bere Ama santisimak aitu ginduen eta lastima izanduzuten ontzi artako gende gaxoaz. Kostatik bada legua erdi bat exkax egongo giñan, buelta eman zubenian aizeak, eta ontziaren erdia urez beteta, arribatu giñan doi doi Kanarietara.

Oraiñ bada, tranze izugarri artan ikusi nituen pasagero fanfar makiña bat, lenagoko egunetan egiten zutenak farra Jaungoikoari eta bere Ama santisimari, erreztatzen, negarra begietan zutela, eta eskuak zeru aldera altxaturik. Bai, nere adiskideak. Begien aurrean dakagunian gure azkeneko ordua, ikusten ditugu argitasunarekiñ, mundu onetako gauzak; eta fanfarrak orduban ezagutzen dute, an goyen dagola gure bizia eta suertea bere eskuetan dakana.

⁽¹³⁰⁾ Berriz ere, Don Antonio behar du.

Mañubel.— Bedorrek kontatu dizkigun historia oyek milagrosoak dira, Dⁿ Pablo, eta oyek aitu baño lenago, debozio andia nuen Ama Santisimari; bañoñ emendik aurrera oraindik geyago izango degu. Ezta ala, Terexa?

Terexa.— Bai, Mañubel, eta orregatik esaten nazunian arrats batzubetan logaleak zaudela, esaten dizut afaltzeko logalerik eztakazula; eta eman bear diogula gure seme alaberi ejemplo ona, eta emendikan aurrera, afaldu baño lenago errezatuko degu errosarioa.

Dⁿ Pablo.— Ondo egingo dezute, Terexa. Askotan gizonak aztutzen gera Jaungoikoari eta Ama santisimari ditugun obligazioetaz; eta zubek ekarri bear gaituzute ayek gure begien aurrera; eta orregatik libruak arrazoyarekiñ erakusten dute emakume on bat etxeko aingeroa dala: Ala ere **Espiritu santoak** berak esana da ohea litzakela gizaseme bati, emakume gaxto batekiñ baño, suge batekiñ bizitzea.

Gañera, Terexa, zeronek esan dezu obligazioa dutela gurasoak semeeri eta alaberi ejemplo onak ematea. Bai, nere adiskideak: Guraso askok ez baluteke denbora abetan aztutzen obligazio ori, semeekiñ ikusten diran eskandaloak elirake ikusiko: elirake seguro izango ainbeste seme eta alaba, andiak egiten diranian eta ezkontzen diranian eta askotan aberasten diranian, bere gurasoez kasorik egiten eztutenak. Arbola geyenak gaztetik txuzentzen ez badira, okerrak azitzen dira, eta zenbat okerrago aziko dira, txuzentzeko enkargoa dutenak, okertzeko egiten badute al duten guztia? Orain bada, semeak eta alabak zer dira gaztetan baizikanta arbola gazteak bezela? eta gurasoak ejemplo onekiñ ayek txuzendu bearrean, okertzen badituzte bere ejemplo txarrekiñ, nola eztira okerrak aziko?

Patxiku.— Gu beñepen, Dⁿ Pablo, okertzen giñanean, txuzentzen ginduzten gure gurasoak. Egun batean, amalau urte nituenean, neguan, erretiratu nintzan etxera arratseko zazpitan, eta txuzendu ninduen, dozena erdi bat matrallerekorekiñ, nere aitak.

Dⁿ Pablo.— Bai, Patxiku. Gure gazte denboran, gizon geyenak, neguan zazprietako eta udan bederatzietako, erretiratzen ziran bere etxeetara,

eta semeak ere kuidoada zuten orduban illunabarreko etxeetan ego-
teko; eta gurasoak bere seme alabekiñ errosarioa errezatu eta afaltzen
zuten humore onarekiñ eta juatentziran oyer. Bañon, kostunbre
ayek oraiñ galdu dira, eta besteak artu dituzte gure nekazari gizaga-
joetatikan geyenak. Tabernetan eta sagardotegietan egoten dira asko,
neguan ere, bederatziak eta amarrak arte; eta seme koxkor amasei,
amalau eta baita ere amabi urtekoak au badakite, eta gaztetatik ar-
tzen dituzte erretiro txarreko kostunbreak eta kaleik⁽¹³¹⁾ kale ikusten
dira arratsetan, eta juaten dituzu berak ere jokoetara eta tabernetara,
eta errespetoa galtzen diote bere gurasoeri; eta abek zerbeit agintzen
badiote, eztiote beste edozein estrañori baño kaso geyago egiten.
Oraiñ bada, orretaz arritzen dira gurasoak, eta amak askotan egiten
dute negar franko, esanaz ezin gobernatu dirala gaurko semeak.
Bañon, guraso kuitado oyeri galdetuko nioteke zeñ dan bere semeen
okertasun oyen kausantea; eta eziñ ukatuko dute, geyenetan dirala
berak; zergatik semeeri berak eman diozkate ejenplo txarrak; eta zer-
gatik Jaungoikoaren mandamentueri bildurrik eztuen semeak, eztu
ere izango bildurrik eta errespetorik bere gurasoeri.

Mañubel.— Uste nuen, Dⁿ Pablo, oraiñ bedorri izketan ari zanean, santa
Mariako elizan sermoi bat aitzen negola, eta iya iya erori nintzan belau-
niko. Bedorrek esan dituen gauzak dira egiak eta andiak. Nik ere uste
det, jauna, gurasoak geyenetan gerala gure semeen okertasunen kausan-
teak; eta biotza porrokatzen du gaur, ikustea semeekiñ zer eskandalo
gertatzen diran etxeetan, eta zer errespuesta generoak ematen diozkaten
bere gurasoeri edozein mutill koxkorrek, eta nola askotan esaten dioten
semeak bere aitari eta amari, abek eztutela ayekiñ ezer ere egitekorik.
Bañon, zer nai du, Dⁿ Pablo, gertatzea, ezpadute erreparorik guraso
frankok bere semeen artean esatea ezjala Jaungoikorik, eta kasorik egi-
ten ez badute bere semeak juaten edo eztiran elizara.

⁽¹³¹⁾ Kalerik kale, kalez kale.

Dⁿ Pablo.— Bai, nere adiskideak. Bere semeen aurrean orlako barbaridade franko esaten dituzte makiña bat gurasok, bere kaltean dirala oroitu gabe. Bañon, kulpa geyena eztute nekazari gizagajo oyek, baizikanta gure erreligio santoaren sakramentoeri burla egiten diotenak. Ez daude gaur gure apaizak, gizaseme batzuen burlataz eta gezurretaz Elizetako pulpitoetan ere seguru. Eskribitzen dituzte gazetetan burla oyek eta gezur oyek; eta gure nekazari batzuek xiñisten dituzte, zergatik moldeko letretan eskribitua egon ezkerro letzen dituzten gazeta oyetan, xiñistuko luteke iri⁽¹³²⁾ bat, itzul egiñ arategitik, eta aidean egoekiñ juan dala uliako⁽¹³³⁾ mendira.

Oraiñ amabost edo ogei egun, sartzera zijoanean aste santoa, apaiz batek predikatu zuen erri onetako eliza batean, konfesioaren gañean, eta esantzuen sakramento arrek kristaben artean on asko egiten zuela, eta badakizute erri onetako bertako gazetero batek zer eskribitu zuen? Konfesioa etzala Jesu-Kristok agindua, baizik eta **Aita santu** batek, familietako sekretoak eta gauzak jakiteko, bere burutik agindua. Esantzuen ere konfesioak eta katolikoek erreligioak baño, herejien doktrinak on geyago egiten zutela, eta au berifikatzeko esan zuen, mundoan zan onena, zala Ingelatierrako gendea.

Oraiñ bada, edo gauza oyek eskribitu zituen gizasemeak bazekien etzirala egiak, eta orduban gezurti bat da, edo etzekien eta orduban izan bearko du gezurti bat erreligiyo libruetan eskola motz bat.

Eztet ukatuko, nere adiskideak zergatik egia da, **Aita santu** batek. Inozentzio 3^o deitzen zanak, oraiñ 600 urte agindu zuela kristau guztiak urtero beiñ konfesatzeko; eta au agindu zuen, zergatik, san Pedroren suzesorea bezela, zuen ori agintzeko fakultadea, eta zergatik kristabak asi ziran aztutzen **Jesu-Kristok** berak jarritako obligazio arretaz.

(132) Idia.

(133) Donostiako Uli mendia bide da.

Jesu-Kristok berak jarri zuela mundura etorri zanean, konfesioa, eta orrekiñ egintzuela sakramentu bat, berifikatua dago apostoloen libroekiñ. San Mateoren libruko amaseigarren kapituloan (kap° XVI) letzen da, egun batean esantziola **Jesu-Kristok** *san Pedrori*. «Zu zera arria eta arri orren gañean altxatuko det nire Eliza, eta inpernuko atea ez tute Eliza ura botako lurrera. Zuri emango dizkitzut zeruko giltzak, eta mundoan askatzen dezun guztia, zeruan ere askatua izango da, eta korapillatzen dezuna, korapillatua geldituko da.» Geroago letzen da *san Mateo* beraren libruko ogei eta irugarren kapituloan (kap° XXIII) **Jesu-Kristok** esantziola bere apostoloeri. «Egietan esaten dizutet, mundoan zuek korapillatzen dezuten guztia zeruan ere korapillatua geldituko da eta askatzen dezutena, askatoa»; eta *Jesu-Kristok* *san Pedrori* eta beste apostolo guztieri egin ziozkan promesa ayen gañean, esaten du *san Juan* apostoloak bere libruko ogeigarren kapituloan (kap° XX). «*Jesu-Kristo* zerura igo baño egun batzuek lenago, agertu zan bere apostoloeri eta esantzion: *Pakea* zuekiñ. *Aitak bigaldu* nauen bezela, *ala nik* ere bigaltzen zaituztet zuek; *errezibi* zazute *Espiritu santoa*. **Zuek barkatzen dituzuteneri pekatoak, geldituko dira barkatoak, eta eztituzuteneri, barkatuko ezтира.**»

Orain bada, pekatoak barkatzeko **Jesu-Kristok** berak emantziola apostoloeri eta aben atzetik etorri bear zuten **Jaungoikoaren** ministro guztieri, ezin ukatu liteke, zergatik eskribitua dago nonbratu dizkitzutetan libru egiazko oyetan; eta oraiñ errex konprendituko dezute, apostoloak, gendeen pekatoak jakin gabe, eziñ barkatuko zituztela, eta ontarako jarriko dizutet ejenplo bat... Zuek eta nik eta beste batzuek zor bagenuke batek ogei ezkutu, beste batek berrogei ezkutu, besteak irurogei libra ogi, gizaseme bati; eta gizaseme au, Ameriketara betiko juan eta uzten baluke gizaseme bat edo batzuek bere artzekoak kobratzeko edo barkatzeko, zer egingo genuke? Juango giñake gizaseme abetako bat ikustera eta esango genioke. «Jauna! orlako gauza, edo onemeste⁽¹³⁴⁾ diru zor diot, bedorri emen bere artzekoak barkatzeko utzi duen gizaseme arri, eta egin bizait mesede

⁽¹³⁴⁾ Honenbeste.

zor ori edo zor oyek barkatzea.» Orregatik, *Santiago apostoloak* esaten-zion bere denboretako kristaberi. «*Konfesa zazkizute zuen pekatuak.*» Bañon, nori konfesatuko zituzten? Edozeñi, edo apostoloeri eta beste abek jarritako ministroeri? Aberi, seguro, zergatik aberi utzi zion **Jesu-Kristok** pekatuak barkatzeko fakultadea.

Nai dezute, nere adiskideak, konfesioaren eta **Jesu-Kristok** apostoloeri utzitako fakultadearen gañean geyago jakiñ? San Pedroren libruan ikusten da etzizkiola barkatu bere pekatuak *Simon Mago*, magikako eta diabruaren parteko gauzak egiten zituen gizaseme bati, zergatik au damutu etzan pekatu ayetaz. *Zure biotza*, esantzion, *Jaungoikoaren aurrean eztago txuzena: egintzazu lendabizi penitentzia: eta san Pablok, Korintioko gendeari eskribitu zion bere bigarren kartan* (kap^o XIII, vrs. II), *egintzion desafio, bueltatzen zanean ayen artera, etziozkala bere pekatuak barkatuko, ez bazuten egiten penitentzia; eta au eskribitzen zuela zergatik Jaungoikoak berak emantzion ortarako fakultadea.*

Orañ badakizute, nere adiskideak, bere pekatuak konfesatzen asi zirala Kristabak, apostoloen denboretatik, eta zer gezur andia dan esatea **Aita santu batek**, milla eta berreun urte geroago, bere burutik agindu zuela Kristaberi urteroko konfesioak, familietako sekretoak jakiteko.

Donostiko gizaseme gazetero orrek esan bazuen **Jesu-Kristok** berak jarri zuela Kristaben artean konfesioa; eta abek, lendabiziko urteetan maiz konfesatzen zirala eta **Jesu-Kristoren gorputza santoa** artzen zutela; bañon, geroago, gerrekiñ eta mundoan gertatu ziran beste trastorno andiekiñ, aztu zutenean askok **Jaungoikoaren** lege ura, **Aita santu batek**, oraiñ sei eun urte gutxi gora bera, agindu zuela Kristau guztieri, (zergatik ori agintzeko zuen fakultadea **Jesu-Kristok** berak emana), urtero beiñ konfesatzeko, orduban izango zan egiazko gazeteroa. Bañon, herejiak eta aben adiskideak eztituzte iñoiz eta iñon bere doktrinak egiarekiñ sartu; eta noizbait arkitzen bada egia bere libruetan, ezta iñoiz izaten osua; eta erreligioko gauzetan, egiaren erdia, geyenetan da gezur andia.

Patxiku, Mañubel eta Terexa.— Kutizi andiarekiñ aitu ditugu, Jauna, bedorren esplikazio oyek, eta segi beza. Gu bezelako iñoxenteak edozein sasiletraduk engañatzen ditu; eta emendikan aurrera, aitzen baditugu oraiñ arte bezela **Aita santoaren** eta konfesioaren kontra itza egiten gure arteko batzuek, ixillik geldituko ez gera.

Dⁿ Pablo.— Oraiñ bada, gazetero arrek esantzuen ere *Ingelesak* zirala mundu onetako gizaseme onenak eta ala ere zirala herejiak, eta *Napolitanoak* zirala Katolikoak eta gaxtoenak. Gauza aben gañean emango dizkitzutet oraiñ explikazioak eta asiko naiz esanaz eztirala nik ditutan notiziak gazetero orrek dituenak. Oraiñ berrogei eta amar urte, neuén Ingelatierran; eta ango egun guztietako eriotz izugarriak eta bideetako eta etxeetako lapurkeriak akabatzeko, lege bat jarri zuten, lau errial ostutzen zuen gizasemea urkatzeko, eta neronek ikusten nituen dozena erdika urkatzen eta mats mordoak bezela urketatik zintzilik. Au gertatzen zanean, baziran *iru eun urte* Ingelesak, herejien doktrinengatik, Katolikoek utzi zituztela; eta ikusi zazute zer arrazoi andia zuen gazetero orrek esaten zuenian herejien doktrinekiñ ondu zirala Ingelesak.

Gañera, ez al daki gazetero orrek zer soziedade izugarria Ingelatierran bildu zan, oraiñ irurogei urte, eta ez Probinzia batean, baizikanta geyenetan, eta, zertako uste dezute? Gizasemeak, emakumeak eta aurrak, errietan eta bideetan pikezko⁽¹³⁵⁾ txapla batzuek aboan eta sudurrean jarri eta ala ito, eta ayen gorputzak, bere operazioetarako, sei ezkutu loditik gora, medikoeri eta barberoeri saltzeko, eta orla eundaka ito zituzten gendeak. Denbora ayetako gazeteroak esaten zuten *inpernuan bakarrik arkitzen zirala alako gizaseme izugarriak*. —Eta, urrutirago juan gabe, ez altziran juan dan neguan bildu Londresen eta baita ere negu onetan bertan, lapur asko deitzen zituztenak estranguladoreak edo gende itotzalleak, eta ez al da egia erri andi artako dendetan sal-

⁽¹³⁵⁾ Bikea.

tzen zituztela burnizko korbatiañak, artzai zakurrentzat bezelakoak, gizasemeak eta emakumeak, lapur ayetatik guardatzeko? eta ez al da ere egia lege izugarri bat egin zutela, lapur ayek, batzuetan eriotza eman arte, azotatzeko, zergatik esaten zuten lege ura egin zutenak, ez bazi-tuzten lapur izugarri ayek kastigo izugarri arrekiñ beldurtzen eta eskarmentatzen, eziñ Ingelatierran biziko zala gende hondradurik?

Bañon, zertako orren urruti juantzan, herejien eta Katolikoek doktrineta notizien billa, gizaseme gazetero ori? Etzuen España-tik ortarako eteratu bearrik. Espanian esaten degu «*Urrutiko notiziak, gezur izugarriak.*» Ez al gaude emen *Euskaldunak*, eta ez al daude Españiako beste aldean *Andaluzak*? Probinzia abetan geyenak urtero eta maizago ere konfesatzen gera eta gure artean ortzak sartu eztituzte herejiak, Andaluzietan bezela. An makiña bat urte ezkeroko ibilli dira zirika eta zirika, bere libruekiñ eta bere doktrinekiñ, herejiak. An porrokatu dituzte erri batzuetan Ama santissima eta santoak; eta Espaniako herejien eliza bakarra, Sevillan altxatzen asi dira⁽¹³⁶⁾. Orain bada, guztiak dakigu, egunero, Euskaldunen artean eriotza alkarri ematen diogula eta etxeak erretzen ditugula, eta eguneroko lapurke-riekiñ ezin baserrietan bizi litekela eta ezin bideetan ibilli litekela. Badakigu ere, Andaluziako gendeak, herejien doktrinak ondu dituz-tenetik, eztala urtero gertatzen ayen artean eriotz bat, eta eztutela erretzen etxe bat edo arbola bat, eta urrez kargatuta dozena erdi bat mandorekiñ ibilli litekela Andaluziako bideetan, kuidadorikan gabe⁽¹³⁷⁾. Guztiak xiñistuko genion, au esan bazuen gizaseme gazetero orrek; eta laster Donostian largatuko genuen *San Sebastian* gure Katoliko patroiz zarra, patroitzat artzeko, *Don Martin Lutero*, *galtzagorriren adiskide eta ongille maitagarria...* Orain bada, banoa, eta gabon nere adiskideak.

⁽¹³⁶⁾ Espania barrendik datozten gaztelebak esaten dute, Euskaldunen mendietan sartzea dala gaur aingeruen artean sartzea.

⁽¹³⁷⁾ Andaluziatik datorren gendeak esaten du, herejien doktrinekiñ, lapurrak eta asesinoak eta beste genero guztietako gizatxarrak Probinzia ayetako jabe eta nausi egiñak daudela.

Dn Pablo izketan dagoela jotzen dute atea.

Terexa.— Bego pixka bat, norbait dabill atean. Zuaz ikustera Mañubel.

Nor ote dator ordu abetan?

Mañubel.— Banoa, Terexa. Apostura egingo nuke Joxe Domingo, gure auzo laguna dala...

Mañubelek irikitzen du atea eta sartzen da Joxe Domingo.

Patxiku.— Zer modu, Joxe Domingo? Zer dakak ordu abetan?

Joxe Domingo.— Zer ekarriko diat, Patxiku? Enekan logalerik, eta emengo konbersazioa eta bixiguaren usaia aitu, eta etorri nak pipa motz bat botatzera... Bixigu guztia garbitu dezute, buena gente, auzo lagun pobreentzat mokadu bat utzi gabe!... Ekatzak bada, Mañubel, pitxarra, eta, ogi koskor onekiñ, sagardo trago pare bat erango dizkiat.

Eraten du Joxe Domingok sagardua eta kargatzen du pipa motza.

Joxe Domingo.— Primorea dek sagardo au. Non saltzen ditek, Mañubel?

Mañubel.— Esnategi kalean, nere ustez, Joxe Domingo.

J. Domingo.— Ekatzak berriz, pitxarra, Mañubel, eta gero botako diagu pipa motz bat.

Terexa.— Orra nondik etorri zaigun irugarren pipa! Sobra genuben birekiñ ere! Ni beñepen, erregiña banintzake, pipa guztiak itxasora juango lirake.

J. Domingo.— Eta gu ere pipekiñ batean. Ezta ala, Terexa? Ezkongaya ziñanean bada, ematen zenion askotan Mañubelli belarra. Orduban gure artean esaten genuen, Mañubel, belarrarekiñ txurikatu, eta pipa kirten luzedunekiñ zureganatzen zenuela.

Terexa.— Ematen baniozkan edo ez baniozkan, etzaizu, Joxe Domingo, zuri ezer ere inporta, eta utzi nazu pakean.

Patxiku.— Joxe Domingo eta Terexa, beti zakurra eta gatua bezela dabil-tza, alkar arkitzen dutenean.

Terexa.— Ni, Joxe Domingorekiñ enaiz iñoiz metitzen, ezertarako. Ori beti, zirika eta zirika asten da bere ezkongai denborekiñ... Orra, Dⁿ Pablo. Ez banau pakean uzten, arkituko du matralleko bat, egun abetako batean.

Dⁿ Pablo.— Orlakorik etzazula esan Terexa. Anayak eta arrebak bezela bizi biaute⁽¹³⁸⁾ auzo lagunak. Orra, begira zazu nola Joxe Domingok garbitu duen bere pipa motza.

Terexa.— Bai, garbitu du, jauna, erre duenian. Gu, pakean bizi gera, Dⁿ Pablo, eta gure artean ez genuke izango itz bat bestea baño altuagoa, ez balitzake asten Joxe Domingo bere ezkongai denborekiñ zirrikaka, ikusten nauen bakoitzean.

J. Domingo.— Eztizkitzut bada zure ezkongai denborak geyago mentatuko, eta ekatzu esku ori, eta gure artean betiko pakea.

Patxiku.— Oraiñ bada, adiskiratu zerate, eta Joxe Domingok zer edo zer esango digu. Onek gazeta batek bezein ondo jakiten ditu errian dabilzan berri guztiak. Jakindu al dek zerbeit Joxe Domingo?

J. Domingo.— Eztek gaur, nere fede, notiziaren faltarik. Ez al dezute aitu *Lingarda re cultus* ekartzeko asmoa dutela, eta jarri bear dituztela sasiezkontzak?

Patxiku.— Zer esan dek, Joxe Domingo? *Lingarda re cultus*? Gauza zarra dek ori, eta eztek ondo konprenditu. *Libertad de cultos* deitzen dek gizaseme ori.

J. Domingo.— Etzekiat bada, Patxiku. *Lingarda re cultus* aitu diat nik, eta san Martingo Antionen sagardotegian ere atzo esantzitekan, gizaseme ori, dozena erdi bat mando Jaungoiko txikiz kargatoekiñ ziatorkala, eta orrek berak jarri bear zizkikala sasiezkontzak, eta ministroen faltaz gelditu dekala Pasayan.

⁽¹³⁸⁾ Behar dute.

Terexa.— Erotu altzera zu ere, Joxe Domingo? Zer? Jaungoiko txiki falsoak eta sasiezkontzak ekartzeko asmoa dutela?

J. Domingo.— Enaiz erotu, Terexa. Paxkual zure lengusoak esan zuen *Lingarda re cultus* ori Pasayara allegatu, eta jakindu duenean etzala Donostian sasiezkontza oyen ministrotarako beste *krak krak bat*, berriz ezkutatatu dala Ingelatierra⁽¹³⁹⁾.

Patxiku.— Ik arkitua dek seguro, Joxe Domingo, krak kraken kontu ori, zergatik aspalditikan ezagutzen gaituk, eta gauza guztiak artzen dituk farraren aldetik... Dⁿ Pablok jakingo dik zer dekan sasiezkontzen endredo ori, eta kontatuko ziguk.

Dⁿ Pablo.— Bai, nere adiskideak. Badakit, eta kontatuko dizutet. Ezkontza berri oyeri deitzen diote *ezkontza zibillak*...

J. Domingo.— Ezta geyago esan bearrik, Dⁿ Pablo. Oyek seguro izango dira karzeletan *guardia zibillak* egiten dituzten ezkontzak. Esan beza Dⁿ Pablo... Ala al dira?

Dⁿ Pablo.— Ez, zuk uste dezun bezelakoak eztira.

Terexa.— Obe zenuke pipa motz ori itzalduta gapeluan⁽¹⁴⁰⁾ gorde, eta egon ixillik... Zure berriketekiñ eztegu jakingo zer diran *piperra eta cultus* gizaseme orren ezkontzak.

Dⁿ Pablo.— Bai. Jakingo dezu, Terexa. Ezkontza oyek egiten ditu edozein alkatek, edo erregidorek, eta Jaungoikoaren legearen kontrakoak dira orlako ezkontzak, eta orlako ezkontza generoak egiñ eta alkarrekiñ bizi diran gizasemeak eta emakumeak, pekatu mortalean bizi dira, *elizan ezkontzen ez badira* eta juango dira mundu onetatik, elizakorikan gabe, inpernura.

Jesu-Kristo gure Jaungoikoa, mundura etorri baño lenago, ezagutzen ziran orlako ezkontzak, eta abek dira zezenen eta beyen eta zerrien artean bezelakoak. Esan dizutet, **Jesu-Kristo** etorri baño lenago

⁽¹³⁹⁾ Ingelatierran.

⁽¹⁴⁰⁾ Kapelua.

mundu onetara, orla gendeak ezkontzen zirala; eta badakizute, nere adiskideak, makiña bat urte juanta, zer gertatu zan? Eskandalo eta kostunbre izugarriak. Nolakoak izango ziran denbora ayetako eskandalo izugarriak, esaten zuenean gizaseme jakintsu benetan jakintsu batek. *Etzazutela galdetu gure señora prinzipaleneri zenbat urte dituzten; baizikanta, aber zenbat senar izandu dituzten; eta eztizkitzutet kontatuko beste denbora ayetako kostunbre izugarri asko, zergatik eztira zuek bezelako kristau oneri esatekoak.*

Orain bada, **Jesu-Kristo** gure Jaungoikoa etorri zanean mundora, ezkontzarekiñ egin zuen **Sakramentu bat**; eta ala, juduak galdetu ziotenean al zuben gizonak fakultadea bere emaztea utzi eta beste bat artzeko, esan zuen. *Ez, Jaungoikoak korapillatu dituen gizasemeak eta emakumeak, eztituzte askatuko gizonak.* Orain bada, esan nazazute. Zein dira mundu onetan Jaungoikoaren eta bere Elizaren ministroak? Alkateak eta erregidoreak? eta gizaseme eta emakume, abek korapillatzen dituztenak, Jaungoikoaz beraz korapillatoak geldituko al dira? Ez nere adiskideak; eta orregatikan, igo zanetik zeruetara **Jesu-Kristo** gure Jaungoikoa, herejiak agertu ziran arte, etziran, kristauen artean, *animalien* ezkontza oyek ezagutu. Herejiak, berriz, mundoan sartu zituzten sasiezkontza genero oyek; eta orlako ezkontzak egiten dituzten gizasemeak eta emakumeak bizi dira herejeak bezela, eta izango dute herejien suerte. Orain badakizute bada, ezkontza zibill oyek zer diran, eta gauza oyen gañean aitzen dituzutenean itza egiten zuben ezagunak, iriki zayozkazute begiak.

Terexa.— Nik beñepen, Dⁿ Pablo, irikiak nekazkien begiak, eta esaten nuen sasigeneroak zirala ezkontza oyek.

Dⁿ Pablo.— Bai, ala dira; eta berandutu du eta banua, zueri guztieri gau on bat deseatuta.

Juaten da Dn Pablo, eta gelditzen dira Joxe Domingo, Patxiku, Mañubel eta Terexa.

J. Domingo.— Hereje sasiezkontza oyek goragalia eman ziotek Terexari, eta juango litzayoke, nere ustez, beste dozena erdi bat pipa motzen belarra erreta.

Terexa.— Aizazu, Joxe Domingo. Ez nazazula billatu aboa; bestela, nai eztezuna arkituko dezu mozkor orrek.

J. Domingo.— Mozkorra, ez Terexa. Sagardo zalea, bai. Ea! guazen Terexa. Banoa eta ekatzu bosteko ori. Guazemak, Patxiku.

Patxiku.— Bai, guazemak. Gabon Terexa. Bigar arte Mañubel. Ondo lo egin.

Mañubel.— Baita zuek ere. Gabon. Jaungoikoarekiñ zuazte.

BI GANBARAK

Arratseko zazpiak dira, eta Pepa Inaxiren sagardotegia arrantzalez eta nekazariz dago betea. Arrantzaleen artean arkitzen dira Joxe Migel eta Joxe Iñaxio, auzo lagunak.

Joxe Migel.— Aizak, Joxe Iñaxio! Nora ua beste pitxar bat sagardo artu gabe?

Joxe Iñaxio.— Etxera, Joxe Migel.

J. Migel.— Zertara ua ordu abetan, orren goiz etxera?

J. Iñaxio.— Zertara juango nak? Familiarekiñ afaltzera... Gañera, Terexak esantziakan atzo, nola bigar dekan Ama Bergiñaren eguna, elizara goiz juateko asmoa zikala.

J. Migel.— Erotu al aiz Joxe Iñaxio? Afalduko diagu emen... Begira zak zer bixigu ederra ekarri diatan... Erango dizkiagu dozena erdi bat pitxar, orrekiñ.

J. Iñaxio.— Erantzazkik, nai badek, eta buen provecho... Ire bixigu ederra emen baño, nayago diat txardin zarra, familiarekiñ afaldu.

J. Migel.— Iñoxentekeria dek ori, Joxe Iñaxio... Ik zer egiteko dek ire familiarekiñ? Ez al gaituk akaso libreak? Beti dakazkik aboan, emaztea, eta aurrak eta familia eta erretiro ona eta beste elizako eta apaiza gendeen kontu oyek... Konpon deilla familia al dikan bezela... Guk, arrantzara juan eta sagardoa eran, eta ez diagu beste ezer ere egitekorik.

J. Iñaxio.— Arrazoya dek, Joxe Migel. Apaizak eta elizako gendeak ez ditek erakusten emaztea eta aurrak utzi bear dizkiakula gosiak eta mixerian, guk etxeak sagardotegian ondatzen dizkiagun bitartean... Ortan eta beste gauza askotan bezela, gizaseme ayek seguro dituk gure kontrario izugarriak. Bañon, zer nai dek? Bakoitzak dizkik

mundu onetan bere gustoak; eta i libre eta jabe baaiz nai dekan gus-toa izateko, neri enak nere ustez ukatuko deretxo ori bera... Orain bada, nola pakean bizi nakan, aspaldiko urte abetan, elizako gendeen astopilkeri eta gezur oyekiñ, asmoa diat emendikan aurrera, oraiñ arte bezela, izateko astoa eta inozentea... Baniak bada, Joxe Migel, eta bigar arte.

Badijoa sagardotegitik Joxe Iñaxio, eta Joxe Migelek, arri begira dagoela, algaraz eraten du, trago batean, pitxar erdi bat sagardo, esanaz «Elizako gendeen osasunera.»

Pepa Iñaxi.— Noiz dezu, Joxe Migel, zure zorra pagatzeko asmoa? Bada-kizu zor dezula gutxienaz larogei eta amar pitxarren sagardoa.

J. Migel.— Venga orduban beste pitxar bat eta izango da larogei eta amai-kagarrena. Nik pagatzen ez badizkitzut, pagatuko dizkitzute apaizak eta elizako gendeak... Oyek aberatsak dira, eta ez badizkitzute paga-tzen, kandelilla bat pixtuko diogu, Joxe Iñaxiok eta zuk Ama santi-sima deitzen dezuten orri, eta ikusiko dezu nola bigar, zure faltrike-ran arkituko dituzun, txanponen tokian, urre txikiak... Ez al dakizu oraiñ libreak gerala, sorgiñ orrek? Damutuko zaizu aitatzen banazu berriz, nere zorra.

Pepa Iñaxi.— Sorgiña banaiz, illik kiskalli ori, enaiz zu bezela, lapurra; eta zu libre bazera ni bezelako emakume pobre bati bere hazienda artu eta pagatu ez eta gañera burla egiteko, ni ere izango naiz librea onera etortzen dan gende guztiari esateko, zerala lapur bat... Obe zenute-ke zuk eta beste batzuek Ama santisimaren ezurrak pakean utzi eta zuen emazte eta aur gaxoetaz oroitu!... Zure eta zu bezelakoen dok-trina genero oyekiñ dakazkitzute zuen etxeak ondatoak.

Bere etxera dijoala, Joxe Iñaxiok arkitzen du bidean, Paskual, Joxe Mige-len semea.

Joxe Iñaxio.— Aizak Paskual! ire aitak oraintxe emantziak enkargoa, i arkitzen baat esateko, gobernatu bear ditukala etziko, beitak.

Paskual.— Esantzaiozu eztetala nai... Zer egiteko du nerekiñ aitak?... Eran eta eran sagardotegian dagoela, errex da esatea beitak gobernatzeko. Goberna ditzala berak, nai badu.

J. Iñaxio.— Zer Paskual? Ire aitaz orla itza egiten dek?... Seme batentzat errespeto andia dek ire gurasoeri!

Paskual.— Zer errespeto eta zer arrayo? Guztiak ez al gera igualak eta libreak? eta, ez al digu ala gerala, egunero esaten aitak, eta errespetu kontu oyek dirala zarrak eta apaizak eta elizako gendeak, bere probetxurako, jarriak? Eta, libreak eta igualak bagera, zergatik enioke aitari esango eztitutala nai gobernatu beitak eta berak gobernatzeko?

J. Iñaxio.— Arrazoya dek, Paskual. Jatea eta eratea ere gurasoen errespetoa eta beste gauza asko bezela, estilo zarrak dituk; eta orregatik, seguro, eztek ik ez eta ere ire aitak illero eraten sagardo pinta bat... Ire lege berri oyek jakinta emengo etxeetan gaur ikusten ditukan makiña bat eskandaloetaz, enak arritzen. Ua, ua, Paskual! Ik ere, ire aitak bezela, noizbait estilo berri oyen frutoa arkituko dek.

JOXE INAXIOREN GANBARA

Joxepa Martina.— Zu al zera Joxe Iñaxio!... Goiz zatoz... Nola ibilli zerate?... Bota zazu Terexa, aita bero dayen, ikatz pixka bat geyago, surtara.

Terexa.— Orra! bota det, Ama!... Aita! Betor suaren ondora... Bekar txapela.

J. Iñaxio.— Eztakat otzikan, Terexa. Zaude, gaxo ori, suaren ondoan... Tori txapela. Bustia dago, eta zintzilik jarri zazu burni ortatik... Artzazu diru au eta eman zaiozu zure amari.

J. Martina.— Afaldu baño lenago, naiko al dezu erari pixka bat artu, Joxe Iñaxio?

J. Iñaxio.— Ez Martina. Sagardotegitikan nator eta an sagardo baso bat eran det. Eztet, afaldu arte, ezer ere artuko.

Terexa.— Ar beza, Ama! Aitak eman ditan dirua.

J. Martina.— Jesus, Maria eta Jose! Amabi ezkutu lodi eta sei errial, gañera! Suerte ona izan dezute, Joxe Iñaxio eta suerte ohea guretzat zu bezelako gizona etxean izatea. . . Apostura egingo nuke eztezula zure partillatik⁽¹⁴¹⁾ gastatu txanpon bat!

J. Iñaxio.— Enaiz, Martina, zuk uste dezun bezeiñ ona... Txanpon bat justu justu gastatu det, eta suerte ona eman digu Jaungoikoak, zergatik naiz arrai exkaxa ekarri degun ere, nola bildu diran mandazai makiña bat arrandegian, asko altxatu dira errematiak... Bañon, Martxial eztet ikusten, eta banuen ere bada aurreri, abek ojera juañ baño lenago, musu bana emateko desioa...

J. Martina.— Aurak aspaldi daude lotan, eta neronek bigaldu det Martxial, ojera. Makala dago oraindik gure seme ori. Ala ere, or aritu da arratsalde guztian, aparejueri amubak jartzen, eta beti bezela estutzen zan esanaz, zu etortzen ziñaneko, etzituela guztiak gobernatu-ko, eta etzuela nai utzi, amu bat bakarra jartzeko lana, bere aita giza-gajoari: bañon ezagutzen nuen buruko minez zegoela, eta zankoeta-ko bañu bero bat eman, eta neronek sar-azi⁽¹⁴²⁾ det oyeañ.

J. Iñaxio.— Bai, Martina. Suerte degu seme orrekiñ eta alaba maite onekiñ; eta Jaungoikoari eta bere Ama santisimari esker franko emateko obligazioan gaude. . . Zer egingo genuen, Martina, izan baziran beste seme eta alaba franko bezelakoak?... Oraintxe bidean arkitu det Paskual, gure auzo lagunaren seme zarrena, eta onen, bere aitarentzako errespetoaren falta ikusita, estutua nekan biotza, eta gure ganbara ontan sartu eta zuek ikusi arte, etzait zabaldu.

Terexa.— Zer esan dio Paskualek, Aita?

⁽¹⁴¹⁾ Irabazien banaketa.

⁽¹⁴²⁾ Sarrarazi.

- J. Iñaxio.*— Zer esango zitan, Terexa? Seme baten abotik aitzeko gauza ikaragarriak, eta obe da zuretzat, nere Alaba maitea, oyek, beste mundu onetako gauza franko bezela, ez jakitea... Etorriko zaizu bizi bazera, gauza oyek zure desgraziaz, jakiteko denbora.
- J. Martina.*— Orra! Ur irakiña baratxuri zoperi botatzera nua, eta, nai badezu, Joxe Iñaxio, errezatuko degu errosarioa.
- J. Iñaxio.*— Bai, Martina. Erreza zagus... Lenago errezatzen ez genuen egun batzuetan, bañon emendik aurrera errezatu bear degu egunero; zergatik gaur aitzen ditugun gauzak dira izugarriak... Lenago, Martina, pikardia eta gezur genero guztietatik esaten zituzten apaizen kontra; gero, konfesioaren eta gure erreligio santoaren sakramentoen kontra; geroago asi ziran gure aldareetan dauden santu guztietaz bur-latzen, bañon Ama Bergiña errespetatzen zuten. Orain, gure Ama santisima ere aboetan dabilte; eta arritu eta ikaratuko ziñake, zer oraintxe sagardotegian aitu detan, jakiten bazenuke... Xiñistatuko zenuke, Martina, zure ezagun batek esan duela guk Ama Bergiña eta Ama santisima deitzen degun señora santa ori, izan zala emakume urde zikiñ, bizi gaxtoko bat? Au, aitu, Martina, eta ezta ezer ere geyago gelditzen aitzeko, eta ez dakit nola zure ezagun arri ez diotan lepoa okertu.
- J. Martina.*— Zer Joxe Iñaxio! Ori esan dute? Jesu-Kristo, gure Jaungoikoren Ama santisima, izan zala emakume bizi gaxtoko bat?... Eta, etzayo gizaseme arri mingaña abotik erori?
- J. Iñaxio.*— Ez, Martina, etzayo; bañon an zeuen beste gizaseme gu bezelako arrantzale kanpotar zar batek esan dio «Zer aitatu dik ire mingaiñ madarikatu orrek? Ago, ago!... Noizbait, arrats illun izugarri ayetako batean, galernaren igesi atorrenean itxasotik portura, itz oye-taz oroituko aiz eta damutuko aiz, bañon berandu eta alferrik... Aingeruen erregiña, gure Jaungoikoa bere sabelean eraman zikana eta bere bularrarekiñ azi zikan andre ura, andre guztietan garbiena eta santoena, loitu eta desondratu dek, eta orretan bertan ere loitu eta desondratu dek Jesu-Kristo, bere semea... Ire itz izugarri oyek aitu

dizkitek zeruan, eta ire izenarekiñ betiko inpernuetan eskribituak ziaudek.»

Terexa.— Ama santisima! Ori esan al dio? Au ikara, Aita!

J. Iñaxio.— Bai, nere alaba maitea; ori esan dio, eta sagardotegian zeuen gende guztia ixillik gelditu da; eta ikusi degu zure amaren ezagun ura, itz bat geyago esan gabe, ezkutatu dala.

J. Martina.— Jesus Maria eta Jose! Gure Jaungoiko maitea! Oraiñ eta gure azkeneko orduba datorren arte, iruki beza familia au guztia bedorren guardan eta legean.

J. Iñaxio.— Oraiñ bada, pixtu zazu, Terexa, kanderilla Ama santisimari, eta erreza zagun errosarioa.

Errosarioa errezatzen dute. Gero, humore onian afaldu eta egun abetako gauzen gañean itz-egiñ eta joaten dira oьера. Bañon, loa sartzen zayotenean, aitzen dituzte ojoak eta eskandaloa auzoko ganbaran.

JOXE MIGELEN GANBARA

J. Migel.— Afaria gobernatu al dezu?

Ana Batista.— Ordu onian zatoz, amarretan, afaria gobernatua arkitzeko... Ez al dezu bixigu andi ura eraman sagardotegira? An afalduko zenuen zu bezelakoekiñ, zure familia gosiak zegoen bitartean.

J. Migel.— Afaldu badet edo ez badet, zuri etzaizu inporta... Gosiak nago... itz gutxi eta larga afaria.

A. Batista.— Gosiak zaudela? Jantzazkitzu orduban eskumuturrak... Ez badizut sudurretako mukiekiñ gobernatzen, ez dago emen afaririk.

J. Migel.— Ez dagoela afaririk? Berriz ori esaten badezu alfer arrayo orrek, matralleko batekiñ arkituaziko⁽¹⁴³⁾ dizut... Venga afaria; sorgiñ urde zikiña!

⁽¹⁴³⁾ Aurkiarazi.

A. *Batista*.— Nori esaten diozu sorgiñ zikiña, mozkor zar lotsagabe orrek?... Zerekiñ gobernatuko dizut afaria? Ez al dezu irabazten dezun guztia eta geyago ere ondatzen zure lagun zu bezelako oyeikiñ sagardotegian? Eta, ez al dezu zure ejemploarekiñ zure seme zarrena galdu... Eta, ez al dakizu gañera, larru gorrian daudela zure aurrak, eta egunero etxetik etxera nabillela ogi puska baten billa, gosiak ilko ez bagera.

Konbersazio onetan daudela, irikitzen du atea Paskualek, Joxe Migelen seme zarrenak, sartzen da sukaldean eta gau onak eman gabe, asten da zullatik⁽¹⁴⁴⁾ eraten ura.

J. *Migel*.— Aizak! Ori al dek etxean sartzeko estiloa, gau onak eman gabe?... Zakurrak al gaituk gurasoak?

Paskual.— Ez dakit nik zakurrak edo gatuak bazerate... Nai duen bezela sartzen da bakoitza... eta gañera, etxean sartzen zeranean, ematen al dituzu zuk gau onak?

J. *Migel*.— Ematen badizkiat edo ez badizkiat, eztek ori ire egitekoa... Ni, aita nak eta i, semea.

Paskual.— Bueno... Aita zeralako bada, estilo onak guri erakutsi bear zenituke!... Eta gañera, ez al dezu egunero esaten guztiak gerala libreak eta igualak, eta santurik eta Ama Santisimik eta Jaungoikorik ez dala; eta oyek dirala gezurrak, bere probetxurako apaizak jarriak.

J. *Migel*.— Bai; ala esaten ditek or dauden liburu eta gazeta oyek, eta ala esaten diat. Bañon, neri bear dekan errespetoarekiñ, zer egiteko dik Jaungoikoak?

Paskual.— Arrayoa! Zer egiteko duen? Asko... Jaungoikorik ez bada, eta gatuak eta zakurrak bezela bagera, zergatik zuri izango nuke errespetoa? Gatuak eta zakurrak azi eta aunditu diranean errespetorik bere aita eta ameri izaten al dute?

⁽¹⁴⁴⁾ Kaikua baino handixeagoa den zurezko ontzia.

J. Migel.— Obeena izango dek konbersazio au uztea alde batera... Esan al dik Joxe Iñaxio gure auzo lagunak etziko gobernatu bear ditukala bixigutako aparejoaren beidak?

Paskual.— Bai, esan dit; eta nik ere esan diot eztetala nai.

J. Migel.— Zer? Ez dekala nai?... Berriz ori esantzak mutur zikiñ arrayo orrek!

Paskual.— Baita eun bider ere, esango det, eta gobernaturko ez ditut.

J. Migel.— Lotsagabe arroya⁽¹⁴⁵⁾! Berriz!... Lepoko ezurra autsitzia nai al dek? Esantzak gobernaturko edo ez ditukan beidak...

Paskual.— Ez, ez ditut; eta zuaz zure beitekiñ a la mierda...

J. Migel.— Zer? Ire aita botatzen dek a la mierda inpernuko diabru sasi-kume orrek? To, madarikatu urdea... artzak...

Au esan eta botatzen dio pitxar zar bere ondoan dagoen bat, jotzen du buruan, eta Paskualek ikusten duenean bere kopetetik odola jario, altxatzen da agarratzen du aita eta asten dira biak burrukan.

Ana Batista.— Joxe Iñaxio! Joxe Iñaxio! Martina! Atozte! Atozte laster guztiak... Alkar illtzen ari dira aita semeak.

Au aitu; eta korrika jantzita, eteratzen dira bere ganbaratik Joxe Iñaxio eta Joxepa Martina, eta sartzen dira Joxe Migelen ganbaran.

J. Iñaxio.— Paskual! Mutill! Burua galdu al dek? Zer dek atrebimentu ori? Larga zak ire aita.

Paskual.— Ez, eztet burua galdu... Utzi nazazute... Zakur onen odola gaur eran biat.

J. Martina.— Ama Santisima! Paskual! Paskual! Gurutze santoaren izenean, larga zak ire aita.

⁽¹⁴⁵⁾ Arraioa!

Paskual.— Zer gurutze santu eta zer arrayo! Kaka gurutze santoarentzat ere... Zuazte emendik, bestela, urde au bezela zuek guztiak illko zaituztet.

Ana Batista.— Joxe Antonio! Joxe Antonio! Zu ere igo altzera!... Onelako eskandalorik iñoiz ikusi al dezu?... Laster laster! bestela illko du bere aita...

Joxe Iñaxioren eta Joxe Migelen suyaren artean Paskual sugetatzen dute; eta Joxe Migel, odola arpegitik jario, bere emaztearekiñ utzi, eta Paskual eramaten dute onen kuñaduaren bizitzara. Au an utzi eta igotzen dira Joxe Iñaxio eta Joxepa Martina bere ganbarara.

J. Iñaxio.— Ikusi al dezu, Joxepa Martina, zure bizian, orlako eskandalorik?

J. Martina.— Ez, Iñaxio. Ez dira gauza oyek egunero ikustekoak... Zer da etxe ori, nere Ama Santisima! inpernukoak daude oyen artean.

Martxial eta Terexa.— Aita! Zer zan eskandalo ori?... Uste genuen etxe guztia lurrera zetorrela...

J. Iñaxio.— Zer izango zan, nere maiteak? Gure auzo lagun oyek dira libreak eta igualak; eta seguro, libreak eta igualak diralako, burrukan ibilli dira aita semeak eta ixuri dute alkarren odola.

Martxial.— Bañon, aita!... Izan liteke bere aitarekiñ Paskual burrukan ibilli dala?

J. Iñaxio.— Bai, Martxial, nere seme maitea... Etxe onetan ez gera libreak eta igualak, eta gañera, bildurra degu Jaungoikoari eta errespeto andia bere Ama Santisimari, eta santoeri, eta orregatik degu beti gure artean pakea eta alkarrekiñ burrukan ibiltzen ez gera... Orain bada erreza zagon *Padre Nuestro* eta *Ave Maria* bat, Jaungoikoak gure familia, orain arte bezela, iruki dezan pakean eta bere legean; eta gero juango gera berriz oyer.

BI ILLABETE GEROAGO

- J. Migel.*— Joxe Iñaxio! Ez ayela egon orren urruti... Nere ondora ator.
- J. Iñaxio.*— Orra! Joxe Migel... Emen niagok.
- J. Migel.*— Eziñ gau izugarri ura, nere begien aurretik bota diat...
- J. Iñaxio.*— Aztu zazkik gauza oyek, Joxe Migel, eta ire osasunean pentsa zak...
- J. Migel.*— Ez, Joxe Iñaxio. Gauza batzuek iñoiz aztutzen ez dituk... Oroitze al aiz toletaren⁽¹⁴⁶⁾ kontra bota zikanean nere gorputza aize izugarri arrek, eta abotik odola jario, sartu nindukanean txalupan... Laster juango nak, Joxe Iñaxio, eta ire burnizko eskumuturreri zor diat oi ontan arkitzea... Ah Joxe Iñaxio! Eta, gure patroï gizagajoa, itxasoaren golpe arrek eraman zikanean, ez geyago agertzeko!... Non dek Santiago?... Oraindik aitzen dizkiat arren azkeneko oju triste ayek... *Anayak, onera! Atozte, atozte!... Ama Santisima! barka, barka!...* eta ez genikan geyago aitu... Jakindu al dek zein zan sagardotegiko kanpotar arrantzale zar ura?... *Ago ago!... Noizbait damutuko aiz, bañon berandu eta alferrik... Aingeruen erregiña desondratu dek... esan ditukan itz oyeikiñ, ire izena betiko inpernuetan eskribitua zia gok... Zeiñ ote uben, Joxe Iñaxio, alako desafio izugarria Santiagori bota ziokan gizaseme zar ura?*
- J. Iñaxio.*— Oroitz oyek larga zazkik, Joxe Migel... Ama Santisimarentzat izan uben Santiagoren azkeneko pentsamentua... Damutzen dekanari biotzetik, barkatzen zioz Jaungoikoak, eta sagardotegiko itz izugarri ayek barkatu ziozkan, seguro, Santiagori.

Joxe Migelek noizian beñ galtzen du burua eta sartzen zayo delirioa.

- J. Migel.*— Atozte, atozte guztiak... Ama Santisima! nere Ama Santisima maitea! barka, barka... ez det nik iñoiz bedorri desondratu... barka!... Nere emazte maitea! atoz!... barka zuk ere.

⁽¹⁴⁶⁾ Arraunari eusteko karelean jartzen den ziria.

A. *Batista*.— Bai, Joxe Migel. Zaude pakean. Barkatzen dizut.

Berriz etortzen zayo juizioa.

J. *Migel*.— Ana Batista! Bota al dituzu gazeta eta liburu ayek surtara?

A. *Batista*.— Bai, Joxe Migel. Apaiza jauna etorri baño lenago erre nituen guztiak eta gure etxean geyago sartuko ez dira... Alako gizon ona zan, Joxe Iñaxio! eta inpernutik etorritako liburu eta gazeta oyek naspillatu zioten burua. . .

J. *Migel*.— Ah nere Jaungoikoa! Zer da naigabe au?... Banoa, banoa... Paskual, nere seme maitea! Ator... Beñ ixuri dek nere odola, baño barkatzen diat... Errespeta zak ire ama gajoa... Maita zak asko Jesu-Kristo, gure Jaungoikoa, eta Ama Bergiña eta santoak, etzazkikala iñoiz desondratu... Oyek dituk ire aitaren azkeneko enkargoak.

Itz abek esan eta Joxe Migelek ematen du bere azkeneko asnasea.

J. *Iñaxio*.— Bi *Padre Nuestro* erreza zazkigun, bat Joxe Migelen eta bestea Santiagoren animarentzat; eta ik, Paskual, etzazkikala iñoiz aztu ire aita gizagajoaren azkeneko enkargoak.

Bayonne, impr. E. Lasserre, rue Orbe, 30.

AYEK ETA ABEK

PELLO MARIEN GANBARA

Neguan gaude. Asten da eguna argitzen. Pello Mari, gizaseme arrantzale izandua, dago iru illabete abetan oyea gaxo. Bere seme alabak, iru urte eta bostekoak, lotan daude lastaida⁽¹⁴⁷⁾ batean, eta Kataliñ, aben ama, sukaldean, suba pixtutzen.

Pello Mari.— Kataliñ! Atoz... Goberna nazazu almoada au, eta altxa nazazu pixka bat ezkerreko aldetik koltxoia... Aize andia dator leio orretik. Tapa zazkitzu irriñarte⁽¹⁴⁸⁾ oyek.

Kataliñ.— Esnatu altzera, Pello Mari!... Uste nuen oraindik lotan zeundela. Nola pasatu dezu gaba gizagajo orrek?

Pello Mari.— Juan dan egun abetan baño lo obeto egiten det, eta gorputza eztakat atzo bezein gogorra... Egarriak nago. Ekatzu ur pixka bat, Kataliñ.

Kataliñ.— Orra, Pello Mari! Artzazu... Barberoak atzo esan zuen epeltxoia emateko artzen zenuen ura, eta etzaitzela asarratu.

Pello Mari.— Nayago nuke balitzake freskoa! Bañon zer egiñ? Barberoak agindu badu, nere onerako izango da... Ah nere Jaungoiko maitea! Au eztula! Zer dakat nik, Kataliñ, petxu onetan? Lagundu nazazu gorputz au pixka bat txuzentzen... Eziñ asnasea artu det.

⁽¹⁴⁷⁾ Lastaira, koltxoia.

⁽¹⁴⁸⁾ Zirriztu, zirrikitu.

Kataliñ.— Orra Pello Mari! Obeto altzaude? Altxatu dizut koltxoia, eta banoa leyoaren irriñarteak tapatzera... Izugarri otza dago... ikatza ondo pixtutzen darian, ekarriko det su pixka bat, gela epeltzeko.

Izketan daudela senar emazteak, esnatzen dira aurrak, eta asten dira negarrez.

Joxe Domingo.— Ama! Ama! gosiak nago. Ekatzu ogia.

Joxepa Manuela.— Amatxo! ura, ura.

Kataliñ.— Banoa Joxe Domingo!... Tori ura Joxepa Manuela!... Zaudezte ixillik, aita gaxoari, zuen negarrekiñ burua porrokatu gabe... Ara, ogia Joxe!

Pello Mari.— Uste nuen, Kataliñ! etxean etzegoela ogirik.

Kataliñ.— Bai Pello Mari! badago! Etzegoela esan nizun atzo, arratseko zazpietan, zergatik azkeneko puska eman nioten aurreri, oyea sartu nituenean; bañon zortzietan, zu lotan zeundenean, etorri ziran Kofradiako bi kaballero ayek eta ekarri zituzten zazpi txartel libra banakoak, liberdi bat txokolaterekiñ, eta gañera, gure bi ongille aye-tatikan batek utzi zizkitan amar pezeta eta besteak zortzi errial, zuretzat, aragiarekiñ, salda garbia egiteko.

Pello Mari.— Jaungoikoak bejondaiotela Kristau on oyeri... Zer egingo genuen, Kataliñ, oyek ez baziran ganbara onetan agertu? Nere gorputzak ez du deskantsurik artu, gure ongille oyek, etzinta⁽¹⁴⁹⁾ nagon lastaida eta koltxoi au ekarri zituzten arte.

Kataliñ.— Eta gañera, Pello! maindireak eta manta gozoak eta alkandora...

Suerte izan degu, berriz Kaballero oyek gure etxeetara igotzen astea.

Pello Mari.— Atea ez al dezu aitzen, norbaitek jotzen duela, Kataliñ? Zuaz, zein dan orren goiz, ikustera.

⁽¹⁴⁹⁾ Etzanda.

Irikitzen du Kataliñek atea eta sartzen da Paskual auzo laguna.

Paskual.— Zer diok, Pello Mari! Nola zijoak gorputz ori?

P. Mari.— Orlaxe bada, Paskual! Juan dan gabea polikitxo lo egin diat eta nere ustez eniagok gaizkiago... Lenago oi bat bakarra genikan senar emazte eta aurrentzat, eta gorputzak deskantsurik eziñ artu zikan; bañon oraiñ, koltxoi biguñ onen gañean eta zabaltasun onekiñ, ezurrak beste gozotasuna artzen ditek.

Paskual.— Arrazoya dek, Pello Mari. Orlako oi ederra nondik ekarri ditek? zergatik eztek ori gure etxeetan arkitzen ditukan bezelakoa.

Kataliñ.— Gure kontrario batzuek ekarria da, Paskual!... Apostura egingo nuke asmatuko etzenukela.

Paskual.— Ori asmatzea, ezta, Kataliñ! gauza errex; eta, nere fede, nai nuke mundu onetan nere orlako kontrario asko izatea. Guazen... Esan zazu, Kataliñ, nondik etorri zaizkitzuten oyek.

Kataliñ.— Kofradiako Kaballeroak ekarriak dira; eta oraiñ ezagutuko dezu zer arrazoi gutxirekiñ zuk ere egiten zenituen makiña bat berri-keta, Kaballero oyen kofradia, orain zortzi illabete akabatu zutenean.

Paskual.— Zer nai zenuen bada egitea, Kataliñ? Alde guztietatik aitzen genuen Kaballero oyek zijoaztela gure ontasunaren kontra, eta oyek eta beste elizako gendeak akabatzen ziranean, orduban ere akabatuko zala gende pobrea; eta badakizu eztala arritu bear bakoitzak bere kontrarioak uzten dituenen gañean ez ondo itza egitea.

P. Mari.— Arrazoya zitekan, Paskual! gazetero eta gizaseme orlako gauzak ari-azten⁽¹⁵⁰⁾ zizkitenak, zergatik elizako gendeak deitzen dizkitek an oyek akabatzen ditukanean, orduban seguro akabatuko dituk gu bezelako gende pobreak; bañon badakik zertaz? Mixeriaz eta gosiaz; eta au aztu zitekan esatea... Asto franko dituk, Paskual, gu bezelako-

⁽¹⁵⁰⁾ Adierazi.

en artean; eta au esaten diat, zergatik gazetero eta gizaseme gure adiskide oyetatikan eztek oraiñ arte beñepen, grano bat ganbara onetan agertu... oyek onemeste eskallera igotzeko, asnase labur xamarra ditek... Bigar ire emazteari, edo iri berari, miñ bat sartzen bazaik, ikusiko dek orduban zeñ dekan ire adiskidea eta zeñ ire kontrarioa.

Kataliñ.— Ez Paskual. Gazetekiñ eta itz onekiñ jaten eztute pobriak... Gu beñepen egon bagiñan Madrillko eta baita ere erri onetako gizaseme, elizako gendea deitzen duten kontra dabiltzan oyeri itxogoten, aspaldi izango genuen gure gizona hospitalera bigaltzeko eta gu mixeri-kordiara juateko bearra.

Pello Mari, Paskual eta Kataliñ izketan daudela, irikitzen da gelditxo, eskallerrako atea; eteratzen da Kataliñ gelatik, zeñ dan ikustera, eta arkitzen duenean D. Martiñ, sukaldean, asten da negarrez.

Don Martiñ.— Zer gertatu zaizu Kataliñ! gajo orri? Ez al dago zure senarra obeto?

Kataliñ.— Ez jauna... Ah Don Martin, gure ongillea! au lana! nere Ama santisima maitea! Zer ikusi bear ote degu? Barka beza nere negarra, zergatik barrenen dakatan pena onekiñ, non nagoen ere eztakit, jauna.

Don Martiñ.— Barberoak, seguro, esango zizun atzo zerbait. Noiz etorri zan Pello ikustera?

Kataliñ.— Atzo arratseko zortziterdian, jauna, eta esantzitan Pello gaizki zijoala, eta zer edo zer pentsatu bear zala, zergatik ematen bazion berriz abotik odola, elitzakela arritu bear tranze artan bertan ilta gelditzea.

Don Martiñ.— Eta ez al zizun ezer ere geyago esan?

Kataliñ.— Bai jauna. Esantzitan ere bearko zala Pello Marik lasterrena elizakoak artzea, bañon biotzik eztet izan, gizagajoari emateko notizia ori... Ah Don Martin! Au desgrazia! Orlako gizon ona galdu bearra!... Izutzen naiz pentsatzea, bear bada eztetala bigar iñor izango neri eta nere aur gaxoeri begiratzeko.

Don Martin⁽¹⁵¹⁾.— Bai, Kataliñ. Izango dezu. Zeruan dago gu guztien aita.

An jarri zazkitzu begiak, eta andik, konfiantza eta pakea etorriko zaitzu zure biotzera... Gañera, gu ere emen gaude, eta zure senar gizagajoarentzat egin degun bezela, egingo degu ere zuretzat.

Kataliñ.— Eskarrik asko Jauna. Zeruan arkituko dute bedorrek eta bedorri bezelakoak, guregatik egin dituen eta egiten dituen on guztien premia. Bañon nork esango dio Pello Mariri bere estadu tristea?

Don Martin.— Nik Kataliñ, eta nai badezu obeena izango da ez denborik galtzea.

Kataliñ.— Bijoa bada, jauna, ni emen negarrez nagoen bitartean.

Don Martin sartzen da Pello Mariren gelan.

Pello Mari.— Don Martiñ! Bedorri emen, ganbara onetan eta denbora izugarri onekiñ! Oraintxe aitzen nuen kazkarabarraren erredoblia⁽¹⁵²⁾ tellatoan eta kristaletan...

Don Martin.— Bai, Pello Mari... Ementxe etorri naiz zu ikustera, eta zergatik enintzan etorriko? Pobrea zeralako ez altzera akaso nere anaya? Ez altzuen **JESU-KRISTO** GURE JAUNGOIKOAK esan bere apostoloeri, igotzeko zegoenian zeruetara. «*Or uzten dizkitzutet nere pobreak.*» eta gañera, ez al digu Katolikoeri gure erreligio santoak erakusten, pobreak mundu onetan bisitatzen dituztenak, gaxo daudenian, **JESU-KRISTO** bera bisitatzen dutela? Orain bada esantzazu; nola sentitzen dezu gorputza gizagajo orrek?

P. Mari.— Ala, bada, Jauna. Goizean esnatu nintzanean, uste nuen obeto negoela; bañon gero, gogortzen bezela asi zait gorputza, eta alako naigabea noizian beiñ, petxutikan bururaño igotzentzait... Zer nai du esatea, Don Martin? Enago obeto, eta nork daki elizakoetan pentsatzea elitzaken izango obea!... Zer uste du bedorrek, Don Martin?

(151) Hemendik aurrera "Martin" idatzia dago.

(152) Errepika.

Don Martin.— Zer usteko det, Pello Mari! Barrendik ori etorri zaizunean, zenbat eta lasterrago egitea, izango dala ohea... Jaungoikoak berak, oroitza orrekiñ, beregana deitzentzaitu, eta, nola etziñake gizagajo ori juango Jaungoikoaren bidera? Nola naiko etzenuke artu Jaungoikoak eman nai dizun zure biotzeko pakea?

Don Martin bera juaten da apaizaren billa, eta Pello Marik, konfesatu eta artu duenean biatiko Santoa, sartzan da berriz onen gelan, Kataliñ, Paskual, eta Juan Joxe eta Martxial, Pello Mariren auzo-lagunekiñ.

Don Martin.— Iruri dezu obeto zaudela, Pello Mari.

P. Mari.— Nola, Jauna, ez naiz obeto egongo? Arrazoyarekiñ esatentzitan, pakea eta konformidadea ekarriko zitala Jaungoikoak... Zer da, Don Martin, nere barrena gozaten duen atsegiñ au? Ama Santisima dakat nere aurrean, besoak zabaldurik, eta aingeroak ikusten ditut eta aitzen ditut, Apaiza biatiko santoarekin emen izan danetik zeruko atarian kantari, eta bere esku txiki zillarezko eta urrezko bezelakoekiñ deitzen nautela ayen atzetik juateko.....

Don Martin.— Bai, Pello Mari. Nik ere ikusten det San Pedro, zure patroizandua, **JESU-KRISTOK** eman zizkion giltzak eskuetan dituela, zuretzat zeruko ateak irikitzeke.

Pello Mari.— Kataliñ! Kataliñ! Nere emazte maitea! Nerekiñ beti izandu zera ona, eta oraiñ arte bezela maita zazkitzu gure aurrak... Inoxente gaxo oyek eztute aitik izango emendikan pixka batera... Azi zazkitzu gure biotzeko puska maite oyek Jaungoikoaren bildurrean eta Ama Santisimaren eta San Pedro eta beste santu guztien errespetoan... Ator, onerago, Paskual! Itza egiteko, nere gorputzetik indarra bazi-joak... Nere lagunetan i onenetakoa izandu aiz, eta itz bi esan bear dizkiat:... Ah Ama Santisima! Ah nere Jaungoiko maitea! Zer da eztul au!... Noizbait, itzaz edo obraz egiñ badiat kalterik, barka nazak, Paskual, eta baita zuek ere Juan Joxe eta Martxial.

Paskual, Juan Joxe eta Martxial.— Iñoiz ez gaituk ik egiñ kalterik. Barkazioa iri eskatzeko bearrean, gu giaudek. Ago deskansoan, Pello Mari; bes-tela, berriz emango dik eztulak.

P. Mari.— Kataliñ! Kataliñ! gaizki nua. Musu bana gure aurreri eman bear diotet. Ekarri zazkitzu laster nere ondora.

Kataliñ juaten da korrika sukaldera, aurren billa; bañon bitartean, Pello Mariri, zerura begiak altxaturik dakazkiela eta ezpañetan Ama Santisimaren izena, etortzen zaio eztul golpe bat, eta ematen du bere azkeneko asnasea.

Kataliñ.— Ah, nere Ama Santisima!... Pello Mari! Pello Mari! Lotan al-tzaude? Esna zaite gizagajo ori... Ona non dituzun zure aurrak...

Don Martin.— Zure senarra lotan dago, Kataliñ, mundu onetako; bañon konforma zaite gajo ori, oroituaz zeruan dagoela Jaungoikoaren ondoan, betiko, gizaseme prestu orren anima, zure eta zure aingeru oyen guardarako.

Onetan daudela, sartzen da Paskualen emaztea, beste auzo lagun batekiñ. Eramaten dute, bere aurrekiñ, Kataliñ, negar eta negar egiten duela, eta gelditzen da gelan Don Martin, difuntoaren lagunekiñ.

Don Martin.— Ikusi dezute, nere anayak, Pello Mariren eriotza santoa. Erreza zagun Padre nuestro bat, eta zoriona guretzat, zuen lagun ori bezela iltzen bagera... Ori beti bizitu zan Jaungoikoaren bildurrean, eta orrek etzuen iñoiz ez Ama Santisimari, ez eta ere zeruan dauden gizaseme santu, Jaungoikoaren adiskidieri errespetoa ukatu; eta orra nola Jaungoikoak ere bigaldu dituen bere ama eta bere aingeroak, Pello Mariri zeruko bidea erakustera.

Paskual.— Arrazoya du Jauna. Beti izandu zan Pello Mari gure artean mutill prestoena, eta azkeneko denbora abetan, makiña bat bider esaten zigun etzekiela, inpernueatikan ez bazan, nondik etortzen ziran

gure artera izugarri gazeta eta inprentako paper, euskaldunen artean iñoiz ikusiak.

Don Martin.— Bai, Paskual. Izugarriak eta ikaragarriak dira zuen artean sartzen dituzten gure erreligio santoaren kontrako gazeta eta liburu oyek; eta ez badegu gure errezoekiñ eta gure negarrekiñ Jaungoikoaren gorrotoa kamusten. Nork daki, urteak juanta, zer gertatuko dan zuen artean, liburu oyekiñ. Oraiñ iru eun urte, herejiak eta aben adiskide, paper eta liburu oyek eskribitzen dituzten bezelakoak agertu ziranean mundoan, xiñistatu zituzten nekazari eta baserritar gizagajo frankok; eta gazeta eta liburu oyen doktrina eta eskeintza falsoekiñ arroturik, nai izan zutenean, asko bilduta, eskeintza ayek ikutu, herejiak eta aben adiskideak, bala rasarekiñ eta metrallarekiñ porrokatu zituzten eta errioka baserritarren eta nekazarien odola ixuri zuten. Denbora ayetako historiak esaten digute errien baño arategien antza geyago zutela *Alemaniko* erri askok. Eta abek eztira, nere adiskideak, zuek letzen dituzuten paper eta liburu oyetan eskribitzen dituzten bezelako gezurrak. Zueri gauza egiazko abek esatea etzayote konbeni, eta orregatik eztituzute jakingo, baño egia dira, eta dakizki edozeñek eskola duenak eta urrutiko jua dan urteetan, zer mundoan gertatu zan, liburuetan letu eta ikasi duenak⁽¹⁵³⁾.

Paskual.— Atsegiñ andiarekiñ aitu ditugu, jauna, bedorrek eman dizkigun notizia oyek zergatik egia esateko, eztegu oraindik ikusi, ontasun herejien doktrinak Espaniara ekarri bear duten ori.

Don Martin.— Ez nere adiskideak. Eztezute ikusi; eta ez badezute emendik aurrera, zuen etxeetako eltzeetan paper eta liburu oyek sartu eta eteratzen salda koipatsubagoa, eztakit zer ontasun genero ikusiko dezuten, ez bada lana exkaxagoa eta jornal motxagoak... Bañon nola

⁽¹⁵³⁾ Luterok, herejien maisu andienak engañatu zituen eta arrotu zituen, bere doktrina falsoekiñ, *Alemaniko* baserritar gizagajok, eta abek altxatu ziranean, *Munzer* agintari zutela, doktrina ayen bentajak ikutzeko, Luterok berak eskribitu zuen baserritar ayek guztiak porrokatu eta ill bear zirala zerrien artaldeak bezela: eta ala millaka eta millaka ill zituzten.

eztezute nai ori gertatzea? Paper eta liburu izugarri oyekiñ, gende ondradu guztiak ikaratzen dira; eta iñork eztu pentsatzen egitea ez etxerik, ez eta ere edozeiñ obra txikienik, beldurraz gerren⁽¹⁵⁴⁾ bat edo trastorno andiren bat gertatuko dan, eta etxeak eta arbolak eta zelaiak ondatzen, ayek eta abek asiko ote diran... Orra paper eta liburu oyek ekarriko dizuten ontasuna.

Orain bada, eztezute seguro zuek jakingo Kristauak bezeiñ zarrak dirala mundu onetan herejiak, eta nola ondo zekien **JESU-KRISTO** gure Jaungoikoak ala izango zirala, orregatik *San Pedrori* agindu ziozkanean zeruko giltzak, esantzion ere *inpernuko atea* iñoiz *etzutela arri arren gañean altxatuko zuen eliza, botako lurrera*; eta nonbratu zituenean inpernuko *atea*, ari-azi nai zituen inpernuko ateetatik barrenen zeudenak.

Gauza abetaz arritu bear eztezute, zeren inpernuko atea irikiak dauden bitartean, etzaiozka **JESU-KRISTOREN** erreligioari kontrarioak faltako. Orregatik orain, millaka eta millaka, kalabozo illun izugarri ayetatik irrintzika eteratu dira diabruak, Espanian Katoliko-en erreligio santoa porrokatzera; bañon **JESU-KRISTOK** *San Pedrori* emantzion itza, egun abetaraño kunplitu dan bezela, kunplituko da ere emendik aurrera, mundu au subak eta garrak erretzen duen arte. Orduban berriz etorriko da **JESU-KRISTO** zeruko oroyetan⁽¹⁵⁵⁾, eta bere azkeneko sententzia emanta, gizaseme eta emakume santu eta prestu guztiekiñ igotzen danean zerura, gizatxarrak, eta aben artean gure erreligio santoaren persegitzalleak, sartuko dira diabruiekiñ inpernuban, eta itxiko dira onen atea, ez iñoiz geyago irikitzeko.

Orañ, nere adiskideak, banoa, eta artzazu, Paskual... Bikario Jau-naren billa jua naizanean, onek ogei pezetako au eman dit Katali-ñentzat. Emantzaiozu bada beste ogei pezetako onekiñ, gajo arri... Eta zuek, nola galduko dezuten emen gaba, eta bigar zuen gorputzak

(154) Gerra.

(155) Hodeia.

egongo dira lanerako gogorrak, artzazute bakoitzak amar errialeko bana. Orain, irureri deseatzten dizutet gau on bat.

Paskual, Juan Joxe eta Martxial gelditzen dira difuntoaren gelan.

Paskual.— Elizako gendea deitzen ditenetakoetatik balin badituk ori eta beste orlako gizasemeak, gu bezelakoentzat beñepen ondo onak eta prestoak dituk.

Juan Joxe.— Arrazoya dek, Paskual. Orlako gizaseme asko mundoan bali-tukek, kalte andirik elitekek izango gure artekoak.

Martxial.— Bai gizonak. Ori eta ori bezelakoak gure kontrarioak badituk, etzekiat non arkituko ditukan gure adiskideak.

Bayonne, impr. E. LASSERRE, rue Orbe, 20.

